

15



Gabriel Jauregi
Batxilergorako materialak

Euskal artea aztergai

(Zenbait ibilbidiren proposamena)

Ramón Leturiondo Altube

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskara Zerbitzua
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma
Batxilergorako materialak

15

Euskal artea aztergai (Zenbait ibilbideren proposamena)

Ramón Leturiondo Altube



Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma
2. Mikroekonomiaren oinarriak
3. Energia baliabideak
4. Arte marrazketa I
5. Oinarrizko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta ariketa praktikokoak
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan
7. Filosofiaren historia
8. XIX. eta XX. mendeetako gizarte filosofia: liberalismoa, marxismoa eta komunismoa
9. Motorrak
10. Logika sinbolikoa
11. Ekonomia eta enpresen antolaketa: Ekonomia-politika; merkataritza saila eta marketina
12. Bolumena
13. Filosofia: 5 filosofo
14. Etorकिनak eta esplotazioa; kulturantzatasuna eta integrazioa
15. Euskal artea aztergai

Argitaraldia: 1. a, 2009ko urria

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ramón Leturiondo Altube

Fotokonposizioa: mccgraphics

Inprimaketa: mccgraphics

ISBN: 978-84-457-3000-3

L.G. BI-2495-09

AURKIBIDEA

HISTORIAURREKO ZENBAIT ZANTZU GIPUZKOAN:

EKAINGO LEIZE ZULOKO PINTURAK	7
1. Testuinguru historikoa	9
2. Ekaingo leize-zuloa	9
2.1. Ingurumena.....	9
2.2. Aurkikuntza	10
2.3. Ekain santutegiko zenbait labar-pinturaren iruzkina.....	11
2.4. Paleolitoko artearen esanahia	15

ERROMATARRAK GIPUZKOAKO EKIALDEAN:

OIASSO IZENENKO CIVITASA ETA ARDITURRIKO MEATEGIA	17
1. Testuinguru historikoa	19
1.1. Euskal Herriko lurraldeak erromatarrak heltzerakoan	19
1.2. Erromatarren etorrera	19
2. <i>Oiasso</i> izeneko <i>civitas</i> erromatarra	20
2.1. Fundazioaren zer-nolakoak	20
2.2. <i>Oiasso</i> izeneko <i>civitas</i> : hiri erromatar baten antolamendua	22
A) <i>Oiassoko</i> hirigunea.....	22
B) Erromatarren garaiko <i>Oiassoko</i> portua	23
C) Ama Xantalenen ermitako erromatar hilerria.....	24
D) Arditurriko meategia	25
2.3. Konklusioak.....	27

ERROMANIKOA NAFARROAN: LEIREKO MONASTERIOA 29 |

1. Testuinguru historikoa	31
1.1. Erromanikoa, arte erlijiosoa eta aristokratikoa	31
1.2. Erromanikoa Nafarroako erresuman hedatzen lagundu zuten faktoreak	32
2. Leireko San Salbatoreren monasterioa.....	33
2.1. Kripta (XI. mendea)	33
2.2. Eliza erromaniko klunitarra.....	34
2.3. <i>Speziosa</i> atea (XII. mendean eratua).....	35
2.4. Eliza erromanikoaren handiagotzea: arkitektura zistertarra.....	37

GASTEIZKO ALDE ZAHARRA. ANDRE MARIAREN KATEDRAL GOTIKOA 39 |

1. Testuinguru historikoa	41
1.1. Gasteizen ingurunea eta kokalekua	41
1.2. Gasteizko lehen gunea eta ondorengo zabalgunekak.....	41
1.3. Erdi Aroko Gasteizen hiri-morfologia eta funtzio nagusiak	42

2. Andre Mariaren katedral gotikoa	43
2.1. Eraikinaren azterketa arkitektonikoa.....	43
2.2. Andre Mariaren katedral zaharraren mendebaldeko ataldea.....	46
ERRENAZIMENTUA GIPUZKOAN: OÑATIKO UNIBERTSITATEA	49
1. Testuinguru historikoa	51
1.1. Forma errenazentista berriak zabaldu ziren garaiaren zer-nolakoak	51
1.2. Platereskoa.....	52
2. <i>Sancti Spiritus</i> Unibertsitatea	53
2.1. Fatxada	53
2.2. Unibertsitateko klaustroa edo patioa	55
2.3. Unibertsitateko kapera eta erretaula.....	56
Eranskina (fatxadako ikonografia)	58
DONOSTIA BARROKOTIK DONOSTIA NEOKLASIKORA	59
1. Donostia XVIII. mendeko lehen hamarkadetan.....	61
1.1. Testuinguru historikoa	61
1.2. Sutearen aurreko Donostiaren hiri-morfologia	62
1.3. Koruko Andre Mariaren basilika.....	65
2. Donostia ilustratua eta neoklasikoa.....	67
2.1. Testuinguru historikoa	67
A) Ilustrazioaren pentsamoldearen eragina.....	67
B) Frantziako iraultzak eta Napoleonen garaiak	
Donostian eragindako ondorioak.....	67
2.2. Sute ondorengo Donostiaren berreraiketa.	
Hiriaren taxutze neoklasiko berria	69
2.3. Donostiako arkitektura neoklasikoa	70
DONOSTIA LIBERALA:	
KORTAZAR ZABALGUNEA ETA ARKITEKTURA HISTORIZISTA.....	73
1. Testuinguru historikoa	75
2. Donostiako zabalgunea.....	76
3. Donostiako arkitektura historizistaren eta eklektikoaren zenbait adibide	79
3.1. Gipuzkoa plaza eta Diputazioa.....	80
3.2. Donostiako kasinoa (gaur egungo udaletxea)	80
3.3. Artzain Onaren katedrala.....	82
3.4. Miramar jauregia	83
3.5. Victoria Eugenia antzokia	84
GERRA ZIBILAREN AURREKO ABANGOARDIAK:	
DONOSTIAKO KLUB NAUTIKOA	85
1. Testuingurua	87
2. Donostiako Klub Nautikoa.....	88

ARANTZAZU, GERRA ZIBILAREN OSTEKO	
EUSKAL ARTE ABANGOARDISTAREN EREDU	91
1. Testuingurua	93
2. Arantzazuko multzoa	94
2.1. Arantzazuko proiektu arkitektonikoa	94
2.2. Oteizaren apostoluak	95
2.3. Chillidak moldatutako atek.....	97
2.4. Luzio Muñozek itxuratutako erretaula	98
2.5. Javier Eulate frantziskotarrak diseinatutako beiratea.....	99
2.6. Nestor Basterretxeak margotutako kripta.....	99
DIAPOSITIBA-BILDUMAREN ZERRENDA.....	101
BIBLIOGRAFIA	111

*Historiaurreko zenbait
zantzu Gipuzkoan:
Ekaingo leize-zuloko
pinturak*

1

IRADOKIZUN PRAKTIKOAK EKAINBERRI BISITATZEKO:

1. Ekain haitzuloaren erreplikako bisita egiteko, beharrezkoa da erreserba ziurtatua izatea.
2. Erreserba on line egiteko, hona hemen helbide elektronikoa: <http://www.ekainberri.com/>
3. Telefonoz deitzeko, hau da zenbakia: 943 86 88 11

1. EKAINGO LEIZE-ZULOKO PINTURAK

1. TESTUINGURU HISTORIKOA

Aztarnategi honek K.a. 14500. eta 7000. urteen artean garatu zen Goi Paleolitoko Madeleinealdiko tresna eta pintura ugari eman ditu. Paleolitoa giza tresneria garatzen hasi zen harri-aroko lehen garaia da, eta aldi horrek lehen gizakia sortu zenetik iraultza neolitikoa gertatu zen arte hartzen du —duela bost bat milioi urtetik duela 10.000 urte ingurura arte gutxi gorabehera—. Paleolitoari harri landuaren aldia deitu izan zaio. Garai horretan, gizakiak harria gero eta trebezia handiagoz eta modu konplexuagoz landu zuen; horren ondorioz, harria lantzeko oso modu bereziak eta ezberdinak zeuden. Aro luze hori errazago aztertzeko, hiru azpialditan banatu da Paleolitoa: Behe Paleolitoa, Erdi Paleolitoa eta Goi Paleolitoa. Horietako bakoitza, halaber, beste hainbatetan.

Goi Paleolitoa Paleolitoko hirugarren eta azken garaia izan zen. Duela 35.000 urte hasi zen, gutxi gorabehera, eta bukatu, berriz, K.a. 10000. urte inguruan; hartara, azken glaziazioarekin bat etorri zen. Izan ere, giroa horrenbeste hoztu zen —Würm izotzaldia nagusitu zela eta—, ezen Kantabriar mendikatean Cro-Magnongo gizakiak leize-zuloetan bizi behar izan baitzuen, hamabost-hogei lagunez osaturiko taldeetan bilduta. Neanderthalgo gizakiarekin batera bizi izan zen, harik eta duela 30.000 urte inguru Neanderthalak desagertu ziren arte. Garai horren azken aldiari Madeleinealdia deritzo, eta K.a. 15000. urtetik 10000. urte ingurura luzatu zen; garai horretan egin ziren aztergai ditugun margo-lanak.

Homo Sapiensa ehizatik eta landare- eta fruitu-bilketatik bizi zen eta bizimodu nomada zeraman. Ekainean, Madeleinealdian, ehiza oso espezializatuta zegoen, eta, batez ere hasieran, orein emeak eta oreinkumeak ehizatzen zituzten —orein emeak taldetik bereizten zirenean erditzera zihoazelako—; Ekaingo hurrengo aldi batekoak, berriz, basahuntzen ehizan espezializatu ziren. Horiek ez ezik, mamutak, bisonteak, errinozero iletsuak edo hartzak ere ehizatzen zituzten, horien arrasto gutxiago badira ere. Ehiztariak urtaro epelean bizi ziren Ekaingo leize-zuloan, eta urte osoan bizilekutzat zuten beste leize-zulo batetik etortzen ziren. Izokinak, amuarrainak eta aingirak ere arrantzatzen zituzten.

Goi Paleolitoaren ekarpen nagusiak honako hauek dira: Europara gizaki modernoa etorri izana, lanabesak lantzeko teknika berrien agerpena (jaurtigailuak, hezurrezko tresneria...) eta, batik bat, Historiaurreko artea gorengo mailara heltzea (leize-zuloetako marrazkiak garai honetan egin ziren).

2. EKAINGO LEIZE-ZULOA

2.1. Ingurumena

Ekaingo haitzuloa Izarraitzeko iparraldeko isurialdean dagoen Sastarraingo haranean dago. Zestoako hirigunetik gertu egon arren, Deba udalbarrutiko hego-ekialdeko ertz batean dago. Urola haranean dago eta ibai horren adarra den Sastarrain erreka Ekaingo muinoa inguratzen duten bi errekatxoren urak jasotzen ditu. Kareharrizko haitzak nagusitzen dira paraje horretan,

haranetik doan errekatxoarekin batera. Horrela, ehizan egiteko kondizioak ezin hobeak ziren: azpian erreka bat zuten, zeinera animaliak edatera joango baitziren, eta ehiztariek muinotik harrapakinak erraz ikusi ahal izango zituzten.



Cro-Magnongo gizaki taldeek orientabide aproposko leize-zuloak aukeratzen zituzten; hori dela eta, Ekaineko leizearen sarrera ekialdera begira dago, iparraldeko haize hotzetatik edota mendebaldeko ekaitzetatik babestuta. Talde horiek, bizi izateko, sarrera bakarrik erabili zuten, alegia, sartu eta ezkerretara doan 13 m-ko galeria. Pintatzeko, berriz, barruko ganbera erabili zuten, leku ezkutuetan egiten baitzituzten pinturak eta irudiak, hemen beste hainbat tokitan bezala.

2.2. Aurkikuntza

Bi espeleologo azpeitiar gaztek —A. Albizuri eta R. Reizabal izenekoek— aurkitu zuten Ekaingo leize-zuloa 1969an, Zestoa ondoko —Debako lurraldeetan egon arren— leize bat miatzera joan zirenean. Leize-zulora sartu orduko, ohartu ziren zirrikitu batetik haizea ateratzen zela, atzean galeria handiago bat zegoen seinale; sarbide zail bat zeharkatu zuten arrastaka, eta zutik jarri ahal izan zirenean, ohartu ziren galeria estu hura gorantz zabaltzen zela eta, beraz, ganbera handi batean barrena ibil zitezkeela. Zaldi ugari eta beste irudi sail luze bat marrazturik ikusi zutenean, haien harridurak ez zuen amaierarik izan: Madeleinealdiko santutegi bikainenetariko baten aurrean zeuden. Egun gutxira, On Jose Migel Barandiaranek eta On Jesus Altunak ikerlanari ekin zioten eta Ekaingo haitzuloa goitik behera induskatu zuten 1969tik 1975ra arte.




2.3. Ekain santutegiko zenbait labar-pinturaren iruzkina

Paleolitoko artearen errepresentazio ugariena eta hoberena Frantziako hegoaldean eta kantabriar lurraldean dago. Horrela, Dordoinan hasi, Euskal Herri menditsuan barrena jarraitu eta Kantabriar mendikatean amaitzen den lurraldeetan azaldu da gehienbat (Lascaux, Santimamiñe, Altxerri, Ekain, Altamira, besteak beste). Ekaingo haitzetako pintura, beraz, franko-kantabriar deitzen den sailean sartu beharra dago, hemen azaltzen diren ezaugarrien-gatik:

- Margolanak leizeetako barrualdeetan egin zituzten, alegia, bizigune modura erabiltzen ez zituzten esparruetan, hara argi naturala ez baitzen heltzen.
- Madeleinealdiko gizakiek naturaltasunez irudikatzen zituzten animaliak, haien mugimenduak eta anatomiak oso ezagunak egiten zitzaizkielako, ehiza baitzen haien jardueraren nagusia. Aitzitik, gizakiak oso gutxitan azaltzen ziren, eta azaltzen zirenean, atentzioa ematen du Paleolito garaiko artistak ez zituela irudikatzen animaliek zuten itxura naturalista berberarekin, giza irudi horiek eskematikoagoak baitziren. (Horixe izango da Levanteko Neolitoko pinturarekin izango duen alderik nabarmenena).
- Tamaina handiko eta kolore anitzeko (polikromia) irudiak dira. Izan ere, Madeleinealdiko ertilariak beltzez (egur-ikatz edota manganeso dioxidoa) eta horiz nahiz okre (limonita, hematitea) margotzen zituen haitzetako pinturak. Animalien odolarekin eta gantz urtuarekin nahasten zituen gai horiek, hormak hobeto xurga zitzaizkien. Halaber, batzuetan haitzen pitzaduraz edo irtengunez baliatzen zen bolumena lortzearen.
- Esanahia azaltzeko orduan, aditu eta ikertzaileak ez datoz bat. Zenbait adituen ustez, margolan horiek zentzu magikoa zuten erritoekin erlazionatuta daude, leize-zuloen barrualdean aurkitu izan direlako, leku guztiz ilunetan, eta ez normalean egile haiek egunero bizi ziren sarreratik gertu. Ematen du margolanak egiten zituztela animalien ehiza errazago lortzeko; halatan, haien irudi margotuz jabetu eta gero, animaliak aiseago harrapatuko zituztelakoan zeuden. Interpretazio horretaz aparte, bada besterik dioenik ere; horrela, zenbaitek uste izan du animalia batzuk emeen printzipioekin loturik zeudela, eta beste batzuk, berriz, arren printzipioekin, eta beraz, haiek irudikatzea ernaltze-errituekin lotu beharreko zerbait dela. Horrela, bikoiztasun horrek izadian dagoen bikoiztasun sexuala adierazten du. Azkenik, totemismoaren aldekoak dauzkagu. Horiek diotenez, totemismoan giza talde batek bere jatorria animalia baten ondorengotzat hartzen du. Horrela izanik, leinuaren babes bilatu nahian, irudiez baliatuko ziren euren eta totemaren arteko harremana gauzatzeko (horren arabera, Ekaingo totema zaldia litzateke).

Ekaingo haitzuloan hainbat irudi daude margotuta: hogeita hamar zaldi, hamar bisonte, lau ahuntz, bi orein, bi hartz eta bi arrain. Irudirik ezagunenak honela banatzen dira leize-zuloan: erdialdea deitzen den galerian, bi bisonte daude marraztuta —bata erliebeak iradokitzen dituen formaz baliatzen dena—; ondoren, zaldien galeriako ezker aldean, zortzi zaldiko multzo bat dago —ezagunena azagaia batez zaurituta dagoena—; horren aurrez aurre, zaldien panel handia, hamaika zaldirekin eta hiru bisonterekin —hau da, zalantzarik gabe, alderik ikusgarriena eta ederrena—; leize-zuloan barrena aurrera joz, hartz bikote bat dago margotuta —manganeso oxidoz margotuta dauden bakarrak, ez egur-ikatz, besteak bezala—; azkenik, haitzuloaren barrenean, zazpi zaldiz osatutako taldea dago, hartzak dauden alderako noranzkoan, alegia, kanpoalderantz.




Kronologiari dagokionez, badirudi hainbat maisuk esku hartu zutela —esate baterako, zaldiak margotzeko lau maisuren eskua antzematen da—. Halere, argudio tekniko eta estilistikoetan oinarrituta, Leroi-Gourhan-ek Ekaingo margoak Erdi edo Goi Madeleinealdikotzat hartzen ditu, ezaugarri hauek aintzat hartuta: zaldien gorputzak luzeak izatea, hankak oso xehetasun handikoak, apoak eta azazkalak markatuak, altuera txikiko eta lodiera handiko animaliak gehienetan, eta adarrak, adajea eta azazkalak perspektiba bat baino gehiagotan irudikatuak edukitzea. Edonola ere, ikertzaile horrek teknika-batasun bat badela ondorioztatzen du, belaunaldiz belaunaldi pasatuko zena, ziur aski.

Behin pintura franko-kantabriarraren ezaugarri horiei guztiei eta haitzuloaren barruko irudi-banaketari erreparatu ondoren, ekin diezaiogun Ekaingo leize-zuloan bertan aurkitzen diren margolan batzuen iruzkina egiteari:

Zaldien galeriara igarotzeko dagoen harkaitz batean dago egina, guztiz margotuta dagoen beste bisonte baten alboan, zeinek haitzaren konkortxo bat aprobeztatzen baitu gorputzari bolu-

Berezko erliebeaz baliatuz eginiko bisontea




mena emateko. Baina deigarriena da harkaitzaren formaz baliatu izana animalia-aren itxura iradokitzeke (*Trouvismoa*). Ertilariak irudia osatu besterik ez zuen egin, xehetasunez margotu baitzuen isatsa, sabel-lerroa eta hankak. Burua, ostera, gorputzaren beste atal batzuk baino azalagotik dago margotuta. Pintura beltzez margotu zituen buruaren ingerada, kokotsa, bizarra eta bi adar; hankei erreparatuz gero, berehala konturatuko gara oso modu diferentean margotuta daudela: aurrealdeko hanka bakarra bukatu gabe dago, eta atzekoak, berriz, apo eta guzti, osotara marraztuak daude; buztana ere marra batez marraztu zuen.

Zaldien galeriako ezker aldeko zaldi zauritua



Zaldien galeriako ezker aldean kokatzen da. Aukeratutako adibide honetan, marra beltz indartsu eta itxi batek zehaztu du zaldiaren ingerada, silueta osoa. Horrez gain, xehetasunez beteta dago irudia, hala nola kima edo zurda —marra lodi jarraitu batez azpimarratua—, burua eta lepoa bereizteko lerroa, sabelean “M” erako marra, hankak, belaunak, ileak, zangarrak edota apoak. Aurreko hankak pintura beltzez beteta daude belaunetik behera. Zaldi horrek azagaia bat du sartuta gorputzaren aurrealdean, bihotzaren inguruan, eta beste bat, atzealdean. Horrek galdera bat baino gehiago ernarazi du adituen artean, zeren, Ekaingo totema zaldia izanez gero —horren ondorioz ez omen zuten harrapatzen—, zergatik azaltzen dira zenbait zaldi zaurituta?

Zaldien panel handia



Leroi-Gourhan adituak esana du zaldien panel hau franko-kantabriar arte-eremuan dagoen zaldi talderik ederrena dela, eta estilo horretako aldi klasikoaren unerik gorenenetako baten erakusle dela.

Konposizioari so eginez gero, laster ohartuko gara hemen ertilariek ez zituztela animaliak bata bestearen gainean jarri, beste franko-kantabriar estiloko labar-pinturetan ez bezala; adibidez, eskuinaldeko goiko ertzean dagoen bisonte gorria margotu zuenak atzeko hankak bukatu gabe utzi zituen, azpian dagoen zaldi gorriaren bizkarra errespetatzearen. Bestalde, esan beharra dago zaldiak ez daudela edonola jarrita, panel handiko zaldi gehienak haitzuloaren barnealdera begira baitaude, eta leize-zuloaren sakonean dauden zaldiak, berriz, kanpoaldera. Bi multzoen artean hartzak daude. Beraz, esan genezake zaldi talde biak hartzak dauden ingurura daudela begira. Horrek nolabaiteko sinbolismoa ezkututzen ote du?

Irudien estiloa aztertzeke, ertilariek erabili zituzten teknikei eta baliabideei behatuz gero, aise ohartuko gara irudi batzuk lerro fin eta beltz batez marraztuta daudela, animalien ingeradak zehazteko, besterik gabe; beste batzuetan, margo beltza (egur-ikatz) eta gorria (hematitea) nahiz horia (limonita) konbinatzen dira intentsitate desberdinekin, edota modelaketa lortzearen edota haitzaren ertzez eta pitzadurez baliatzen dira bolumena emateko.

Panel handiko bisonteak goiko eskuinaldean daude. Ingerada beltzez eta barnealdea gorritz margotuta dagoenari atzealdeko hankak falta zaizkio, behean daukan zaldiaren irudia errespetatzearen. Egur-ikatzez prestaturiko ildo beltzari behatuz gero, ohartuko gara burualdetik konkorrera doan lerro beltza geroz eta lodiagoa dela, bisonteak hor ilaje ugari duela adierazteko. Halaber, konkorraren gainean pinturarekin batera grabaturiko erreten baten arrastoak ere ikus daitezke. Kopetan eta kokotsean ere ileak zintzilik ikus daitezke.



Beltzez eta gorritz margotutako zaldia bisontearen azpian dago. Zaldiaren ingerada eta barne-modelaketa pintura beltzaren bitartez itxuratu dira; gorputzaren barnealdea, berriz, gorritz koloreztatu da, tinta lauaren teknikaz baliatuz. Burua, begia, belarriak eta bizkarraren silueta ziztatutako edo grabatutako daramatza; era horretan, grabatua eta margoa batera doaz bizkarralde osoan buztaneraino. Irudia osorik dago irudikatuta, eta beste zaldi-irudi batzuen ezaugarri berberak ditu: marra jarraitu batez eginiko zurda edo kima tentea, “M” antzeko lerroa sabelean, etab. Halere, deigarria da sabeleko marra ez zuela ertilariek lerro batez marraztu, marra bertikal ugari eta motzen bidez baizik, zaldiak hor ilaje ugaria zuela iradokitzeko. Panel horretako ederrentzat jo izan den zaldi-irudi horri errealitatea naturaltasun osoz jasotzeko ahalmena eta polikromia darizkio nabarmenki, eta ondorioz, franko-kantabriar pinturaren eredu bikaina bihurtu da.

Hartz-bikotea



Irudi horiek lerro beltz lodi batez margotutako bi ingerada besterik ez dira. Irudia bukatu ondoren, pintura korritu egin dela dirudi, manganesozko jatorrizko marrak zabalduz. Hartz handiari burua falta zaio; buztana, berriz, nabarmen ikusten zaio. Bizkarreko lerroa margotua ez ezik, ildo zabal batez grabatua ere badago. Hartz txikia oso-osorik dago. Ez omen dira leize-hartza espeziekoak, hartz arreak baizik. Animalia horietan ezin dira hauteman ile motzeko zaldietan ikus daitezkeen ezaugarri anatomikoak, ilajea oso trinkoa eta ugaria baitaukate.

2.4. Paleolitoko artearen esanahia

Arestian esan bezala, margolan horien zentzua gehienbat izaera magikoa zuten errituekin lotu izan da. Edonola, eta teoria horren arabera, gogora dezagun gizaki haiek uste zutela animaliak errazago harrapatuko zituztela ehizara joaterakoan, baldin eta animaliak menperatuta irudikatuak izanez gero.

Aitzitik, Ekaingo Madaleinealdiko aztarnategian gehien aurkitu izan diren hezurak oreinarenak eta basahuntzarenak dira. Beraz, gehien ehizatzen eta jaten zutena —oreinak eta basahuntzak— zen, hain justu, hormetan gutxien margotzen zutena —zaldiak—. Esan daiteke, ondorioz, gizaki paleolitikoaren beharrak edota nahiak eta animaliak irudikatzerakoan zituen interesak ez zetozeela bat.

Interpretazio totemikoa ere zaila egiten zaigu, zeren zaldia baldin bazen Ekaingo bizilagunen totema, zergatik irudikatu azagaiaz eta azkonez zauritua?

Bukatzeke, eta kontuan hartuz ez dugula ziurtasun osorik izango pintura horien esanahia argitzerakoan, Jesus Altunaren hitzekin bat egingo dugu: “Zalantzarik gabe, egileak artistak ziren, eta erlijioa astearekin lotu zuten. Kontua da askoz zailagoa dela erlijioan barneratzea artean baino”.

*Erromatarrak
Gipuzkoako ekialdean:
Oiasso izeneko civitasa
eta Arditurriko meategia*

2

IRADOKIZUN PRAKTIKOAK OIASSO ERROMATAR MUSEOA BISITATZEKO:

- 1.- Helbidea: Eskoleta kalea, 1 - 20302 IRUN
- 2.- Telefonoa: 943 63 93 53
- 3.- Helbide elektronikoa: info-oiassomuseo@irun.org

1. TESTUINGURU HISTORIKOA

1.1. Euskal Herriko lurraldeak erromatarrak heltzerakoan

Iturri idatziek diotenez (bereziki Estrabonen edota Plinio Zaharraren aipuak), erromatarrak heldu zirenean, gaur egungo Gipuzkoako lurretan honako tribu hauek bizi ziren, ekialdetik mendebaldera, hurrenez hurren: baskoiak, barduliarrak eta karistiarrak.

Erromatarrak Gipuzkoara iritsi baino lehenagoko garaietan, eta indusketa arkeologikoen arabera, lurralde hauetan bi errealitate kultural desberdin bizikide zirela ematen du: baskoiena, alde batetik, eta barduliarrena eta karistiarrarena, bestetik. Lehenak, harrespilak edo mairubaratzeak eraikitzen zituzten; megalito horiek zutik ipinitako harri luzez egindako zirkuluak ziren, non hildakoen gorpua, erre ondoren, kutxatila batean sartzen baitzuten. Harrespilen kultura, alegia, baskoiena, Pirinio inguruko lurralde menditsuetatik Leitzaran haraneraino luzatzen zen; hortik mendebalderantz ez da megalito horien arrastorik azaltzen. Aitzitik, karistiar eta barduliarren aztarnak altueran kokatutako herri gotortuetan aurkitu dira. Herri horiek harresiz inguratutako ezargune iraunkorrak ziren, eta leku estrategikoetan zeuden. Abeltzaintza ez ezik, nekazaritza ere ezagutzen zuten, eta baita burdinaren metalurgia ere (ikus besterik ez dago indusketetan azaldu diren gari-aleak, eskuko errotak edota burdinazko igitaiak).

Estrabonek tribu guztien ohiturei erreparatzerakoan, ez zuen berak egindako idatzietan ezberdintasunik antzeman haien artean, eta aztura komun hauek aipatu zituen: ezkurak jaten zituztela, ardoa edan beharrean garagardoa edaten zutela, janzki soilak zeramatzatela, artile ilunez egindako kapusaia eta larruzko oinetakoak eramaten zituztela, ospakizunetan taldeka jaten zutela... hitz batez, zibilizazio gabeak eta gerrazaleak zirela, eta gainera, bizimodu basatia zeramatela. Estrabonek bere burua zibilizatutzat hartzen zuen pertsona harro baten ikuspuntua adierazi zigun; edonola, ezin da ahaztu Gipuzkoako lurraldeetan bizi ziren tribuek, zeinek harreman jentilizioak baitzituzten, oso ekonomia atzeratua zutela, fruitu-bilketan eta abeltzaintzan soilik oinarritzen zena. Estrabonek idatzitakoaren arabera, badirudi nekazaritzak oraindik garrantzi txikia zeukala, ez baitago apenas jarduera horren aipamenik.

1.2. Erromatarren etorrera

Erromatarrak Iberiar penintsulan K.a. 218. urtean Anpuriasetik sartu ziren Gerra Punikoak zirela eta. Hurrengo hamarkadetan penintsulako lurraldeak konkistatzeari ekin zioten; hasieran, hego eta ekialdea konkistatzea erraza izan zitzaien, baina erdiko eta mendebaldeko lurretan Erromak erresistentzia-mugimenduei aurre egin behar izan zien. Euskal Herria erromatarren inperioan ez zen bat-batean sartu; mende bat baino gehiago iraun zuen prozesua izan zen. Erromatarrak Ebro ibaiaren harana bereganatzen hasi ziren K.a. II. mendearen hasieran, eta gaur egun Gipuzkoa izenaz ezagutzen dugun lurraldea okupatzen amaitu zuten K.a. I. mendearen bukaera aldera. Hona hemen prozesu luze horretako abagune historikorik aipagarrienak:

- *Gracurrisen* (Alfaro) sorrera: Senpronio Grakok K.a. 180. urtean *Hispania Ziteriorreko* gobernari izendatua izan ondoren, lurraldea baketzeari ekin zion; horretarako, baskoien lurraldearen muga hiri berri bat eraiki zuen, *Gracurris*, horrela deitua bere izena goraiatzeko.
- Gerra Sertoriarrak: K.a. 77. eta 72. urteen bitartean, *Hispania Ziteriorreko* gobernari zen Sertorio, Marioren jarraitzaile izanik, Erromaren aurka altxatu zen Ebro haraneko zenbait triburen laguntzarekin. Erromak Ponpeio Handia bidali zuen Sertorioren aurka egiteko.

Nolanahi ere, Sertorio ez zen erraz harrapatzen zen horietakoa, eta premia larrian zegoen halako batean, baskoien lurraldera erretiratu zen. Ponpeiok haren atzetik joz, *Ponpaelo* hiri berri bat fundatu zuen baskoien lurraldean, garrantzi estrategiko handikoa Pirinioetako pasabidea kontrolatzeko.

- Gerra Kantabriarrak: Erromatarrek kantabriar herriaren kontra egindako kanpainei deitzen zaie. Kantabriarrek nekazaritza pobrea zuten, bizimodua artzaintzan oinarritua zuten. Hori dela eta, kantabriarrek alboko tribuen aurkako lapurretako espedizioak egiten zituzten, beren bizimaila hobetzeko. Erromaren menpe zeuden tribu horiek (autrigoiak, besteak beste) haren laguntza eskatu zuten, kantabriarrek eragindako lapurretak eta erasoak buka zitezten. K.a. 26. urtean, Oktavio Augusto enperadorea bera *Hispaniara* abiatu zen azken bazter hori bereganatzeko. K.a. 19. urtean menperatzea lortu zuenez, *Pax romana* deritzan aldiari hasiera eman zitzaion.

2. OIASSO IZENENKO CIVITAS ERROMATARRA

2.1. Fundazioaren zer-nolakoak

Hainbat urtean uste izan da *Saltus Vasconum* zeritzan alde menditsuan ez zegoela apenas erromatar eraginik, erromatar hirigune eta aztarna gehienak *Ager Vasconum* delakoan azaldu izan baitira, nekazaritza-jarduerarako egokiagoak ziren lurretan eta galtzada nagusietatik gertu zeudenetan, hain zuzen ere. Alabaina, azken urteetako indusketek beste zerbaite erakutsi digute, alegia, erromatarren eragina Euskal Herriko edonora zabaldu zela, nahiz eta *Ager* aldean eragina nabarmenagoa izan.


Hona hemen erromatarrek izan zituzten arrazoiak Gipuzkoako ipar-ekialdean hirigune bat sortzeko:

- **Ustiatu-rik me-a-baliabideak esportatu ahal izatea:** Heldu zaizkigun aztarna arkeologikoen arabera, Aiako Harriaren inguruan zilar-dun galena asko ustiatu zen erromatarren garaian. Halatan, bi lehengai ateratzen zituzten bertatik: zilarra eta beruna. Ustiatze horrek eskulan asko eskatzen zuen, metala ateratzeko lur-mugimendu handiak egin behar baitziren.
- **Lehorreko komunikazio-bideak kontrolatzea:** Erromatarrek komunikabideen bidez (galtzadak), lotutako hiri-sarea sortu zuten, merkataritzan aritzeko eta lurraldea kontrolatzeko. Euskal Herria bi galtzada nagusien artean kokaturik zegoen: bata, Pirinioetako iparralderako galtzada, Narbone, Tolosa (Frantziakoa) eta Bordele (*Burdigala*) lotzen zituena; hegoaldean, berriz, Astorga (*Asturica Augusta*) eta Tarragona (*Tarraco*) elkartzen zituena; hor sortu ziren Alfaro (*Gracurris*) edota Calahorra (*Calagurris*) eta maila bereko hiriguneak. Bestalde, gauza jakina da Euskal Herriarentzat oso garrantzitsua zen beste galtzada bat ere bazela, Astorgatik (*Asturica Augusta*) Bordelera (*Burdigala*) zihoana. Galtzada hori bihurtu zen arteria nagusia, eta beraren ertzetan sortu ziren erromatar hirigunerik ezagunenak euskal lurretan, hala nola Iruña Oka (*Veleia*), Huarte Arakil (*Aracilum*), Iruñea (*Pompaelo*), Donazaharre (*Imus Pyrenaeus...*).



Oiasso izeneko *civitas* baskoien lurretan zegoen, itsasertzean, *Tarracotik* zetorren galtzadaren muturrean, Bidasoaren estuarioan kokatuta. Horrela dio Estrabonek K.a. I. mendearen bukaeran: “... (galtzada) *Tarrakon* hasi eta ozeano ertzeko azken baskoi herrietara iristen da... itsasbazterrean bertan dagoen *Oiasso* hiri inguruan... *Akitania* eta *Iberia* arteko muga-mugan amaitzen da...”. Ezbairik gabe, *Oiasso* barneko lurrak eta itsasoa komunikatzen zituen galtzadaren muturra ez ezik, pasabide naturala ere bazen, Pirinioetako mendikatea zeharkatzeko mendebaldeko igarobide naturala baitzen.

- **Itsas komunikazio-bideen (“Via maris”) kontrola lortzea:** *Oiasso* Bizkaiko golkoko portu garrantzitsua zen, meak garraiatzeko eta salerosketan aritzeko; izan ere, portua egiteko mesedegarria izan zen estuarioa, itsasontzien trafikorako oso ezaugarri onak zituelako. K.o. 70. urtetik 180. urtera bitartean *civitas* erromatar horrek loraldi nabarmena izan zuen, kabotaiari portuz portu ziharduen nabigazioari ezinbesteko portua bihurtu baitzitzaion. Hori dela eta, Bordeletik Castro Urdialesera (*Flaviobrigara*) joateko, *Oiasso* edo *Getaria* (*Menosca*) ainguratokiak derrigorrezko geldiuoneak ziren garai hartako itsasontzientzat. Horren guztiaren ondorioz, merkataritzak, arestian aipaturiko urte horietan, susperraldi ukaezina izan zuen *Oiasson*.



— **Armada soldaduz hornitzea:** Herri indigenak Erromako armadako tropekin aritzea lagungarria suertatu zen ohiturak, hizkuntza eta abar zabaltzeko. Halaber, lizentziatutakoan, askok eta askok erromatar herritartasuna lortzen zuten. Hori kontuan izanda, zenbait adituk uste dute Britainian eta Rhin aldean ibilitako barduliar eta baskoi soldadu askok, jaioterrira itzulitakoan, hiriko bizimodua garatzen lagundu zutela. (adibide gisa gogora ekar daiteke *Britanian* —*Limes Hadriani* deritzan muga harresituan— koartelertuta egon zela *I Vardollorum* kohortea, hasiera batean barduliarrek osatua).

2.2.-*Oiasso* izeneko *civitas*: hiri erromatar baten antolamendua

Oiasso erromatarrek Bidasoaren bokalean sortu zuten hirigune bat izan zen, portu bat izan zuena salerosketak egiteko eta mea ateratzeko. Egin diren ikerketen arabera, honako hauek dira aurkitu diren herexak: termen eta etxe bakan batzuen hondarrak, gaur egungo Irungo hirigunean; portua, Santiago eta Tadeo Murgia kaleetan; Ama Xantalenen ermitan, erromatar hilerria; Higer lurmuturrean aurkitutako pieza bakan batzuk. Datu horietan oinarriturik, ahaleginak egin ditzagun arestian aipaturiko zantzu horiei guztiei taxuzko interpretazioa ematen.

A) *Oiasso*ko hirigunea

Oiasso hiriaren asentamendua hamabost-hogei hektarea ingurukoa izan bide zen (600 metro luzeran, 300 bat zabaleran), eta gutxi gorabehera erromatar hiriek izaten zuten egitura bera zuela dirudi. Hartara, oinplanoaren diseinua ortogonala zen, kanpamendu militarretan erabilitako trazaduraren antzekoa, bi kale nagusirekin, bata *cardum* (N-S norabidean) eta bestea *decumanum* (E-W norabidean) izenekoak. Bi kale horiek kale nagusiak ziren, haietan barrena pasatzen baitziren komunikazio-bideak; gurdiak edota zamariak bertatik pasatu behar izaten zutenenez, harriz zolatuak egongo ziren, seguru asko. Bi kale nagusi horien arteko bidegurutzetan, *foroa* zegoen, eta hor biltzen ziren eraikin nagusiak. Bestalde, lurra orube erregularretan zatitzen zutenenez, etxeek (multzo txikitik antolatuta) bilbadura erregularra osatzen zuten.



Laburbilduz, esan genezake *Oiassok*, erromatar hiri bat zenez, antolaketa erregularra zuela, kalez, etxadiz, eraikinez, eta espazio publikoz osatua.

Erromatar Inperioaren azken aldian, berriz, krisia edonora zabaldu zenean, aldaketa batzuk gertatu ziren *Oiasson*: harresiak gotortu egin behar izan zituzten, erasoei aurre egiteko; portuko kaietan aktibitate-eza antzeman zen; termetako bainu-lekua bizileku bihurtu zen; hilerriko hilobi monumentuak bertan behera utzi ziren. Hitz batez, hiri erromatarren gainbehera hasi zen, desurbanizazio-fasea piztu, eta hiri asko desagertu edo ahuldu egin ziren.

Arestian esan bezala, gogora dezagun termen eta etxeen hondarrak aurkitu direla egindako indusketetan. Termak bainu-eraikin publikoak ziren, non hiritarrek, ur beroko (*caldarium*), epeleko (*tepidarium*) nahiz hotzeko bainuak (*frigidarium*) hartzeaz gain, atsedean hartzeko eta kirol-ariketak egiteko aukera izaten baitzuten.

Aldiz, etxeei erreparatzen badiegu, ohartuko gara ez zegoela etxebizitza eredu bakarra. Alde batetik, aberatsen etxea zegoen, *domus* izenekoa, familia bakarrekoa. Etxe dotore hori *atrium* izeneko espazio baten inguruan egituratzen zen. Sabaian zulo laukizuzen bat zuen (*compluvium*) airea eta argia sar zedin, eta lurrian, haren parean, euri-ura biltzeko putzua (*impluvium*). *Atrium*aren inguruan logelak (*cubicula*), jabearen gela (*tablinum*) eta, atzealdean, *peristiloa*. Herri xehea, berriz, solairutako etxeetan bizi zen (*insulae*); etxe horiek, kale-mailan, dendak izaten zituzten, eta goian, etxebizitzak, non ez zuten izaten ez komunik, ez gainerako zerbitzurik; etxebizitza horiek ilunak eta estuak izaten ziren. Etxe horiek guztiak eraikitzeke gehien erabiltzen zituzten materialak adreilua, teila, hormigoia eta morteroa ziren. Harria, berriz, eraikin adierazgarri eta ospetsuak egiteko erabiltzen zuten. Bestalde, bi eraikitze-sistema nahasten dituzte: alde batetik, ateburuduna edo dintelduna, eta bestetik, sistema gangatua, erdi-puntuko arkuaz eta kanoi-gangaz baliatzen zena.

Halaber, *Oiassoko* biztanleen ohiturak ere beste edozein erromatar hiritakoak bezalakoak izan ziren, seguru asko; hala, ehun urte pasa eta gero, bertako herritarrek asimilatuta zeukaten dominatzaileen bizimodu berria, honako bereizgarri hauetan ikus daitekeenez: dieta, janzkera, hileta-errituak, erlijio-ospakizunak, latinez idaztea edota jarduera ekonomikoak —merkataritza, eskulangintza, meatzaritza eta arrantza—. Horiek guztiek ondo baino hobeto erakusten digute *Oiassoko* biztanleen erromanizazio-maila erabatekoa izan zela.

B) Erromatarren garaiko *Oiassoko* portua



Bidasoa ibaiaren estuarioaz baliatuz, erromatarrek portu bat eraiki zuten zegozkion kaiekin *Oiassoko* hiriguneko behealdean, gaur egungo Irungo Santiago eta Tadeo Murgia kaleetan, hain zuzen ere. Azken kale horretan, 1996. eta 1998. urteen bitartean egin ziren indusketei esker, honako aztarna hauek aurkitu zituzten: atrakatzeko kai bat, lau harmailaz osatua; kai

horrek harrizko zokalo bat zuen, eta egurrezko enborrez eginiko egitura bat. Kaian bertan biltegiak ere baziren, bertaratzen ziren itsasontziek salgaiak gorde zituzten. Gainera, gogoratu behar da Gipuzkoako zenbait portutan aurkitu izan diren herexek nahiz itsaspeko aurkikuntza arkeologiko berriek erakutsi dutela euskal kostaldeko erromanizazioan *via marisek* berebiziko garrantzia izan zuela K.o. I. mendea ezker. Edonola eta ezbairik gabe, *Oiassoko* portuak merkataritza-jarduera garrantzitsu bat izan zuen, bai bide luzekoan, bai eskualdekoan.



Bide luzeko merkataritza esan beharra dago *Oiassoko* portura salgai asko iristen zirela, bai *via maris* bidetik bai lehorretik, bera baitzen barneko lurraldeetako —Ebroren haranekoa gehienbat— merkataritzaren helmuga. Erromatarren produktu tipikoak kontsumitzen zirela ikusten da. Horrela izanda, *Oiassoko* itsas portuan hemen aipatzen diren salgai hauen zantzuak aurki daitezke: ardoa, Bordele aldeko eskualdetik ekarritakoa, itsasbidetik, noski; olioia, Ebro aldeko lurretatik; garia, Aturri, Garona edota Ebro ibaien ingurutik. Gaineratu behar da batzuetan urrutia ere heltzen zirela jakiak, hala nola Betikatik, olioia, edota Narbonako golkotik, ardoa.

Bereziki bide luzeko merkataritza horretan ezin dugu ahaztuta utzi *sigillata* zeramikak izan zuen garrantzia; jakinaenez, zeramika ospetsu hori egiteko —mahaiko ontziteria, esate baterako— lur gorrixkaz baliatzen ziren. Hartara, buztinak berezia izan behar zuela eta, *sigillataz* egindako ontziak beste lurralde batzuetatik ekarri behar izaten zituzten. Hasieran, Arezzon (Italia) egiten zen, baina erromatarren zibilizazioa eta bizimoduak zabaldu ahala, lantegi berriak sortu ziren. *Oiasson* aurkitu diren arrastoen artean, badira batzuk Galiatik ekarritakoa —Montanskoak, hain zuzen—; beste batzuek, berriz, jatorria Errioxako Trizion dute. Bestalde, badirudi *Oiasson* bertan egiten ziren beirazko ontziak ez ezik, kanpotik ere inportatzen zituztela (pitxerrak, botilak, katiluak...).

Erreparatzen badiogu orain **eskualdeko merkataritzari**, berehala ohartuko gara arrainkontserbak —arrain-erriak hartituz lortzen zen *garum* izenekoaren estimazioa gehien zuzena—, egurra, larrua, zilarra, beruna eta eskualdeko bertako produktuak —fruituak eta barazkiak— zirela gehien kontsumitzen zituztenak. Horretaz gainera, eguneroko dietan, txerriak zen gehien kontsumitzen zen okela, ahantzi gabe behikia eta ardikia ere bazirela.

C) Ama Xantalenen ermitako erromatar hilerria

Gauza jakina da erromatar hilerriak hiriaren mugetatik kanpo egoten zirela, irteera nagusietako baten ondoan. Izan ere, Ama Xantalengo nekropolia uste da *Ponpaelora* zihon galtzadaren ondoan zegoela, *Oiasso civitasen* kanpoaldean. Edonola ere, Ama Xantalengo nekropoli horretan hilen errautsak dituzten 106 ontzi aurkitu dira; horietan hildakoen objektuak ere gordeta azaldu dira, hala nola ile-orratzak, fibulak, armak, etab. Errauts-ontziez gainera, bi harrizko

eraikin ere badira hor. Bata erabat karratua da, eta haren barruan aurkitu da beirazko ontzirik ederrena; aurkikuntza horren arabera, adituek uste dute *cella memoriae* bat izan zitekeela, alegia, maila sozial jasoko kide baten hilobia.



Beste eraikina laukizuzena da, eta *in antis* izeneko tenplu klasiko baten antza du. Badirudi IV. mende arte erabilia izan zela. Eraikinaren aztarnen artean teila asko aurkitu izanak pentsatze-
ra eraman du bi isurialdetara eginiko teilazko teilatu batez estaliko zela.

Ezin ditugu ahanzi Higer lurmuturretik gertu (Asturiaga) hondar artean aurkitutako **lau jainko-jainkosa erromatarren irudiak** ere, horiek ematen baitigute *Oiasson* bizi ziren biztanleen sinesmenen berri. Adituen ustez, lau irudi horiek etxean gurtzen ziren jainkoekin egon zitezkeen erlasionatuak. Hona hemen jainko-jainkosen irudikapenaren xehetasunak: Minerva kaskoa eta bular-babesa jantzita duela azaltzen da; Marte, bizarra, kaskoa eta bular-babesarekin; Isis, ilargia, eta Helios, eguzkia, bakoitza zegokion ikurrarekin irudikatuak daude, alegia, Isis ilargi-ikurrarekin eta Helios tximista-koroarekin. Horrek guztiak nabarmen uzten du erromatarren ohiturak eta sinesmenak *Oiasson* oso errotuta zeudela.



Azkenik, atal hau bukatzeko, aipatu beharra dago Oiartzunen aurkitu zuten **Andrearriagako hilarria**. Harri horretan, bi pertsona azaltzen dira modu traketsan grabatuta: bata, zaldi gainean, eta bestea, haren atzean eta aurrez aurre ikusita. Horien azpian letra hauek: “VALBELTESO / NIS” . Letra horiek epigrafilariei zeregin handia eman dieten arren,

azkenean, Inazio Barandiaran arkeologoak era honetan interpretatu ditu: Val(erius) Beltesonis, hau da, Valerius Belteson sendikoa; beraz, Valerius izen erromatar baten ondoan, familia-lotura adierazten duen Belteson izena, euskaldun erroa duena. Hori guztia kontuan izanda, Inazio Barandiaran arkeologoak aztarna hau Augustoren garaiko oroitarri-hilarriztat hartu du, hilari horretan, baskoien erromanizazioaren zantzuak ikusten baitira.



D) Arditurriko meategia

Aiako Harriko inguru guztian, hasi Beratik eta Iruneraino, meatze-lan asko egin dituzte historian zehar, lurralde horretan hainbat mineral oso ugariak izan baitira: burdina, beruna, zilarra... Ezbairik gabe, horren arrazoia mendi horiek duten izaera geologikoan bilatu behar dugu. Izan ere, Paleozoiko garaian hasi zen eta oraindik bizirik dirauen prozesu geldo baten ondorio da Aiako Harria. Orain dela 300 eta 250 milioi urte bitartean gertatu ziren prozesu geologiko batzuen emaitza da Aiako Harriko batolitoa. Duela 300 milioi urte, Paleozoiko garaian, lur barruan jarduera ignea handia izan zen. Lur azpian mantendu zen magma-masa ikaragarria granito-haitz erraldoi bihurtuz joan zen, hozte-prozesu geldo baten ondorioz; gerora, hainbat mugimendu tektonikok lurrazalera atera zuten. Leku sakon batean eta denbora luzez kristalizatu zelako, batolitoaren aureola metamorfikoak meatze-ustiapenerako hainbat mineralen zain handiak ditu: goethita eta siderita, esate baterako, burdina ustiatzeko, edota galena, beruna eta zilarra ateratzeko.

Mineral horien guztien ustiapenaren jatorriari dagokionez, aitortu beharra dago ez dagoela ziurtasun zehatzik ustiapenaren hastapenaz. Ziur aski, Burdin Aroko gizakiak izan ziren mineral-zainak ustiatzen lehenak. Adituen desadostasunak desadostasun, argi dagoena da erromatarrek Aiako Harriko meatzeetan zilardun galena ustiatzen zutela, zilarra lortzeko; izan ere, han aurkitutako galeriek eta lan-tresnek ez dute zalantzarik uzten erromatarren ustiapenaz. Orain ikusiko dugun bezala, erromatarren meatze-ustiapenak ezaugarri jakin batzuk zeuzkan:

- Zuloak estuak dira (metro eta laurogei zentimetroko altuera, metro inguruko zabalera)
- Hormetan pikatxoiarekin egindako arrastoak antzematen dira, erromatarrek pikatxoiarekin leuntzen baitzituzten meategiaren hormak.
- Sabaiek kanoi-erdiko gangen forma dute.



- Hormetan koska txiki batzuk daude tarteka: argi-kriseiluak jartzeko erabiltzen zituzten koska horiek. Horrela argitzen zuten bidea eta laneko gunea.
- Zoruak ondo landuak daude, eta, aldapa dagoenean, mailadunak dira, errazago ibiltzeko.
- Torrefakzio-metodoaren erabilera: arroka berotuta errazago xehatzen denez, egurrekin sua egiten zuten arrokaen kontra, eta berotzen zenean, arroka puskatu egiten zen. Ondoren, pikatxoia erabiltzen zuten hormak leuntzeko. Lan fina egiten zuten. Zenbait tokitan, pasabidea egiteko erabili zituzten su haien hondarrak aurkitu dituzte, mineral-zainik aurkitu ez eta saiakera bertan behera uztean gelditutako arrastoak. Baina sua leku itxi hartan erabiltzeak haizebideak eskatzen zituen.
- Ura drainatzeko *cunicula* izeneko teknika erabiltzen zuten, urak hartutako lurra lehertzeko.

Arestian esan bezala, erromatarrek galena zilarduna ateratzen zuten Arditurriko meatzetan. Galena beruna duen minerala izanda ere, askotan zilarrarekin nahastuta azaltzen zen. Hortaz, beruna eta zilarra bereizi egin behar izaten ziren. Lehenengo, mineral gehien zuten haitz pusken birrinketa egiten zuten; puska haiek urtuta, oraindik ere beruna eta zilarra nahasian zituen produktu bat ateratzen zuten. Bigarren galdaketan, kupelaketa deitzen zen aldian, zilarra berunetik erauzten zuten, beruna errazago oxidatzen baita zilarra baino. Meatzeetako langileen izaeraz, pertsona libreak, morroiak ala esklaboak ote ziren, ez dakigu ezer.

Ateratako zilarra Erromara eramateko, itsasoratu egin behar zen, eta Arditurritik mineral hori Oiassoko portura eramaten zuten. Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu Erromatar Inperioan zilarra metal preziatua zela, oso erabilia txanpongintzarako, gurtza- irudiak egiteko edota jantzeko apaingarriak egiteko.

Bukatzeko, esan behar da erromatarrek egindako pasabideetako asko hondatu egin zirela, gehienbat ondoren meak ustiatzeko meazuloak zabaldu egin behar izan zituztelako eta, bide batez, antzinako aztarnak ezabatu egin zituztelako. Hala, erromatarren ustiaketaren arrasto gutxik iraun dute gaur arte.

2.3. KONKLUSIOAK

K. a. azken hamarkadan, erromatarrak Bidasoa ibaiaren inguruan kokatu ziren, baskoien lurraldean, hain zuzen, eta hiri bat sortu zuten, *Oiasso* izeneko. Lurraldea kontrolatu zuten, galtzadak egin, baliabide naturalak ustiatu (meatzaritza batik bat) eta bertakoak eraman, gudaroste erromatarra indartzeko. Ehun urte pasata, *Oiasso civitaseko* hiritarrek berea egina zuten erromatarren bizimodu berria.

*Erromanikoa Nafarroan:
Leireko monasterioa*

3

IRADOKIZUN PRAKTIKOAK LEIREKO MONASTERIOA BISITATZEKO:

Herria: Esa

Zonaldea: Erdialdea

Helbide elektronikoa: www.monasteriodeleire.com

Telefonoak: 948 88 41 50 – 948 88 40 11

Faxa: 948 88 42 30

Bisitatzeko ordutegia:

-Astelehenetik ostiralera (10:15etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara)

-Larunbatetan, igandetan eta jaiegunetan (10:15etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara)

-Azaroaren 3a ezkerrean, lanegunetan 18:00etan itxiko da, eta asteburuetan eta jaiegunetan, 18:30ean.

Bisitaren prezioa: 2,10 €

1. TESTUINGURU HISTORIKOA

1.1. Erromanikoa, arte erlijiosoa eta aristokratikoa

Erromanikoa XI. eta XII. mendeetan Mendebaldeko Europa kristauan zabaldu zen kultura-gertakaria izan zen, eragin handikoa, munduaz gizabanakoek lehenago zuten ikuspuntua biziki aldatu zuena. Izan ere, 1000. urtea igaro zenean, eta munduaren jarraipena agerikoa egin zitzairenean —behin garaikideek K.o. lehen milurtekoa betetzeari zioten izu-ikara gaudituta—, baikortasun- eta oparotasun-garai berri bat heldu zen Europa kristaura.

Arte eta kultura erromanikoak izaera erlijiosoa eta aristokratikoa izan zuen. Jakina da garai hartako gizartea feudala zela, eta ekonomia nagusiki nekazaritzan oinarrituta zegoela. Horretaz gainera, gizarte feudalaren beste ezaugarri nagusietako bat estamentutan banatutako antolaketak izan zen; gizarte horretan, gizabanakoak estamentu edo estatu bateko partaide ziren jaiotzaren arabera. Gizarte-antolamendu horri mugikortasunik eza zerion; alegia, inor halako estamentu batean jaiotzen bazen, ezin zen estamentuz aldatu. Hori horrela izanik, estamentu batekoa ala bestekoa izatea ez zen norberaren ekimenaren edo gaitasunaren ondorio, estamentu jakin bateko kidea izatearen ondorio baizik. Hartara, noble jaio ez zen pertsona bat, aberastasunak aberastasun, beti hirugarren estamentukoa izango zen. Gizartearen antolamendu zurrun eta aldaezin horrek balio higiezinak, eztabaidaezinak, estereotipatuak eta konbentzioz betetakoak eragin zituen. Orain arte aipatutakoaren ondorioz, forma zurrunak, abstraktuak, geometrikoak, betiereko balioak eta formalismo estereotipatuak adierazi zituen arte erromanikoak, mundu aldaezin eta pribilegioz betetako hura islatzeko.

Orobat, erromanikoak izan zuen izaera erlijiosoari erreparatzen badiogu, berehala ohartuko gara Elizak Erdi Aroan berebiziko indarra hartu zuela. Gogora dezagun, apaizeria, jaiotzan oinarritzen ez zen estamentu bakarra, Jaungoikoaren eta gizakien arteko bitartekaritza arduratzen zela, hainbat eginkizun bere gain hartuz: kultura, zergak kobratzea, ondarearen administrazioa, hezkuntza, gaixoak eta behartsuak zaintzea, etab. Hori dela eta, ulergarri egiten da Elizak zuen berealdiko eragina arlo espiritualetik harago joatea, ezin baita ahaztu kontzientzien kontrola ez ezik, metatutako ondarea ere administratzen zuela. Oro har, monasterioak latifundio handien jabe bilakatu ziren eta ez zeukaten kanpoko ezereen beharrik. Horregatik, haien esparruetan, baratzak, ganadua, lantegiak, ostatua, erizaindegia, liburutegiak eta abar zeuden monjeen buruaskitasuna lortzearren. Bestalde, monakotzaren jatorrira joz gero, ezin da aipatu gabe utzi Mendebaldeko Europan beneditarrek fundatu zutela lehen monasterioa VI. mendean Montecassinon (Italia). Beneditar monasterioetako bizitza zuzentzeko, San Benito fundatzaileak honako ikurriz hau jarri zuen indarrean: “*Ora eta labora*”. Mende gutxiren buruan, X. mendearen hasieran, hain zuzen, ordena beneditarraren zorrotasuna berreskuratzeko eginahala egin zen; horrela sortu zen **Clunyko monasterioa**, zein Europako bazter orotara zabaldu baitzen, otoitzean eta lan intelektualean oinarrituta. Beneditarren ordena erreformatu horri zor zaio Erromanikoa Europa guztira zabaldu izana. XII. mendean berriz ere, beste monje beneditar talde batek erreforma berri bati ekin zion eta, horrela, **Cisterko ordena** sortu zen. Erreforma horren sortzaile Clairvaux-eko San Bernardo izan zen, zeinek aurreko handikeriak baztertuz eta hasierako pobrezia itzuliz San Benitoren arauen interpretazio hertsia bat egin baitzuen.

1.2. Erromanikoa Nafarroako erresuman hedatzen lagundu zuten faktoreak

Esan bezala, arte erromanikoa Kristautasun osoaren nazioarteko estiloa bihurtu zen, eta XI. eta XII. mendeetan zabaldu zen. Izan ere, gogoratu beharra dago arte berri baten jaiotza gertatu zela, eta beraz, oinarrizko ezaugarri komunak zituela; hala ere, kontuan hartu behar da tokian tokiko berezitasunek iraun zutela zenbait ingurutan; esate baterako, Iberiar penintsularako, ezinbestekoa da kontuan hartzea bisigodoen, asturiarren eta, batik bat, mozarabiarren tradizio artistikoak. Arte-estilo berri hau, hizkuntza erromantze edo erromanikoekin batera jaio zelako, arte erromaniko izena hartu zuen.

Nafarroako erresumako lurretan arte-estilo berri hau zabaltzearen jatorrian, izaera oso desberdineko hainbat eragile aurki daitezke:

- **Donejakue Bidea:** Bide frantsesa ere deitua, lehen mailako eragiletzat har daiteke arte eta kultura erromanikoa zabaltzeko. Kontuan hartu behar da Iberiar penintsulako erresuma kristauek gero eta harreman handigoa izan zutela gainerako Europa kristauarekin, handik etorri baitziren erromatar erritua, beneditarren monje-arauak, Cluny nahiz Cisterko ordenek bultzatutako berrikuntzak, etab. Horretaz gainera, Europaren eta Iberiar penintsulako erresumen arteko komunikabide nagusia Santiagora (Konpostelakoa) zihoan erromes-bidea izan zen. Hor, tradizioak zioenez, Santiago apostoluaren hezurak aurkitu ziren; horren ondorioz, XII. mendean kristauen erromes-leku nagusietako bat bihurtu zen, Erroma eta Jerusalemekin batera. Izan ere, oparotasun ekonomiko handia ekarri zuten merkataritza eta artisautza suspertzeko ez ezik, Donejakue Bidea Europako kultura eta pentsamendua zabaltzeko ere oso garrantzitsua izan zen.



- **Clunykko ordena:** Arestian esan bezala, Clunykko ordena beneditarren zorroztasuna berreskuratzen saiatu zen, eta monje horiek Europako bazter guztietara zabaldu ziren, monasterio berriak eraikiz. Gogora dezagun Nafarroako Antso III.ak nabarmenki lagundu zuela Nafarroako monasterioak eraikitzen eta Clunykko ordena zabaltzen; izan ere, Clunytik etorrarazi zituen zenbait monje, monasterioak eraikitzeko eta populatzeko. Halatan, urte gutxiren buruan, Leireko monasterioa erreinuko garrantzitsuena bihurtu zen, behin eta berriro nafar erregeek dohaintzak ematearen poderioz.

- **Nafarroako monarkiaren babeseta eta laguntza:** Nafar erregeek hirigune berrien garapena bultzatu zuten, bai eta populatzaile berriak erakarri ere, foruetan pribilegioak eta askatasunak emanda. Heldu ziren hainbat eta hainbat merkatari eta artisau frantsesak ziren jatorriz, eta horregatik frankoak deitu izan zitzaizkien. Hiribildu berri horietan altxatu ziren hainbat eraikinek, hala nola elizek, ospitaleek, ostatuek, jauregiek, etabarrek taxu erromanikoa dute.
- **Lonbardiako harginen lana:** Italiako iparralde horretako hargin taldeek Europa guztira zabaldu zituzten beren eraikuntza-teknikak. Hala, ezagunak dira estilo lonbardiarrak horri zegozkion ezaugarri berezkoak: hormak eraikitzeak, harlanduxka erabiltzen zuten, eta absidetako kanpoaldeetan, banda bertikalak eta arku itsuak jartzen zituzten —banda lonbardiarrak—.

2. LEIREKO SAN SALBATOREREN MONASTERIOA

Leireko monasterioa izen bereko mendizerraren hegoaldeko isurialdean dago, Nafarroako ipar-ekialdean, Esako urtegiari begira. Aztergai dugun eraikin hori eliza prerromaniko zahar baten gainean eraiki zuten XI. mendetik XIV.era bitartean. Hartara, Nafarroako erromanikoaren hasierako eraikin nagusia izan zen, Nafarroako erresumako gune erlijioso eta politikoko garrantzitsuenetako bat zela eta. Monasterio zahararen berritze-lanak Antso III.aren garaian hasi eta haren biloba Antso IV.a Peñalengoaren erregealdian amaitu ziren (1057). Edonola ere, XI. mendeko nafar erregeek emandako babesari eta dohaintzei esker, goraldi nabarmena bizi izan zuten. Halatan, Iruñeko gotzaina izatera heldu zen Leireko Antxo abadearen garaian, kriptak eta eliza erromanikoaren burualdea kotsakatu zituzten (1057). Mendean zehar funtzio bat baino gehiago bete ditu: errege-gortea, apezpiku-egoitza eta Nafarroako errege-erreginen panteoia. XIX. mendean, Mendizabalen Desamortizazioarekin, bazterturik gelditu zen. 1954. urtean, berriz, Silosko Santo Domingoko beneditarrak iritsi eta Leireko monasterioa berriz ere erabiltzen hasi zen.


Eguneko eraikin multzoa zenbait garaitako hainbat atalez osatuta dago: alde batetik, kriptak; bestetik, klunitar monjeek eginiko eliza erromanikoa. Aditu askoren ustez, lanak kriptatik hasi ziren, eta horren berehalako segidan jarraitu zuten elizaren burualdetik; nonbait, biak batera sortuak izan ziren, eta aldaketarik gabe eginak. Nolanahi ere, begi bistakoa da alde bietan duten antz estilistikoa (ikus abside hirukoitza kanpotik). Azkenik, zistertar monjeek XIV. mendea ezkerreko eraikitako alde gotikoa dago.

2.1. Kriptak (XI. mendea)

Oinplano karratua du; hasieran hiru nabe eta hiru abside erdi-zirkular zituen; geroago, berriz, erdiko nabea zutabe- eta arku-ilara batez banatu zuten, eta abside zentrala ere erdibitu. Badirudi horren zergatia arrazoi honetan datzala: gaineko elizaren burualdea eror ez zedin eta kriptak zama guztia jasan ahal izan zezan, beste zutabe-ilara bat jartzea beharrezkotzat jo zutela.

Irozkaia aztertuz gero, erromanikoan ohikoak diren pilare konposatuez gainera, oso deigarriak dira fuste mehe eta motzeko zutabeak, harroinik gabeak eta kapitela trapezoidalak; izan ere, proportzio-gabetasun nabarmena antzematen da horren garaiera txikiko fusteen eta kapitela hain erraldoi eta sendoen artean (uste izan da erromatarren garaiko harroinak zirela); zalantzarik gabe, zutabe horiek klasizismoaren proportzio-zentzuaren beste muturrean daude. Kapitela, zeinek erromanikoaren hasierako dekorazio sotila baitaude, hainbat motatan

bereiz daitezke, dekorazioaren arabera: batzuek, forma geometrikoak eta apaindura linealak daramatzate —ildaskak—; beste batzuek, berriz, landare-motiboak itxuratzen dituzten estilizazio geometrikoak dauzkate, kiribilduraz eta fruituak adierazten dituzten bolaz apainduta.



Lau nabeak altuera berekoak dira, eta erdi-puntuko arku goratuak eta harrizko kanoi-ganga jarraituak ageri dira egitura guztiari eusten. Azkenik aipatu, kriptako atea sinplea eta erdi-puntukoa dela, ia dekoraziorik gabea.

2.2. Eliza erromaniko klunitarra (XI. mendea)

Eliza hau Iberiar penintsulako eraikin erromaniko handietan lehenengoetarikoa da, Kataluniako lonbardiak estiloko eliza batzuk kenduta. Haren handitasuna, kapitelen berezitasuna eta antzinakotasuna dela eta, Leireko alde erromanikoa parekorik gabea da, bakarra. Ezin da ahantzi, Jakako katedrala, Leongo San Isidoro, Fromistako San Martin eta Santiagoko katedrala baino lehenagokoa dela.



Arestian aipatu denez, eliza erromanikoaren burualdea hain sendoa den kriptaren gainean altxatzen da. Eliza erromaniko horren oinplanoa karratua da —beraz, erromanikoan oso ohiko ez den zentrala—, alde luzea eta zabala berdinak baititu, eta hiru nabe dauzka, hainbat ezau-

garrirekin: alde batetik, alboko nabeak estuagok dira erdikoa baino, eta bestetik, eskuineko nabea zabalagoa da ezker aldekoa baino.

Era berean aipatu beharra dago, labe-gangez estalitako hiru abside erdi-zirkular dauzkala, kriptak bezalaxe; abside bakoitzak erdi-puntuko leihoa du, eta gangetako arkuetan arte mozarabiarraren eragina antzematen da, ferra-arkuen antza baitute.

Trinkotasuna da nagusi hutsuneen gainetik, harrizko hormek eutsi behar baitiete nabeak estaltzen dituzten harrizko kanoi-ganga astunei. Jakinaenez, eliza erromanikoetan leihoak estuak dira eta turuta itxurakoak —irekigunea zabalagoa eta garaiagoa da barnean, eta estutu egiten da kanporatu ahala—. Horren guztiaren ondorioz, barrunbeak argitasun gutxikoak dira, giro lasaia eta izpirituala ernarazteko propioak, nolabait. Gangak zenbait fajoi-arkuz indartuta daude, eta gangaren pisuari pilare konposatuak eusten diote. Pilare konposatuak, jakinaenez, zutabeak erantsita dituztenak dira.

Zutabeen kapitelen erreparaturik gero, ohartuko gara kriptaren kapitelen antza handia dutela. Halere, elizaren kapituletan ezagunak ditugun ildaskez, kiribildurez, erronboez eta estilizio geometrikoez gainera, giza aurpegiak ere azaltzen dira; aurpegi horiek oso hazpegi traketsak dituzte, eta ferra-arku batzuen barruan azaltzen dira, artean eragina zuen arte mozarabiarraren isla, ezberrik gabe.



Ezin dugu bukatu eliza erromanikoaren barrunbeko deskribapena **hegoaldeko ataldea** aipatu gabe. Ate-zangoen kapitelak estilizatutako landare-motiboz apainduta daude, erromesbideko beste hainbat elizatan bezala. Halere, deigarria portada horretan tinpanoko krismoi trinitaria litzateke. Krismoia Kristoren hitzaren grekozko grafiaren lehen bi letrak (X eta R) gainezarriz osatutako monograma da. Horri honako hiru hizki hauek gehitu zizkieten: alfa eta omega (Jaungoikoa, gauza guztien hasiera eta bukaera) eta S (Espiritu Santua). Antzaenez, Erdi Aroan ahaztuta zuten R, Kristoren anagramaren hizkia zela, eta Aitarekin P zelakoan, iruditutako Aita eta Semea irudikatutako egonik, Espiritu Santua falta zela. Hori dela eta, krismoiari S bat gehitu zioten: krismoi trinitaria.

2.3. *Speziosa atea* (XII. mendean eratuta)

Lehenengo begi-kolpean, Leireko mendebaldeko atalde edo portada horretan antolaketa eza antzematen da. Izan ere, tinpanoaren gainean eta ertzetan eskultura multzoak sakabanatuta daude. Horrela izanik, ematen du zoriz jarrita daudela, tarte hutsak betetzeko jarrita. Adituen desadostasunak desadostasun, ataldea lehenagotik egindako piezez osatuta dago, antza, eta,

badirudi hainbat maisuk hartu zutela parte. Azterketa formalak ere ondorio bera dakarkigu, alegia, multzo osoaren eraketa astiro-astiro egin zela eta eskultura piezak hiru une jakinekoak direla.

Ataldearen alde banatan, hiruna ate-zango daude, (sei daudela ematen du ate-zango tarteak biribilduak daudelako). Horien kapitelen motibo eskultorikoen artean, aipagarrienak honako hauek dira: lauhankako batzuk, kuzkurtuta dagoen irudi bat, lepoak gurutzatuta dauzkaten txoriak, landare estilizatuak, etab. Ataldearen erdian, ate-gurutzea (mainela ere deitua) aurkitzen da, tinpanoko pisuari eusten diona. Horrek kapitela eta harroina oso apainduta dauzka.



Tinpanoan aurkitzen dira piezarik zaharrenak. Jatorriz, badirudi zazpi irudi zeudela, gaurkoa baino txikiagoa zen tinpano bati egokituta. Itxura guztien arabera, 1098. urtean kontsokratu zuten eliza erromanikoaren ataldeko tinpanoari zegozkion. Hori dela eta, ohartuko gara baita tinpanoko irudi horiek kolore gorrixkagoa dutela gainerako ataldeko irudiak baino. Horren guztiaren ondorioz, egungo ataldearen tinpanoa handiagoa zenez aurrekoa baino, erroseta zerrenda bat ezarri zuten tartea betetzeko.

Irudietako bat desagertuta dago, eta beste biri burua falta zaie. Gainerako laurak hauek dira: Salbatzailea erdian; eskuinetara, Birjina Maria eta Done Petri giltzekin; ezkerretara, berriz, Done Joan Ebanjelaria, apostolurik gazteena. Bestalde, tinpanoko ateburuaren muturretan, lehoi baten eta zezen baten buruak daude irudikatuta. Konposizioaren aldetik, Salbatzailearen irudia bat dator ardatz zentralarekin; alboetan, eta alde banatan, hiruna santu zeuden jatorrian. Nabarmena da egileak ordena eta hierarkia azpimarratu nahi izan zuela, zazpi irudiak simetria ordenatuz. Konposizio erromanikoek simetria-printzipioari jarraitzen zioten, eta irudi hieratikoen bitartez, aldaezintasuna, betierekotasuna eta denbora-eza adieraztera jotzen zuten.



Azterketa formalari helduz gero, begi bistakoa da irudi erromaniko horiek molde eta konbentzio jakin batzuen arabera taxututa daudela. Irudiak ez dira batere naturalistak. Egileak ez dio errealitatearen antza izateari garrantzirik eman nahi izan. Irudien hazpegiak konbentzio eta estereotipoen bitartez aurkezten dira, eta alde espiritualak azpimarratzen da beti, errealitate zehatzaren aurretik jarritz. Halere, badira hainbat xehetasun irudi horietan errealismoz irudikatzen ardurak adierazten dutenak. Horien artean hauek aipa daitezke: Kristok duen bizar joria, kanpai formako janzkerak, uhin formako tolesturak —Esteban maisuak egiten zituen tankerakoak, hain zuzen—, Ama Birjinaren harri bitxiz apaindutako jantziaren aberastasuna...

Tinpanoaren gainean lau arkibolta daude. Hor, era guztietako animaliak azaltzen dira irudikatuta. Ezbairik gabe, izaera sinbolikoa dute. Jakinaenez, Erdi Aroan fedearen printzipioak helarazten zizkieten fededunei sinboloen bidez, gehienek ez baitzekiten ez idazten, ez irakurtzen. Hartara, irudien formak, sinbolo, ikur, edo zeinu besterik ez dira, hainbat ideia transzendente, haraindikoak azaltzeko: Jainkoaren handitasuna, ongiaren eta gaizkiaren arteko etengabeko borroka, bekatuari eta infernura joateko ikara... Hori guztia kontuan hartuta, ondo ulertzen da zergatik balioesten zuen gehiago estetika erromanikoak sinbolismo antinaturala edertasun formala baino.

Azkenik, arkibolten gainean jarritako irudiak, justu enjuta edo albanega deitzen den inguruetan, antz handia bide daukate Esteban maisuak Santiagoko katedraleko Zilargintzako ataldean egindakoekin. Aditu batzuen ustean, hemengo makina bat iruditzen ere ikus daitezke Esteban maisuak zerabiltzan tolesturak adierazteko modu berberak —uhin formakoak, hain zuzen ere—. Ikonografiaren aldetik, berriz, erromanikoan ohikoak ziren hainbat gai azaltzen dira: Kristoren irudia Azken Epaiketean (Pantokrator), eskuineko eskua bedeinkatzeko altxatua duela; Done Petri, ohiko giltzekin, eta San Migel santuak; Ama Birjinaren Deikundea eta Ikustaldia; infernuko irudiak, etab.

2.4. Eliza erromanikoaren handiagotzea: arkitektura zistertarra (XIV. mendea)

Aditu gehienek arkitektura gotikoaren agermena Cisterko ordenaren sorrerarekin lotu izan dute. Jatorriari begira, ordena hori Clairvaux-eko San Bernardoren eskutik sortu zen, berriz ere monje beneditarren arauak —gogoratu Clunyko monjeek XI. mendean erreforma bat egina zutela— berriro nahi izan zituenean. Haren aburuz, Clunyko ordenako monjeek gehiegizko boterea nahiz aberastasuna eskuratua zuten; horren aurrean, San Bernardok otoitzean eta lanean oinarritutako monje-bizimodu urria, umila, pobrea, gehiegikeriarik gabea, aldarrikatu zuen.




Pobrezian eta zorroztasunean inspiratutako espirtu berri hori aintzat hartuta, Cisterko ordenak forma puruak, soiltasunean eta urritasunean oinarrituak hobetsi zituen. Halatan, haien

espazio-kontzeptu berriak hainbat ezaugarri ditu: handikeriaren zeinu izan zitezkeen apaindura oro baztertzea, eta beraz, dekorazioa edota imajinak ahalik eta gutxien erabiltzea; arkitektura biluziaren, soilaren alde azaltzearen ondorioz, espazioaren ordenamenduak eta proportzionaltasunak lehentasuna edukitzea; eraikinak ahalik eta iraunkorrenak izan zitezen, taxuz landuriko harlandua hobestea. Horren guztiaren ondorioz, zistertar arkitekturari espazio soilen eta biluzien edertasuna dario; horrenbestez, espazio argi, biluzi eta eder horiek hausnarketa espiritualak bideratzeko ezin hobeak direla esan daiteke.

Arestian aipaturiko ezaugarri horiek guztiak bete-betean ikusten dira Leireko alde zistertarrean. Monasterio horretan, beste hainbatetan bezala, Clunykko ordenaren ondoren, monje zistertarrak jarri ziren bizitzen. Hori dela eta, monasterio horren eliza-barnea XIV. mendean luzatu zen, arkitektura zistertarraren traza nagusiei jarraituz. Hona hemen antzeman daitezkeen ezaugarri nagusiak:

- Zabaleran hamalau metro hartzen dituen nabe bakarra du. Horrela, arkitektura zistertarraren gustuko espazio zabal handi bat sortzen da.



- Hormak taxuz landuriko harlandu argiz eginak daude, barrutik deskarga-arkuz eta kanpotik horma-bular lodiz eta sendoz indartuak. Zutuin-arku edo arbotante bakar bat azaltzen da, elizaren ipar-ekialdean; antza denez, ez zuten premiarik ikusi besterik jartzeko; alde batetik, ez dagoelako garaiera diferenteko nabarik, eta bestetik, elizak altuera handiegia ez zuelako hartu. Horretaz gainera, hutsarte txikiak irekitzen dira hormetan, azken hauek oso lodiak baitira eta pisu guztiari eutsi behar baitiote.
- Elizako espazioa gotikoari dagokion gurutze-gangez estalita dago. Izan ere, tenplua estaltzeko, gurutze-gangez estalitako lau tarte daude, eta horietatik hiru XIV. mendean horrenbeste zabaldu ziren tertzeletedun gangak dira (gurutze-gangaren laurdenak hiru aldetan banatzen dituen gangari deitzen zaio tertzeletedun ganga). Nerbioak elkartzen diren tokietan giltzarriak daude. Hormari itsatsitako pilare konposatu mehe batzuek nahiz tradizio erromanikoko zutabeek eusten diote gangaren zama guztiari.
- Oro har, esan genezake arkitektura zistertarrak izan baduela antza erromanikoarekin, kontuan hartuz, bietan trinkotasuna dela nagusi. Nolanahi ere, bietan, hutsuneen gaintetik, hormek gangen pisu guztiari eutsi behar diote. Horrela, iruzkin-gai dugun adibide honetan, ez dira oraindik aplikatu gotikoak ekarri zituen berrikuntzarik behinenak: pisua gangaren lau aldetan biltzearen ondorioz, murrak funtzio euslea galtzea. Horren guztiaren ondorioz, ez da azalduko ez beirate koloreztaturik, ez ikonografia joririk. Zistertarren izpiritu soila, nagusi.

*Gasteizko alde zaharra.
Andre Mariaren
katedral gotikoa*

4

IRADOKIZUN PRAKTIKOAK
GASTEIZKO ANDRE MARIA KATEDRAL ZAHARRA BISITATZEKO:

Helbide elektronikoa: visitas@catedralvitoria.com

Telefonoak: 945 25 51 35

Bisitak:

- 15 laguneko taldeak onartzen dira gehienez ere.
- Bisita hasi baino hamar minutu lehenago, han egon beharko dute bisitariak harreragunean, Burullería plazako sarbidean (Portalonen aurrean) sarrerak hartzeko.

Bisitaren prezioa: Eskola-taldeak 20 €

1. TESTUINGURU HISTORIKOA


1.1. Gasteizko ingurunea eta kokalekua

Inguruneari buruz, esan genezake Kantabriako kostaldearen —Bilbo, Deba, Donostia eta Frantziako muga— eta Penintsulako barnealdearen artean —Meseta eta Ebro bailara— dagoela Gasteiz. Hori dela eta, Gasteizek historian zehar bi funtzio bete ditu nagusiki: alde batetik, merkataritza-funtzioa, eta bestetik, funtzio militarra, Frantziatik etor zitekeen inbasioen baten aurrean bigarren defentsa-lerro batean baitzegoen. Bestalde, Arabako Lautadaren erdi-erdian egoteak Arabaren hiriburu izateko parada eman dio, probintzia guztia Lautadaren inguruan antolatuta baitago.

Kokalekuari dagokionez, berriz, Gasteiz elipse-itxurako muino batean sortu zen; hortik Arabako Lautada osoa ikus zitekeen, eta Zapardiel ibaiadarretik gertu zegoen, gainera (egun, Aldundia eta Jesusen Zerbitzariak kaleen azpitik igarotzen da). Andre Mariaren katedral zaharra eraberritzeko egin diren azken ikerkuntza arkeologikoen arabera, muino horretan herrixka bat izan zen orain dela ia bi mila urte, eta gutxienez VIII. mendea ezker, etengabe egonda populatuta. Nafarroako errege Antso VI.a Jakitunak, Gasteiz izeneko leku horretan, (*quae antea vocabatur Gasteiz* “lehen Gasteiz zeritzana”) hiribildu bat sortu zuen 1181. urtean, eta *Nova Victoria* izena ipini zion. Horretaz gainera, forua eman zion, eta horrek hiria erakargarri bihurtu zuen biztanle berrientzat. Hiri berria funtzio militar batekin loturik sortu zelako aukuratu zuen kokapen hori; izan ere, defentsarako bastioi gisa erabil zitekeen Nafarroa eta Gaztelako erreinuen arteko borroketan.

1.2. Erdi Aroko hiribildua: Gasteizko lehen gunea eta ondorengo zabalgunek

Antso VI.ak 1181ean sortutako hiriguneak muinoaren goiko aldea hartzen zuen, eta hiru kale zituen (egungo Santa Maria, Frai Zakarias eta Eskola kaleak), iparraldetik hegoalderako norabidean; ekialdetik mendebaldera, berriz, beste bi kalek —kantoi izenekoak— gurutzatzen zituzten aurreko hirurak. Kale Nagusiak edo Santa Maria kaleak iparraldeko izen bereko eliza gotortua eta hegoaldeko San Bizente lotzen zituen.



1200. urtean, Gaztelaren menpe geratu eta gero, sute handi bat izan zen Gasteizen (1202). Horren aurrean, Gaztelako Alfontso VIII.ak lehen gunea berritu ez ezik, mendebaldeko zabalgunea ere bultzatu zuen, ofizio bateko jarduerekin loturiko honako kale hauekin: Hedegile, Zapatari eta Errementari kaleak. Hiri militarra izatetik hiri merkataria izatera igaro zen urte gutxiren buruan, eta ez ahaztu Donejakue Bideko adarretako bat ere bertatik pasatzen zela.

Merkataritza-jarduerak hartu zuen garrantzia zela eta, 1256. urtean Gaztelako Alfontso X.a Jakitunak hiriaren ekialdeko zabalgunea egiteari ekin zion, Aiztogile, Pintore eta Juderia kaleekin —azken horri Barnekale Berri kalearen izena jarri zitzaion 1492an, juduak kanporatu eta gero—. Gasteizek garai hartan hamar mila biztanle inguru zituen, eta harresiz kanpo, auzo berriak sortzen hasi ziren, hala nola San Frantzisko, San Domingo, Santa Klara eta Madalenako komentuen inguruan.

1.3. Erdi Aroko Gasteizen hiri-morfologia eta funtzio nagusiak

Gasteizko hiribildua elipse- edo almendra-itxurako plano erradiozentriko baten inguruan antolatu zen. Haren morfologiak eredu diren hainbat ezaugarri ditu:

- Harresiz inguratutako esparrua. Funtzio militarra nagusietako bat zenez, Gasteizek bi harresi-ingurabide zituen: bata, Eskoriatza-Eskibel jauregiaren ondotik zihoana; bestea, Zapardiel ibaiaren ondotik, gaur egungo Jesusen Zerbitzariak kalearen ertzetik, hain zuzen.
- Plano erradiozentrikoa. Kale Nagusiaren inguruan, ardatza, antolatzen dira beste zortzi kaleak, sestra-kurbei iparraldetik hegoaldera jarraituz. Kale zentrokide horiek estuak dira, harresiak mugatutako espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzearen. Bestalde, kale horiek zeharkatzen dituzten beste kale batzuk daude, kantoiak, maldan daudelako, estuagoak eta aldapatsuagoak.
- Bilbe itxia. Gasteizko etxe gehienak etxe luzangak edo herri xehearen etxeak ziren. Jatorrian bebarria eta bi solairu izaten zituzten, baina gerora, hazkunde demografikoa izan zela eta, solairu gehiago gehitu ziren. Beheko solairua harrizkoa izaten zen, eta bertan egoten ziren ataria eta artisautza-tailerra. Goiko solairuak adreiluzkoak izaten ziren, egurrezko egiturarekin, eta hor bertan bizi ziren artisauak
- Hierarkizazio soziala. Erdi Aroko Gasteizko etxe gehienek antzeko itxura zuten, eta beraz, homogeneotasun arkitektonikoa nagusi zen. Halere, dorretxeen eta jauregien agerpenak hierarkizazio soziala gero eta nabarmenagoa egin zela erakusten du. Dorretxeak XIV. eta XV. mendeetan eraikitako gotorleku militarrek ziren, jauntxoak hiribilduetan finkatzeko prozesuaren hasiera adierazten zutenak. Planta karratua edo errektangeluarra zeukaten, eta harrizko murrak lodiak. Horretaz gainera, harresien inguruetan kokatuta egoteak, murruek gezi-leihoak, almenek edota adarbeko pasabideek ederki asko erakusten dute gerrarako prestatutako eraikinak zirela. Gasteizko barrualdean Andatarren dorretxea edota Otxanda andrearena dira lekukorik nabarmenenak. XV. mendearen azken urteetan, berriz, jauregiak nagusitu ziren. Izan ere, Erdi Aroaren amaieran, XIV. mendeko krisiak eragin zituen Ahaide Nagusien borroka bukatu ondoren, jauntxo feudalek botere politikoa galdu zuten —gogoratu Gaztelako Enrike IV.aren agindua, dorretxeen gailurrak motz zituzten—, baina aginte ekonomikoa eta gizartean zuten era-

gina gordetzea lortu zuten. Hor dugu Aro Modernoko euskal oligarkiaren sorrera. Horren guztiaren adierazpide moduan, Arabako makina bat etxejaun handik Gasteizko hiribilduan jauregiak eraikiarazi zituzten. Hiri-jauregi horiek ez ziren egoten harresien ertze-tan, dorretxeak bezala, kale nagusietan baizik, eta itxura hiritarragoa zuten. Hala, murrak meheagoak eta leihoz beteak ez ezik, itxura gotortua ere galdua zuten. Garai horretako jauregirik aipagarrienak Kordoia etxea, Alabatarren etxea eta Kuboen etxea dira.

Gasteizek Erdi Aroan betetzen zituen funtzio nagusiei begiratuz gero, funtzio batek baino gehiagok eragina izan zutela nabarmentzen da:

- Funtzio militarra. Gasteizen fundazioa nagusiki Nafarroako eta Gaztelako erreinuen arteko norgehiagokaren ondorio izan zen. Horrela, Nafarroako Antso VI.ak Gaztelako erreinuaren aurkako defentsa lerroa eratu zuen, Gasteiz eta beste horrelako hiribildu batzuk fundatuz. Era berean ezin dugu ahaztu, Ahaide Nagusien borrokek sorturiko egoera ezegonkorrari aurre egiteko, Arabako Ermandadea sortu zela, eta Gasteizko hiribildu harresitua eta gotortua izan zela elkarte horren buru. Azkenik, Aro Modernoan, Espainiako nazioarteko politika nagusitu zenean, Gasteiz bigarren defentsa-lerro bateko plaza gotortu bihurtu zen, Frantziatik etor zitekeen inbasioren baten aurrean.
- Funtzio erlijiosoa. Hiribilduan lau eliza nagusi zeuden: Santa Maria, hiriaren iparraldeko babesteko eliza-gotorlekua; San Pedro, mendebaldeko beheko harresiaren zati; San Migel eta San Vicente, biak hiribilduaren hegoaldean kokatuak. Komentuak ere ugari ziren hiri inguruan, eta besteak beste, garrantzitsuenak, San Domingo eta San Frantzisko.
- Artisau-funtzioa. Gremioak edo artisauen ermandadeak kaleka antolatuta egoten ziren Erdi Aroan. Horren adierazgarri dira zenbait kaleren izenak: Hedegile, Zapatari, Errementari, Aiztogile eta Pintore.
- Merkataritza-funtzioa. Kostako portuen eta barnealdearen erdibidean kokatuta dago; porturik garrantzitsuenetarikoak Bilbokoa eta Debakoa izan ziren; barnealdeko merkataritzari dagokionez, berriz, artilearen merkataritza izan zen nagusi (Burgosekoa bereziki).

2. ANDRE MARIAREN KATEDRAL GOTIKOA

2.1. Eraikinaren azterketa arkitektonikoa

Gasteizko Andre Mariaren katedrala Araba osoan egindako eraikin gotiko ederrenetarikoa da. Iparraldetik hegoalderantz zabaltzen den muinoaren ipar-muturrean kokatuta dago —inguruan duen Arabako lautada baino hogeit bat metro gorago—, lehendabiziko harresiek mugatu zuten esparruan. Katedral-barruko zoruan ere nabaria da altuera-desberdintasuna; hori dela eta, zorua berdintzeko betelan asko sartu behar izan zuten.

Egungo eraikin hori zenbait garaitako hainbat atalez osatuta dago, eta atal horien ezaugarriak bat datoz garai historiko jakin horietako ezaugarriekin:


- A) Nafarroako Antso VI.a Jakitunaren garaian eginiko lehen eraikina (XII. mendearen bukaera):** Arestian esan bezala, Nafarroako Antso VI.a Jakitunak 1181. urtean hiribildu bat sortu zuen Gasteiz zeritzan muinoan. Badirudi lehen gune horretan, gaur egungo Andre Mariaren katedral zaharra dagoen leku berean izan zela beste eraikinen bat. Antza denez, eta egin diren ikerlanen arabera, errege nafarrak eraikiarazi zuen eliza erromaniko bat iparraldeko muturra babesteko; beraz, eliza erromanikoa harresien osagaia izan zela dirudi. Hainbat aurri daude lehen eraikinaren kokapena eta jatorri erromanikoa adierazten dutenak: batetik, zutik dirauen horma, non baitzegoen iparraldetik hiribildura sartzeko aterik zaharrena, Gasteizen gaur egunera arte iritsi diren zaharrena; Santa Maria kantoitik ikus daitezke oraindik haren arrastoak, hala nola eskuineko ate-zangoa edota arkuaren abiaburua. Bestetik, elizaren azpiko kripta ere harresiaz baliatuz eraiki zela dirudi. Horregatik guztiatik, ondoriozta daiteke Gasteizko hiribilduan egindako lehen eliza erromaniko hori eliza-gotorleku bat izan zela.
- B) Gaztelako Alfontso VIII.ak abian jarritako elizaren arrastoak (XIII. mendearen hasiera):** Alfontso VIII.ak, behin Gasteiz hartu ondoren, hiribildua mendebalderantz zabaldu zuen, hiru kale eratuz alde horretarantz. Horrekin batera, hiribilduaren iparraldeko muturra babestearren, eliza berri bat egiteari ekin zion; horretarako, aurrekoaren zenbait atal bota eta material horretaz baliatu ziren proiektu berri bat abian jartzeko. Garai horretan eginiko alde horrek horma sendoak ditu, defentsarako pentsatuak ezbaierik gabe, eta arkitektura zistertarraren ohikoa diren gurutzadura eta transeptu zabalak dauzka. Bestalde, harresiari itsatsirik eraiki zutela eta, kanpoaldetik defentsarako itxura nabarmentzen zaio, errondabide batez hornituta baitago buelta guztian, zelatan ibili ahal izateko.



- C) Gotiko klasikoaren itxuran taxututako eraikina (XIII. mendearen bigarren erdialdea, Gaztelako Alfontso X.a Jakitunaren erregealdia, eta XIV. mendea):** XIII. mendea ezkerera eraikitzen jarraitu zuten eliza horrek estilo gotiko klasikoaren hainbat ezaugarri ditu: ohiko latindar gurutze formako oinplanoa, non transeptua, arkitektura zistertarraren eraginez, oso zabala baita; gurutze-gangez estalitako hiru nabe, zabalagoa eta altuagoa erdikoa alboetakoak baino; gangaren alboetako zamari eusteko zutoin-arkuak, zeinek indar guztiak horma-bularretaraino bideratzen baitituzte; absidea, girola edo deanbulatorio batez inguratua, absideko kapera erradialetarako (absidioloak) sarbidea erraztearren; elizaren inguru osoan alboetako nabeen gainetik doan triforioa, zeinek hirugingildun arkuak, lau orridun baranda eta moldurak baititu. Eraikin horren itxuratze gotikoa bi alditan gertatu zen:

- Lehen aldia XIII. mendearen bigarren erdialdean garatu zen, lan gehienak Alfontso X.aren agintaldian gauzatu zirela agerian geratu baita. Alfontso VIII.ak hasitako proiektua errotik aldatu zuten Alfontso X.aren garaian. Hona hemen egindako lanik nabarmenenak: elizaren norabidearen aldaketa —aurreko elizaren luzerako ardatzak zeihar ebakitzen zuen berriarena—; Hiru absidioloak eta girola harrizko gangaz estali zituzten; eskuinaldeko nabea, epistolarena, ixten hasi ziren, eta nabeen arteko pilare konposatuak eraikitzeari ekin zioten.

- XIV. mendea: Eliza eraikitzeke lanak geldirik egon ziren urte batzuetan. Ondoren, beste hargin talde batzuk etorri bide ziren, horien hargin-markak aurkitu baitira garai horretako lanetan. Eraikuntza-lanetan parte hartu zutenek eman zioten katedralari orain duen itxura. Garai horretako arrastorik garrantzitsuenak honako hauek dira: egurrezko gangen bidez azken bi tarteak estaltzea eta eraikina gaur egungo sarrerako atalde ederrerraino luzatzea.



- D) XV. eta XVI. mendeetako erreformak:** Gasteizko oligarkiak bultzatuta, Andre Mariaren eliza hutsa izatetik kolejiata izatera pasatu zen XV. mende bukaeran (1498). Harrezkero, Andre Mariaren kolejiata etengabe edertu eta hobetzarren, erreforma berriak egiteari ekin zioten. Hori horrela izanik, XVI. mendean zenbait eraikuntza-lan egin zituzten: dorrea, korua, hainbat kapera eta egurrezko gangen ordez harrizkoak jartzea. Ezbairik gabe, azken eraikuntza-lan hori izan zen denetan ondorio gehien eragin zituena. Izan ere, egurrezko gangen ordez harrizkoak jartzeak gainkarga eragin zuen, horma-bularrak ez baitziren nahikoak zama berri horiei eusteko. Arazo hori bideratzeko eta irozkaiek nahiko sendotasun izan zezaten, arku apal batzuk jarri zituzten pilareen artean, horiek indartzearen. Orduan esan daiteke hasi zirela Andre Maria eraikinaren arazo arkitektonikoak. Eginahalak eginahal —besteak beste, kontrahorma sendoak eranstea kanpotik—, XVI. mendea ezkerre, beti egon izan da eraikin hori ez ote den eroriko kezka.

2.2. Andre Mariaren katedral zaharraren mendebaldeko ataldea

Gasteizko Andre Mariaren katedralaren eskultura-lanik garrantzitsuenak mendebaldeko sarrereren hiru ataldetan aurkitzen dira. Atari batek babesten ditu, non gangen nerbio joriak eta kurbatuak ikus baitaitezke. Eskultura horiek XIV. mendearen bukaeran eta XV. mendearen hasieran egin zituzten, eta gotikoari dagozkion hainbat ezaugarri dituzte:

- Merkataritza eta hirien bizitza berpiztu zirela eta, gotikoan, aldatu egin zen gizakiak erre- alitatea ulertzeko zuen modua. Ezin dugu ahaztu frantziskotarren espiritualtasunak eta Tomas Akinokoaren filosofiak izan zuten eragina munduaz zegoen ikuspuntua aldatzeko; izan ere, inspirazio-iturri nagusia mundu naturala eta zentzuen mundua izan zen ordutik aurrera. Gotikoan artistak erre- alitateari erreparatu zion. Hori dela eta, irudien formak, aurpegierak eta gorpuzkerak, naturalismo, adierazkortasun eta mugikortasun handiagoa hartu zuten, eta erromanikoari zegozkion forma estereotipuetatik urundu egin ziren. Estetika gotikoak begi-bistan zegoenaren itxurari erreparatu zion, eta Naturaren antza zuten formak lehenetsi zituen. Hartara, artista gotikoak aurpegiak, gorputzak eta jantziak modu naturalez irudikatu zituen, eta ez erromanikoan bezala, estereotipoak errepikatuz. Irudi gotikoak, arkitekturatik bereizirik, naturaltasunez mugitzen ziren, eta idealizazio- rako joera zuten. Idealismoa, lasaitasuna, barne-oreka, noblezia eta espiritualtasuna darizkie irudi gotikoei, neurri handi batean. Edonola ere, XIV. mendean, krisia edonora hedatu zenean, irudien hazpegiak adierazkorragoak eta malenkoniatsuagoak bihurtu ziren. Horrela, gotikoaren aldi manieristari eman zitzaion hasiera.



- Ikonografiari dagokionez, esan daiteke estetika gotikoa gizatiartu egin zela. Gogora ekar dezagun, esate baterako, Jainko ahalguztidun erromanikoaren aurrean, Ama Birjina Haurrarekin hobesten zela gotikoan, ararteko-lana edota bitartekariarena egingo zuela- koan Kristo eta gizadi bekatariaren artean. Ondorioz, gotikoan Amabirjina eta Haurra lotura afektibo estu batez azaltzen ziren (irribarretsu, elkarri begira, aurpegiera samurrak erakutsiz...). Kristo bera ere ez da Erromanikoko Epaille errukigabe hura.

—Iruzkingai dugun eskultura multzoak gotiko manieristari dagozkion honako ezaugarri hauek ditu: irudien sentimenduak, hazpegi sentiberen eta malenkoniatsuen bidez azaleratuak, eta adierazkortasuna modu nabarmenagoz azaltzea; eskultura-lana narratiboagoa izatea, bide emanez anekdotei eta xehetasunei, eta azkenik, pertsonaiak mugimendu sotil eta baretu batez irudikatzea.

Behin gotikoari dagozkion ezaugarriak ezagutu eta gero, hona hemen Gasteizko Andre Mariaren sarrera nagusiko lan eskultorikoaren deskribapena:

Erdialdeko ataldea: XIV. mendearen bukaerako gotiko manieristaren trazan arabera egina dago. *Ate-zangoetan* hainbat santu daude, eta denen artean, Alexandriako Santa Katalinaren irudia nabarmentzen da, esku artean daukan martiritzarako gurpilagatik. Gotiko klasikoaren ezaugarriak dira obra horretan, hala nola pertsonaiari darizkion espiritualtasuna, sentimendu noble bezain malenkoniatsua edota idealizazioa. *Arkiboltetan*, berriz, aingeru, profeta eta santuak daude, horietako asko oso narriatuta azaltzen badira ere. Bestalde, *mainelean*, Andre Mariaren irudia gotiko manieristaren arabera taxututa dago: Haurrari beso batean eutsirik ageri da Ama Birjina, eztitsu eta irribarretsu; imajina kurbatu egiten da grazia handiz, eta horrek jantziak lantzeko joko ezin hobea ematen du, tolesdura ugariak eta lasaiera handikoak erortzen baitzaizkio. Polikromiaren arrastoak ere sumatzen zaizkio oraindik. Baina atalde honetan interes handien duena *tinpanoa* da. Horrek konposizioa guztiz gotikoa du, eta, beraz, irudi guztiak zerrenda horizontaletan banatuta daude; horrela, gotikoaren zentzu narratzailea agerian gelditzen da (urruti gelditzen dira erromanikoari zegozkion anabasa eta formen metaketak). Lau zerrenda horietan Andre Mariaren bizitzari eskainitako hainbat eszena daude irudikatuak: Deikundea —Gabriel goiaingeruarekin—, Ikustaldia —Elixabet lehengusinarekin—, Jaiotza, Errege Magoen gurtza, Tenpluan Haurra aurkeztea, Ama Birjinaren lokartzea, Jasokundea, Mariaren koroatzea, etab.

Eskuinaldeko ataldea: Ate-zangoetan eskultura exentuko adibide bikainak diren santuen irudiak daude. Denen artetik, Santa Magdalena ezagut daiteke daraman ukenduaren ontziagatik. Hemen ere, tinpanoa zerrenda horizontaletan banatuta ageri da, eta bertan, Azken Epaiketarekin lotutako zenbait eszena: aingerua arimak pisatzen, Kristo zauriak erakusten, etab.

Ezkerraldeko ataria: Ate-zangoetan ez dago eskulturarik. Arkiboltetan, berriz, aingeru musikari eta kantariak, santuak, erregeak eta profetak ageri dira.

*Errenazimentua
Gipuzkoan: Oñatiko
Unibertsitatea*

5

**IRADOKIZUN PRAKTIKOAK
OÑATIKO SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA BISITATZEKO:**

Oñatiko Turismo Bulegoa

Helbidea: San Juan kalea, 14 - 20560, Oñati

Telefonoa: 943 78 34 53

Ordutegia

Apiriletik irailera

Lanegunetan: 10:00-14:00 / 15:30-19:30

Larunbatetan: 10:00-14:00 / 16:30-18:30

Igandeetan: 10:00-14:00

Urritik martxora

Lanegunetan 10:00-13:00 / 16.00-19:00

Larunbatetan 11:00-14:00

Igandeetan : 11:00-14:00

1. TESTUINGURU HISTORIKOA

1.1. Forma errenazentista berriak zabaldu ziren garaiazen zer-nolakoak

Espainiak, XVI. mendean, loraldi gorenatariko bat bizi izan zuen, hainbat arrazoirengatik: alde batetik, Erdi Aroko Iberiar penintsulako gune politiko gehienak batuta gelditu zirelako Errege-erregina Katolikoan agintaritzapean; bestalde, Espainia Ameriketako kolonietan etekinak ateratzen hasia zelako; horretaz gainera, Espainiak berebiziko garrantzia izan zuelako Europan, bai lur garrantzitsuak zeuzkalako menpean, bai Habsburgoko erregeek parte hartu zutelako Europako politikan eta erlijio-gatazketan. Egoera horrek guztiak isla zuzena izan zuen artearen garapenean. Horrela, arkitektoek mintzaira arkitektoniko berri bat erabiliko dute (errenazentista izeneko), Italiako lurretatik ekarria, nonbait, nazioarteko harremani esker. Ezin da ahanzi Espainiako monarkiaren eta Italiaren arteko harremanak areagotu egin zirela urte horietan, eta, hartara, lurralde bietako artisten joan-etorriak ugaritu egin zirela. Espainiako erregeek eta nobleek berehala onartu zituzten forma berriak, nahiz eta Elizak, hein handi batean, gotikozale izateari jarraitu zion.

Espainiako arkitektura errenazentistan hainbat joera bereiz daitezke: lehenik, XVI. mendean hasieratik 1530. urtera arte luzatu zen platereskoa, zeinetan hainbat jatorritako apaindurak nahasten baitziren, hala nola azken gotiko gardunari, estilo mudejarrari edota Italiako Errenazimentuari zegozkionak; bigarrenik, XVI. mendean erdialdean zabaldu zen joera garbizaleak (purista ere deitua) ez zuen apaindurak jartzeko inongo zaletasunik, eta Italiatik ekarritako honako forma arkitektoniko puru hauek zerabiltzan: oinplano sinplifikatuak (karratuak, zirkularrak, gurutze grekoaren itxurakoak), perspektiba-legeen arabeko espazioen antolamendua, zutabe klasikoak (dorikoa, joniarra, korintoarra, konposatua eta toskanarra) edota taulamenduak eta frontoi klasikoak; azkenik, mendean bukaera aldera hedatu zen estilo herretarrak ondo islatu zuen aldi manierista, hainbat ezaugarri baliatuz, hala nola espazioen osotasuna hautsiz, kupulei zerien handitasuna markatuz, perspektiba eszenografikoak lehenetsiz (ikus El Escorialeko sarrerako handitasuna, irmotasuna eta sendotasun, erraldoi-ordenako zutabeen bidez lortua), apaingarririk gabeko lerroen urritasuna eta purutasuna azpimarratuz (biluztasun arkitektoniko horretan, gailentzen den apaindura bakarra errematetan jartzen diren bolak dira).

Gipuzkoari dagokionez, artegintzarako XVI. mendea garapen handiko garaia izan zen; izan ere, aditu batzuen ustez, XVI. mendea “Gipuzkoako Artearen urrezko mendea” da. Gogora dezagun molde errenazentista berriak Gipuzkoan ezartzea erabat lotuta dagoela lurralde horretako ekonomia- eta gizarte-baldintza jakin batzuekin. Dударik gabe, Ahaide Nagusien arteko gerrateen ondorengo egonkortasun sozialak, aurrerapen ekonomikoek, deskubritu berria zen Amerikarekin merkataritza-harremanak eragindako irabaziek eta hazkunde demografikoak bide eman zuten Gipuzkoan lan arkitektoniko askori ekiteko. Hori guztia kontuan izanda, ezin da aipatu gabe utzi Gaztelaren orbitan sortu zen funtzionario eta merkataritza talde batek izan zuen garrantzia Gipuzkoako arkitekturaren forma berriak sar zitezen; talde horrek, Europako eta Ameriketako agintaritza berriarekin aberastu ondoren, molde arkitektoniko berriak ekarri zituen eraikuntzara. Itsasoa eta Gaztela izan ziren molde berri horien sarbideak. Izan ere, Kantabriar itsasoko zenbait portutako merkataritza-harremanak zirela medio, Herbeheretatik nahiz Italiatik hainbat objektu ekarri zituzten, hala nola mihiseak, tapizak, bitxiak, etab. Bestalde, penintsula osoan zehar lan egiten zuten euskal harginen eskutik, Gaztelako Errenazimentuaren eragina errazago sartu zen Gipuzkoan.

1.2. Platereskoa

Behin Espainiak eta Gipuzkoak bizi izan zuten egoera sozio-ekonomikoa aztertu ondoren, eta kontuan izanda iruzkingai dugun Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatea platereskoa dela, ekin diezaiogun joera arkitektoniko honi dagozkion ezaugarriak azaltzeari:

Arestian esan bezala, XVI. mendean Espainian garatutako lehen arte-estilo errenazentista da, eta duen ezaugarri nagusia ornamentazio-joritasuna da. Errenazimentua Espainian sartu zenean, gotiko garduna eta mudejar arkitektura oso erroturik zeuden artean, eta horien eraginez, platereskoak dekorazio-elementuak erruz erabili zituen. Lehen arkitektura errenazentistak plateresko izena hartu zuen, nonbait, zilarginen lanen bozelketak eta zizelkatzeak gogorarazten zituelako. Hartara, platereskoak Errenazimentuko elementu estrukturalak baino gehiago, apaindura-elementuak hobetsi zituen. Hona hemen platereskoan, *horror vacui* (hutsari izua) tankerako trazei jarraituz, behin eta berriro errepikatu ziren apaingailuak:



- Gruteskoak. Hostotza eta huntz artean dauden izaki hibridoak, animalia kimerikoz, objektu edo pertsonaia klasikoak osaturiko apaingailu apetatsuak dira. Neron enperadorearen *Domus Aurea*ko aurrietan aurkitu izan ziren apaingailuak gogorarazten dituztelako deitu zitzaizkien horrela.
- Argimutilak (*candelieri*). Simetriaren legegari jarraituz, argimutil horiek erditik pasatzen zaien ardatz bertikal bat dute (sarri pertsonaia edo *kratera* klasiko batez osatua), eta alde batera zein bestera dauden formak berdinak dira.

- Kalostra itxurako zutabeak. Zutabe horrek, zati batzuetan erraboieltsua eta beste batzuetan, aldiz, estua, hostoak, granada-fruituak, ontziak eta beste antzeko apaingailu batzuk izaten ditu gainjarrita fustean.
- Kapitelak. Funtsean, ordena korintoarrean oinarrituta daude; beste gainerako kapitalak, hots, toskanarrak, dorikoak eta joniarrak ez ziren erabiltzen, zurrunagoak zirelakoan.
- Arkuak. Platereskoan arkitektoek hainbat arku mota zerabiltzaten: erdi puntukoak ez ezik, ikus daitezke beste hainbat ere: karpanelak, konopialak, eskartzanoak, peraltatuak, etab.
- Armariak eta dominak. Mezenasa familia noble baten kide zela adierazteko, armariak jartzen zituzten fatxadetan edota lekurik seinalagarrienetan. Halaber, arkuen arteetan, inpostetan, antzinako heroien nahiz pertsonaia ospetsuen buruak jartzen zituzten domina biribil batzuen barruan.
- Gailurreriak. Eraikinak koroatzeko sarri gailurreriaz baliatzen ziren, landare eta irudiak tartekatuz.

2. SANCTI SPIRITUS UNIBERTSITATEA

Oñatiko seme eta Ávilako apezpiku On Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainak bere jaioterrian *Sancti Spiritus* Unibertsitatea fundatu zuen 1540. urtean. Kultura handiko humanista zen, Cisnerosen laguna, eta legegileen eta erlijiosoen ohiko liburuak ez ezik, matematikakoak, astronomiakoak, mitologiakoak eta kultura klasikokoak ere irakurtzen zituen: Platon, Aristoteles, Erasmo, Ovidio, Zizeron, Plutarko, Horazio... Badirudi, Gaztelako hainbat unibertsitatetan ibilia zela (Santiago, Salamanca, Valladolid), eta ardura handiko jarduerak izan zituela, Unibertsitateko sarrerako txartelean irakur daitekeenez: “*Episcopus Abulensis, Vicerex Regni Navarrae, idemque praeses Granadensis*” (Ávilako apezpiku, Nafarroako erregeorde eta Erregeak Granadan zuen ordezkariaren presidente). Paulo III.a Aita Sainduak On Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainak zuen egitasmoa onartu egin zuen bula baten bitartez. Horrela, eta Karlos enperadorearen laguntzaz, gotzain oñatiarrak Oñatiko Unibertsitatea sortu eta ordaindu zuen. Han, Teologia, Zuzenbidea eta, aldi berean, Medikuntza irakasten zuten. Orduko dokumentuetan agertzen denaren arabera, Mercado gotzainak “Oñatiko eta euskal lur osoko letradunak” sortu nahi zituen.

Oñatiko Unibertsitatea estilo errenazentista platereskoaren trazaren arabera eginda dago eta garai hartako arkitektura zibilaren erakusle adierazgarrienetakoa da. Oinplano laukizuzena du eta bi solairu ditu; eraikina erdialdean daukan patio edo klaustro baten inguruan egituratzen da. Beheko solairuan, kapera, liburutegia, sukaldea eta jantokia zeuden, eta lehenengoan, berriz, ikasgelak, logelak eta oso sabai landuko areto nagusia (*Aula magna*). Solairu biak klaustroeskailera baten bidez elkar lotzen dira, eta esan beharra dago eskailera hori kasetoidura mudejar ikaragarri batez estaltzen dela. Hiru dira xehetasunez iruzkinduko ditugun atalak: fatxada, patioa edo klaustroa, eta kapera, duen erretaularekin.

2.1. Fatxada

Aditu gehienek uste dute Gil de Hontañon arkitektoak egin zituela eraikinaren trazak, nonbait, arkitekto berak Salamancan egindako Dueñas komentuko trazaren antza duelako Oñatiko

unibertsitateak. Halere, konposizioa guztiz soila geratzen zenez, lau pilastra edo horma-bular handi gehitu zitzaizkion, ez hornei eusteko, eraikuntzaren sabaia zurezkoak baitira, apaingailuz betetzeko baizik. Apaingailu guztiak zizelkatzeaz Pierres Picart eskultorea arduratu zen, eta horrek berorrek egin zuen kaperako erretaula ere. Horretarako, Valladolideko Santa Cruz Kolegioa hartu zuen inspirazio-iturri.

Eraikinaren fatxada nagusia hiru zatitan banatuta dago eta zenbanahi elementu apaingarri ditu, denak ere esanahi zuzena dutenak. Fatxadaren ikonografiak paganotasunaren eta kristautasunaren balioak eta bertuteak ezagutu beharra azaltzen dio ikasleari. Izan ere, apaingailuek sinesmen kristau eta paganoak ekartzen dituzte gogora, eta ikasleak, nola ikasketetan hala bizitzan bertan, balioei estu lotzera bultzatzen zituzten.

Erdiko gorputzean, fatxadako eskultura multzo nagusia ageri da. Behealdetik hasita, ohar-tuko gara pilastren oinetan, idulkietan, hain zuzen, mitologia-kontuak gaitzat dituzten zenbait erliebe daudela irudikatuta, besteak beste, Herkulesen lanak, betebeharrak agertzen direnak. Antza denez, horien bitartez ikasleei ikastearen beharra helarazi nahi zitzaie. Hala, Herkules ikus daiteke Nemeako lehoia itotzen, suge-gorputza eta giza burua zuen Akeloorekin borrokan, Anteo garaitzen, etab. Horretaz gainera, badira gai mitologikoa irudikatzen duten beste hainbat erliebe ere, hala nola Pertseorena Gorgoiarekin eta Gaizkiarekin borrokan, edota zentauro batek Deianira ninfa (Herkulesen emaztea) bahitzen diharduela. Horietan guztietan, esanahia berdina da, alegia, bakoitzaren lana eta eginahala goratzea, ikasleak balio horretaz jabe zitezten, alde baterik, eta bestetik, kristautasunaren nagusitasuna azpimarratzea paganismoaren aurrean; horregatik, irudi mitologikoak behealdeetan irudikatuta daude, hain zuzen, santuen eta martirien azpian.



Esan bezala, goialdean, martiri eta santu kristauak daude. Eraikinean sartzeko, filosofia neoplatonikoaren eta teologia-erudizioaren eredu diren San Agustin eta San Jeronimoren arte-tik igaro behar da. Sarrera horren goialdean, kasetoiz hornitutako erdi puntuko arku itsu baten barruan, unibertsitatearen gotzain-fundatzailea dago, otoitzean belaunikatuta; atzean, Jakinduriaren sinbolotzat har daitekeen emakumezko irudi batek babesten duela dirudi. Oñatiko parrokiako Errukiaren kaperan dagoen mausoleoko irudiaren oso antzekoa da. Fatxadaren goieneko aldean, berriz, Karlos V.aren armari inperiala dago, behar bada, haren babespean zegoela adierazteko. Azkenik, erremate gisa, fatxadaren buruan bi gerlari daude; horiek, unibertsitatearen defentsa sinbolizatzen ari direla dirudi.

Erdiko gorputzaren albo banatan, bi pilastra handi daude, eta beste bi, fatxadaren ertzak markatzen. Horiek hainbat ahurtasun daukate, non hogeita hamar santu eta bertuteren alegoriak ageri baitira, sinboloz eta martiritzako tresnaz irudikatuak. Horietako batzuek ikastearekin zerikusia dutela dirudi. Ezagunenetarikoak, honako hauek: Birjina Maria, Santa Barbara, Santa Ines, Santa Katalina, Maria Magdalena, Santa Elena eta Itxaropena eta Karitatea sinbolizatzen dituzten alegoriak. Irudi horiek guztiek hainbat ezaugarri dituzte: Pierres Picart-ek irudien gorputza lantzeko 1/4 kanona erabili zuen; beraz, burua gorputz osoaren laurdena da; irudiek burua zertxobait jiraturik eta makurturik daukate, eta jantziek bolumen handiaren sentsazioa eragiten dute; hori lortzeko, tolestura sakonak ongi zizelkatu zituen argi-itzalen efektuak sortzeko; zenbait alditan, oihal bustiaren teknika erabili zenez, jantzien azpiko anatomiak antzeman daitezke (gehien bat izterrak eta belaunak).

Azkenik, estalki guztia drainatzen duten xurrutarriek edo gargola ugari eta apetatsuek, artean gotikorako zaletasuna zirauela adierazten dute.

2.2. Unibertsitateko klaustroa edo patioa

Kanpoko atea zeharkatuta eta klaustroan sartu aurretik, ezkaratz zabal bat dago, kasetoidura mudejar apartaz estalita. Hor bertan ikus daiteke txartel bat, non gotzainak zituen kargu guztiak gogoratzen baitira: “*Episcopus Abulensis, Vicerex Regni Navarrae, idemque praeses Granadensis*” (Avilako apezpiku, Nafarroako erregeorde eta Erregeak Granadan zuen ordezkariaren presidente).

Oreka handiko klaustroak forma laukizuzena du; izan ere, iparraldean eta hegoaldean seina arku ditu, eta ekialdean eta mendebaldean, zazpina.

Deigarria egiten zaigu patio horretan estilo errenazentistak hartzen duen garbitasuna, purutasuna, ez baitira azaltzen fatxadan ikusi ditugun apaingailu platereskoak; aitzitik, hainbat elementu arkitektoniko estruktural apaingarri guztien aurretik ageri zaizkigu: puntu Erdiko arku-tertia bikoitza —ez da jadanik arku karpanel gotikorik azaltzen—; kapitel klasikoak; inpostetan pertsonaia mitologiko eta Espainiako errege-erreginen buruak tondo biribiletan sartuta.



Esan bezala, klaustroa apaintzen hogeita hamabi medailoi edo tondo daude arku artean. Pertsonaia historikoak irudikatzen dira hainbatetan, hala nola Karlos I.a eta Isabel Portugalekoa edota Felipe II.a, haien semea, eta Maria Portugalekoa; beste batzuetan, berriz,

pertsonaia mitologikoak, esate baterako, Herkules eta Deianira, Ulises eta Penelope, edota Lukrezia eta Kollatino. Horietariko aurpegi batek baino gehiagok Berruguete eskultura-maisu gaztelar paregabearen estiloa gogorarazten digute; izan ere, irudi batzuen adierazkortasunak, emozioak, edota aurpegiera patetikoak ondo erakusten dute hasita zeudela eskultoreek barne-emozioak irudikatzen (manierismo pre-barrokoa), klasizismoari zegozkion proportzioa eta harmonia idealizatua alde batera utzita.

Aipagarria da, halaber, lehen solairuko sarbideko eskailerako kasetoidura mudejarra, benetan maisu-lan aparta. Badirudi hori egiteko, On Rodrigo Mercado de Zuazolak jatorriz Avilakoa zen Gibaja izeneko artisau bati urrezko 1.020 dukat ordaindu zizkiola.

2.3. Unibertsitateko kapera eta erretaula

Unibertsitateko fatxada erabat platereskoa baldin bada, eta klaustroa, Errenazimentuko joera puristakoa bete-betean, kapera, aldiz, gotikoa da. Bistakoa da eraikin gotikoa dela, txikia eta soila izan ere, arku ojibalak eta gurutze-gangak nagusitzen direlako espazio guztian barrena.

Dena den, kaperaren burualdean absidea oso-osorik betetzen duen erretaula dago, guztiz platereskoa. Erretaularen egileari buruzko idatzizko aipamen zehatzik ez badago ere, ikerlari batzuen ustez, Pierres Picart-ena da zalantzarik gabe, eskultore horrek eginiko beste obra batzuen antz handia duelako (gogoratu San Migel parrokiako Errukiaren kapera).



Erretaula hori ohiko eran egituratzen da, alegia, predela bat behealdean, zenbait gorputz horizontal, hainbat kale bertikal eta errematatzeke, atikoa. Iruzingai dugun kapera hau lau gorputzetan eta zazpi kaletan egituratzen da (azkeneko gorputz bietan, bost); erdiko kalea, erretaularen ardatza, zabalagoa da besteak baino, eta albo banatan, hiruna kale ditu lehenengo bi gorputzetan, eta bina, azken bietan.

Apaiagarri platereskoen ugaritasunak estilo berriak zenbaterainoko indarra hartua zuen agerian uzten du. Hala, honako bereizgarri hauek estilo horren berri ematen digute: alde batetik, kaxa edo nitxo bakoitza maskorren bidez estaltzea; bestetik, pilastrak gruteskoz gaineztatzea edota zutabe exentoez kalostira-itxura izatea; azkenik, beheko gorputzetako frisoetan motibo

paganoak (grifoak, bitxak...), eta goikoetan, aingerutxo-buruak azaltzea. Apaingarrien joritasuna nabarmentzen da, ertilarri platereskoek horren berea zuten *horror vacuik* (hutsari izua) eragindako joera estetikoaren ondorioz. Irudien estiloari erreparatuz gero, berriz, aise ohartuko gara aurpegiaren adierazkortasunaz, gorputzen mugimendu bortitzaz, aurpegiaren urduritasunaz eta fededunak hunkitzeko pertsonaiei darien sentimenduaz. Horiek guztiak, Alonso Berruguete eskultore gaztelar handiari dagozkion ezaugarri manieristatzat har daitezke.

Predelan, profeten erliebeak agertzen dira, zeinen gorputzak astinduak baitirudite, mugimendu indartsu batek eraginda. Erretaularen oinarriak berebiziko mugimendua dauka, hain dira bortitzak eskortzoak. Hor antzeman daitezke bereziki zantzu manieristak.

Erretaularen lehen gorputzeko erdiko kalean, San Migelen irudia nagusitzen da, *a candelieri* lanaz apaindutako bularreko koraza batez jantzia, lantza batez deabru beltz bat hiltzen. Ongiak Gaizkia garaitzen duela sinbolizatzen bide du. Albo banatan, San Joan arranoarekin eta San Lukas zezenarekin. Ezkerreko kale batean, San Jeronimo ageri da berriz, fatxadan ikusi dugun San Jeronimoren irudiaren antz handia duena (besteak beste, horretan oinarriturik, aditu gehienek uste dute Pierres Picart dela bietan, alegia, fatxadan nahiz erretaulan, lan egin zuen eskultorea).

Bigarren gorputzean, Andra Maria ageri da hamabi apostoluez inguratuta, Espiritu Santua etortzen den unean —kontuan izan horrek ematen diola izena Unibertsitateari—. Izan ere, erliebe horretan, Mariaren inguruan hamabi apostoluak bilduta daude, talde itxi bat osatuz; irudikatuta dauden horien guztien gainera uso bat ari da jaisten, Espiritu Santuaren adierazpen sinbolikoa, hain zuzen ere. Alboko kaleetan, San Markoren eta San Mateoren irudiek *Tetramorfosa* osatzen dute, haien azpian dauden San Joan eta San Lukasekin batera.

Hirugarren gorputzean, bost kale daude guztira. Erdiko kaleak Andre Maria Birjinaren zeruratztea du gai nagusi. Alboetan, San Sebastian eta San Gabriel goiaingerua ikusten dira alde batean, eta bestean, San Roke eta San Rafael goiaingerua.

Laugarren gorputza, arkitekturara egokitu ahal izateko, garaiera txikiagokoa da. Hor, On Rodrigo Mercado de Zuazola gotzainaren armarrria ageri da, honako idazpuru honekin: “*Sol iustitiae Xpo. Deus noster a solis ortu usque ad occasum*” (Jesukristo gure Jauna, Justiziaren eguzki, egunsentitik ilunabarrera).

Azkenik, erretaula osoa koroatuz, erdi puntuko arku handi baten barruan, Betiereko Aitaren irudia dago, serafinez inguratuta.

ERANSKINA

OÑATIKO UNIBERTSITATEKO FATXADAKO PILASTRETAKO IKONOGRAFIA

Soldadu bizardun baten soina	Santa martiria	Pertsonaia bizarduna (gorro-durbante-duma)	Pertsonaia bizarduna (lumadun kapeladuna)	Soldadu bizardun baten soina	Emakume baten soina	Gizonezko baten soina (makila)
Santa martiria	Santa martiria	Santa martiria	Santa martiria (liburuduna)	Santa martiria (liburua eta palma)	Santa martiria (liburua eta palma)	Santa martiria (liburua eta palma)
Santa Elena (gurutzea eta iltzeak)	Santa martiria	Santa martiria	Santa martiria (liburua eta palma)	Santa Ursula , (gezi bat eskuan dararamala)	Santa martiria (liburua eta palma)	Santa martiria (liburua eta palma)
Santa Katalina (liburua eta gurpil horzdu-na; azpian, erregea) (Filosofia)	Maria Magdalena (ukendu-ontzia)	Zuhurtzia (burezurra eta galbahea)	Justizia (ezpata eta balantza)	Santa Birjina Sortzez Garbia (azpian herensugea)	Santa martiria (liburua eta palma)	Santa Dorotea (saskia)
Lernako Hidra	Erromatar soldadua-ren eta lehoiaren arteko borroka	Kimera haur biluzia-rekin (gruteskoa)	Herkules eta Hesperidetak herensugea	Fedea (kaliza eta gurutzea)	Santa martiria (liburua eta palma)	Perseo Gorgona-rekin eta Gaizkia-rekin
				Santa Apolonia (liburua eta kurrikak)	Santa martiria (palma)	
				Neurritia-suna (ura ardoan botzatzen ari dela)	Santa Ursula , (gezi bat eskuan dararamala)	
				Itxaropena (eskuak elkartuta eta aingura)	Santa martiria (palma)	
				Santa Katalina (liburua eta gurpil horzdu-na; azpian, erregea) (Filosofia)	Santa martiria (palma)	
				Santa Barbara , (palma eta dorrea) (Teologia)	Santa martiria (palma)	
				Zentauroa Herkulesen emazte Deianira bahitzen	Santa martiria (palma)	
				Herkules Nemeako lehoia-rekin borrokan	Santa martiria (palma)	
				Herkules hegalduna Hidraren aurka borrokan	Santa martiria (liburua eta palma)	
				Perseo Gorgona-rekin eta Gaizkia-rekin	Santa martiria (liburua eta palma)	
				Perseo Gorgona-rekin eta Gaizkia-rekin	Santa martiria (liburua eta palma)	
				A <i>candelieri</i> egindako erliebea	Santa martiria (liburua eta palma)	
				Alexandro Handia (zaldira gainean)	Santa martiria (liburua eta palma)	
				Herkulesen eta Anteoaren arteko borroka	Santa martiria (liburua eta palma)	

A T E A

Donostia barrokotik
Donostia neoklasikora

6

1. DONOSTIA XVIII. MENDEKO LEHEN HAMARKADETAN

1.1. Testuinguru Historikoa

XVIII. mendean zehar eta XIX. mendearen hasieran, Donostiak berebiziko gorabeherak bizi izan zituen, batzuetan alde eta besteetan kontra. Horrela, eta aditu batzuen ustean, XVIII. mendea urrezko aroa izan zen Donostiarentzat; ikusi besterik ez dago Santa Mariaren basilikaren handitasuna. Aitzitik, mende horren bukaeran, etengabeko gerra eta inbasio-garai bati eman zitzaion hasiera.

XVIII. mendearen hasieran, Espainian dinastia-aldaketa bat gertatu zen. Izan ere, 1700. urtean Karlos II. arekin bukatu zen Habsburgoko edo Austriako etxearen ondorengotza Espainiako tronuan, ondorengo zuzenik gabe hil baitzen. Hil aurretik, Karlos II. ak Anjouko dukea izendatu zuen oinordeko, Espainiar Inperioko lurralde guztiak desegiten utziko ez zuelakoan. Anjouko dukea, gerora Espainiako Filipe V.a izango zena, Frantziako Luis XIV. aren biloba zen. Izendatze horrek gerra zabal bat piztu zuen, bai nazioartean, bai Espainia barnean, ezin baitugu ahaztu Karlos artxidukeak ere (Austriako Habsburgoko etxekoa eta Jose I.a enperadorearen anaia), Espainiako tronura iristeko asmoa zuela. Euskal lurraldeek Filipe V. aren alde egin zutelako, Borboi dinastiako lehen errege horrek foruak bere horretan mantendu zituen. Ondorengotza Gerrak ez zuen Gipuzkoan oihartzun berezirik izan, ez bada Anjouko Filipe bera eta haren gudarosteak handik pasatu zirela. Utrechteko Itunak ekarri zuen bakea Europara 1713. urtean, eta Frantziaren eta Austriaren arteko tirabirak konpondu egin ziren. Espainiak, berriz, Europan zituen hainbat domeinu galdu zituen, hala nola Flandes, Napoli, Milan, Sardinia, Sizilia, eta bigarren mailako potentzia bilakatu zen.

Askoz eragin handiagokoa izan zen Donostiarentzat urte gutxira piztu zen beste gerra bat. Izan ere, gerra berri horri Elisabet Farnesek, Filipe V. aren bigarren emazteak, eman zion hasiera, Italian galdutako zenbait domeinu eskuratu nahi izan zituenean, bere semeak lurralde horien agintari bihur zitezten. Baina Elisabet Farnesen nahi horrek Austriako interesekin egin zuen topo. Horrenbestez, tropa espainiarrek Sardinia eta Sizilia hartu zituztenean, Austriak, Britainia Handiak, Frantziak eta Holandak Elkarte Laukoitza osatu zuten Espainiaren aurka. Gerra hori zela eta, Frantziak Berwickeko dukea bidali zuen Espainiara, eta, 1719an, muga zeharkatu zuen Beratik. Irun, Hondarribia eta Hernani hartu ondoren, Berwickekoak setioa jarri zion Donostiari. Hirian sartu zenean, donostiarren ondasunak, libertateak eta burujabetza errespetatu zituen. Halere, odol-isurketarik egon ez arren, frantsesek txikizio handiak egin zituzten Donostian.

Ekonomiari dagokionez, historialari gehienek ustean, XVII. mendearen erdialdea ezker, merkataritzak krisi handi bat izan zuen, eta donostiarrek beren aberasbideen oinarriak kolokan ikusi zituzten. Horrela, ordu arte erabili zituzten merkataritza-bideek behera egin zuten, besteak beste, Nafarroako eta Aragoiko artzainak artilea, aurreko mendean Donostiako portutik bideratzen zena, Baionaraino hasi zirelako lehorretik eramaten (Ez ahaztu Bilboko portuak Gaztelako artile merinoaren esportazioa beretzat bakarrik hartua zuela; are gehiago, merkataritza-bide hori bermatuagoa gelditu zen Urduñako pasabidea ireki zutenetik). Horretaz gainera, 1688. urtean, gazteluko bolbora-gordelekua lehertu egin zen, eta horrek Donostian kalte handiak eragin zituen.

XVII. mendearen bukaeran eta XVIII.aren mendearen hasieran, Donostiak zituen nahas-mendu eta gorabehera handien aurrean, zenbait merkatarik donostiar hainbat aberasbide sortzen ahalegindu ziren: lehenik, 1682. urtean, Kotsuletxe eta Kontratazio Etxea sortu zuten, merkataritza suspertzeko asmoz; bigarrenik, 1705. urtean, erakunde hori izan zen lortu zuena probintzia osotik Ameriketarako merkataritza Pasaiaiko portutik bideratzea, Donostiak baitzeukan beretzat bakarrik hartua ur haien jabetza eta eskubidea. Bestalde, Donostiako merkatarik ez zeudela geldirik ikusteko, gogoratu besterik ez dugu 1715. urtean plaza berria egiten hasi zirela edota 1718an udaletxe berriaren planoak taxutzeari ekin ziotela. Baina zalantzarik gabe, merkatarik adoretu haiek bultzatu zuten eginkizunik erabakigarriena eta Donostian ondorio gehien eragin zituen Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra sortzea izan zen.

XVIII. mendean, Amerikako ekonomiak susperraldia izan zuen, eta hori dela eta, Europaren eta Amerikaren arteko merkataritza-harremanak ugalduz joan ziren, nola legezkoak, hala kontrabandoaren bitartekoak. Itsasoz haraindiko merkataritza-harreman guztiak, lehenengo, Sevillatik, eta gero, 1717. urtea ezker, Cádizetik bideratu behar ziren nahitaez, hango Kontratazio Etxeak baizik ez baitzituen ematen Amerikarekin salerosketan aritzeko behar ziren baimenak. XVIII. mendeko Borboi dinastiako errege espainiarrek kolonietako merkataritza merkatarik-elkarte modernoak sortzea bultzatu zuten. Abagune horretaz baliatuz, merkatarik gipuzkoarrak berehala ohartu ziren Amerikako portuekin tratuak zuzenean egin behar zituztela, salgaien prezioak merkeagoak aterako zitzaizkiekeelako han zuzenean erosita, Cádizen erosita baino.

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra donostiar merkatarik eta dirudun talde batek sortu zuen 1728an. Hartara, Holandako eta Ingalaterrako *Ekialdeko Indietako Konpainia* eredutzat hartuta, akzioen bidezko merkatarik-elkarte moderno bat sortu zuten. Konpainia horren xedea Venezuelarekin merkataritza-harremanak garatzea zen, eta Gipuzkoa merkataritza-zirkuituetan sartzea. Konpainiak errege-titulua jaso zuenean, kakaoa saltzeko eta Venezuelako kostaldeko pirateria eta kontrabandoa eragozteko monopolioa eskuratu zuen. Ondorioz, Sevillak eta Cádizek itsasoz haraindiko merkataritzan zuten monopolioa galdu egin zuten. Konpainiak Venezuelara urtean bitan bidal zitzakeen salgaiz betetako bi ontzi. Behar izanez gero, fragata handiz osatutako ontzidi baten babesia izaten zuen. Urte onak eta oparoak eman zituen horrela, eta hark utzitako ondareetakoak izan ziren, besteak beste, Paisaiako portuaren nagusitasuna, Deba bailarako arma-industrien garapena edota Andre Mariaren basilikaren zaharberritze-lanak. Urte batzuen buruan, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren gainbehera hasi zen, hainbat zioengatik: konpetentzia handiagoa egin zelako, prezioek behera egin zutelako edota Venezuelako krioioloak aurka egiten hasi zirelako. Azkenean, 1778an, Filipinetako konpainiarekin bat egin behar izan zuen.


1.2. Sutearen aurreko Donostiaren hiri morfologia

XV. mendean Donostiak hartu zuen tankerak 1813ko sutera arte funtsean bere horretan iraun zuen, mendeetan zehar aldaketa batzuk gertatu baziren ere. Azter dezagun, beraz, Donostiaren itxura Aro Modernoan zehar, alegia, 1813. urtean erre zen arte.

Donostiaren kokalekuari dagokionez, esan beharra dago honako elementu natural hauek mugatu zutela lehen gunea: Urgull mendiak, iparraldetik; Kontxako badiak, mendebaldetik, eta Urumea ibaiaren bokaleko padurak eta hondartzak, ekialdetik. Beraz, hegoaldea zen alde-rik ahulena hiriko defentsari begira.

Donostiari buruzko lehenengo aipamenean arabera, Donostia, hasieran, gaur egungo Miramar jauregia kokatuta dagoen lekuan egon bide zen (gaur egungo Antigua auzoan). Izan

ere, Nafarroako Antso III.ak Leireko monasterioari egin zion dohaintzan (1014), San Sebastiani eskainitako monasterio txiki bat aipatzen baita, hain zuzen ere, Antigua alde horretan. Halaber, dokumentu berberean, beste kokaleku bat ere aipatzen da: Yzurun. Azken hori kokaleku bat, *fondako* bat, izan bide zen, jatorriz gaskoiak ziren arrantzaleek eta itsas merkatariek Urgull mendiaren oinpean sortua (kontuan hartu oso ohikoa izaten zela XI. mendeko Europar horrelako *fondako* edo merkataritzarako trukaketa-lekuak sortzea). Garai ilun horien ondoren, zalantzarik gabe aipa daiteke Donostiak Nafarroako errege Antso VI.a Jakituna duela sortzaile, horrek eman baitzion hiri-gutuna (1180), hiribildu izendatuz. Harrezkero, Donostiako hirigunea egungo parte zaharrak duen eremuan zabaldu zen.



Jatorritik Donostia gotorleku-hiria izan bazen ere, XV. mendea ezker, zuen funtzio militarra nabarmenagoa izan zen, kontuan hartuz Austriatarren Inperioren baitan zegoela eta, beraz, Frantziatik etor zitekeen inbasioren baten aurrean, lehen defentsa-lerro batean kokatuta. Defentsa-lan horretan, Errege-erregina Katolikoen agindupean, 1476. urtean, Erdi Aroko ingurune-hesia (garaiera handikoa, lodiera txikikoa eta almenaz josia), gotortu eta sendotu egin zen. Indartutako harresi zahar horrek dorreak han-hemenka eta zazpi ate zituen, eta haietatik bi besterik ez zituzten egunero irekitzen: lehorrekoa eta itsasokoa. Gauetz itxi egiten zituztenez, harresi barruko Donostia harresiz kanpoko Donostiarekin ezin komunikaturik gelditzen zen.

Aro Modernoan zehar, pixkanaka-pixkanaka hurrengo erregeek ere hobetu egin zituzten hiribildua gotortzeko lanak. Hori horrela, XVI. mendean, Karlos enperadorearen garaian, honako hauek izan ziren harresi berrietako lan garrantzitsuenak: kubo inperiala, 1520an eraikia lehorreko atearen ondoan, eta Urgull mendian artilleriarentzat eraiki ziren plataformak, Urumearen bokaleari begira. XVII. mendean bigarren erdialdean, orobat, Hogeita Hamar Urteko Gerra zela eta, San Felipe eta Santiago edo Gobernadorearen baluarteak eta, erdian, hornabekea eraiki ziren.

1744. urteko Donostiako oinplanoari erreparatzen badiogu, aise ohartuko gara, Erdi Aroa ezker, hiribilduak zuen trazadura ortogonal (bastida itxurakoa) bere horretan ziruela.

Halatan, harresi barneko hirigunearen egitura honako hau zen: iparraldetik hegoaldera, Urgull mendiaren magala eta lehorreko atea lotuz, bederatzi kale zihoazen: Zurriola, San Bizente, (eliza osteko kalea), San Joan, (San Nikolas atakarekin), Narrika, (Errukia atearekin), San Jeronimo, (izen bereko atearekin), kale Nagusia, (Arimen atearekin), Kanpandegia, Aingeru eta Mari; zeharka, berriz, sei kale: Santa Korda, Trinitatea, Iñigo (plazak bitan banatua), Poyuelo (ekialdeko merkataritzako gunea eta mendebaldeko portu aldea zuzen lotzen zituen bakarra), Esterlines, eta Enbeltran kaleak. Kaleak estuak ziren, horietako batzuek lau metroko zabalera besterik ez zuten, harresiak mugatutako espazioa ahalik eta gehien aprobetxatzearen.

Donostiako etxe gehienak etxe luzangak edo herri xehearen etxeak ziren. Etxeak, alde bate-tik bestera, zortzi metro zabal ziren eta hamabi metro luze. Beheko solairua harrizkoa izaten zen, eta bertan egoten ziren ataria, artisautza-tailerra, denda, ukuilua eta eskorta. Goiko solairuak, berriz, adreiluzkoak izaten ziren, egurrezko egiturarekin eta etxebizitzarako erabiltzen ziren (sukaldea eta logelak). 1489. urteko sutearen ondoren, Errege-erregina Katolikoek harriz berreraikitzeke agindu arren, jende apal askok ezin izan zuten agindu hori bete, harria oso garestia zelako, eta etxeak adreiluz eta egurrez egiten jarraitu behar izan zuten. Bestalde, biztanleria ugaritzeak etxeen altuera igoarazi zuen, bi solairutik hiru solairura, eta herri xehearen etxeak ere luzeran zatitu egin ziren; harrezkero, lau metroko fatxadako etxeak, kalerantz bi gela besterik ez zituztenak, nagusitu ziren. Donostiako oligarkia, aldiz, harrizko jauregietan bizi zen (ospe handikoa izan zen, esate baterako, Idiakenez familiakoa kale Nagusian).

Hirigunearen mugakide ziren auzoak —Santa Katalina, San Martin eta Antigua—, babeserako ingurutzat hartu zituzten agintariak, eta, beraz, hango etxeak adobez eta zurez baizik ezin zitezkeen eraiki, etsaiek harria aprobetxa ez zezaten.


Harresi barneko hirigunean, badira hainbat plaza ere. Guztietatik, bi izan ziren garrantzi gehien izan zutenak donostiarren bizimoduan: Plaza Zaharra, 1489an sortua, eta Plaza Berria (egungo Konstituzio plaza). Lehena, XV. mendearen amaieran egin zen, sute batek Donostia erre ondoren. Enbeltran kalearen eta harresiaren artean zabaldu zen plaza horretan, donostiarrek auzo-bizitza egiten zuten eta jendarteko harremanak izaten zituzten XVI. eta XVII. mendeetan. Plaza Berria, berriz, XVIII. mendeko berrikuntza nagusia izan zen, zalantzarik gabe. Hori eraikitzeke, makina bat gorabehera izan ziren: auziak, orubeak erosi beharra... Berwickeko duke frantses militarrek Donostia menpean hartu zuenean, eraikuntza-proiektu haiek bertan behera gelditu ziren. Azkenean, alde egin zuenean, obrak berriz abian jarri ziren. Hércules Torrelli izan zen Plaza Berriaren eta Udaletxearen trazak taxutu zituena. Heldu zaizkigun irudien arabera, esan daiteke Udaletxea, zinez, eraikin barroko bikaina zela. Plaza Berriaren oin angeluzuzena herritarren joan-etorrietarako eta solasaldietarako egokiagoa zen Plaza Zaharra baino, ez baitzegoen militarren edota gurdien mugimendurik. Handik gutxira, plaza bera zezen-plaza gisa erabili zuten.

1.3. Koruko Andre Mariaren Basilika

Gure garaietaraino heldu den Andre Mariaren basilika dagoen orube horretan bertan, Birjina Mariari eskainitako beste eraikin batzuk egon bide ziren lehenago: bata erromanikoa, eta bestea, gotikoa. Beraz, jatorriari begira, Donostian gaur egunera arte iritsi direnetan zaharrena da aztergai dugun eliza. Eliza gotikoak sekulako kalteak izan bide zituen, 1688. urtean gatzeluko bolborategiak eztanda egin zuenean. Horren aurrean, XVIII. mendearen erdialdera, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra fundatu zuten zenbait donostiar merkatarik eliza berri bat eraikitzea erabaki zuten.

Lehenengo lanei 1743. urtean eman zieten hasiera, Pedro Ignazio Lizardi eta Miguel Salezan arkitektoen zuzendaritzapean. 1755. urtea ezker, berriz, Francisco de Ibero arkitektoak zuzendu zituen lanak. Elizaren inaugurazio ofiziala 1774. urtean egin zen.

Eraikinak euskal gotikoak horren berea zuen areto-oinplanoa du (jakinaenez, estilo horrek elementu errenazentistak eta jatorri gotikoa zutenak nahastuta zituen). Beraz, Euskal Herrian XVI. mendea ezker eraiki ziren hainbat elizatako espazioaren kontzeptuari darraio irmo Koruko Andre Mariaren elizak (eliza horietan, espazioaren batasun osoa bilatzen zen). Eraikinak hiru nabe eta lau tarte ditu; horretaz gainera, burualdea abside erdizirkularraz eta beste bi gelaz ixten da. Esandakoengatik, zabalera handiko orubea behar zen, eta hori lortzearentzen, honako espazio hauez baliatu ziren: ordu arteko eliza gotikoaren Santa Marta izeneko klaustroaz, eta erosi eta eraitsi behar izan zituzten alboko etxe batzuek.



Halaber, eta eraikinaren altxaerari erreparatzen badiogu, ohartuko gara euskal gotikoari dagozkion hainbat ezaugarri jakin errepikatzen direla: altuera bereko hiru nabe, erdikoa zabalera handiagokoa; pilare oktogonal erraldioen bidez eutsitako gotiko gardunaren araberako gurutze-gangak, zeinek nerbio diagonalak, tertzeleteak eta giltzarriak dituzten (jorienak, lehen tartekoak dira); gangen alboetako zamari eusteko, harlandu sendoz egindako hormak, barnealderantz dituzten horma-bular lodiekin indartuak; zutoin-arkurik ez izatea, alferrekoak baitira nabeen garaieren artean alderik ez badago; baogune gutxiko hormak (dauden angeluzuzen-formako hamahiru leihoetatik, hamarrek besterik ez dute argia pasatzen uzten).

Arestian aipatutako ezaugarri horiek guztiak, esan bezala, euskal gotikoari dagozkionak dira. Halere, badira beste bereizgarri batzuk barrokoaren estetikarekin bat datozenak: petxinen bitartez eusten zaion kupula ikusgarria, gurutzadura estaltzen; pilastra konposatuak itsatsita dituzten pilare oktogonalak, bakoitza taulamendu batez koroatua —ohartu taulamendu horietan hain irtenak dauden erlaitzek zer-nolako argi-itzalen jokoak eragiten dituzten—; eliza guztian barrena taulamendu jarraikor bat, hau ere erlaitza irtenarekin, gurutze-gangen arkuak eta nerbioak bermatu ez ezik, joritasun barrokoa ere azpimarratzen duena. Begi-bistakoa da, beraz, osagai horiek guztiek itxura barrokoa ematen diotela elizari.

Fatxadari dagokionez, erdiko aldea sartua ageri da ganbeltasuna markatzen duten oin karra-
tudun bi kanpandorreren artean. Bi dorre horiek fatxadatik bereizten dira eta hiru gorputzez
osatuta daude. Harlanduen zizelkatzea hain da fina, ezen harriaren aparejua ere ez baita
igartzen. Fatxadaren beste gainerako aldeetan, barroko-rokokoak horren bereak zituen efektu
eszenografikoak antzematen dira, honako elementu hauetaz baliatuz: alde ahurren eta ganbilen
arteko kontrasteak, dekorazio oparoak, erliebeak eta eskulturak egokitzeko horma-hobiak, forma
bihurri eta biziak, frontoi hautsiak, hormatik bereizitako zutabeak, argi-ilunen efektuak... Bestalde,
fatxada hori, kale Nagusiaren perspektibaren arabera norabideratua, honako ardatz honen
inguruan egituratzen da: sarrerako horma-hobia, okulu eliptiko bat, San Sebastianen irudia
duen horma-konka, erlojua eta hiriaren armarrria, hurrenez hurren. Horiek guztiek fatxada bi
alde berdintsutan banatzen dute, simetriaren arauari jarraituz.



Sarrera, horma-hobi ahur gisa itxuratua, apaingarri rokoko beteta dago. Rokoko estiloa
funtsean dekorazio-estiloa zen, apaindura handikoa eta elementu naturalista asko erabiltzen
zituena. Estilo horretan, gain-dekorazio lerromakurra eta faza handia nagusitzen zen, behin eta
berrero *Rocaillea*, ornamentu ñimiñoa eta apetatsua, errepikatuz. Hortaz, hormak, zutabeak,
taulamenduak, elementuak oro *rocaillez* josita daude. Hor bertan, eite barrokoa duten hiru
irudi ageri dira: Santa Ana, Ama Birjinaren ama, eta San Joakin, aita, biak erdian dagoen Andre
Mariari begira. Irudien aurpegieren adierazkortasunak, gorpuzkeren mugimenduak edota
tolesturen argi-ilunen jokoek, ederki asko erakusten dizkigute estilo barrokoaren ezaugarriak.
Sarreraren gainean, aitasantutzaren ikurrak ageri dira okulu eliptiko baten barruan. Ondoren,
Migel Anjelen *Esklaboak* eredutzat hartuta, egindako San Sebastianen irudia, geziz zauritua,
horma-konka baten barruan dago. Irudi horretan, *contrapostoa* era bortitzean erabili zen
sufirimendua adierazteko. Azkenik, okulu biribil batean sartuta dagoen erlojuaren gainean,
frontoiaren erpinean hiriaren armarrria dago, harri polikromatuz egina.

2. DONOSTIA ILUSTRATUA ETA NEOKLASIKOA

2.1. Testuinguru historikoa

A) Ilustrazioaren pentsamoldearen eragina

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendeko lehenengo hamarkadetan, pentsamolde ilustratuarekin batera zabaldu zen neoklasizismoa. Ilustrazioa oso mugimendu garrantzitsua izan zen Gipuzkoan, gizartea sakon eraldatzeko aldaketak egiten saiatu eta lan egin zuelako. Ilustratuek alde batera utzi zuten dogmetan eta sinesmenean oinarritutako kultura, eta garrantzi handiagoa eman zioten garapen zientifiko eta teknikoari. Mugimendu hori gutxi batzuek bultzatu zuten (gehienetan, gizartea eta ekonomia aldatzearen alde zegoen burgesia), eta behin baino gehiagotan kontra egin zieten tradizioari lotuta bizi ziren Elizak, zeinak arrazoiaren aurrez aurre dogmak jartzen baitzituen, eta gizartearen gehiengoak.

Espiritu ilustratu hori Gipuzkoan RSBAP edo Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen bidez bideratu zen. Izan ere, elkarte hori Peñafloidako konde Xabier M. Munibek sortu zuen 1765. urtean; Azkoitian zeukan jauregian biltzen zirela eta, Azkoitiko Zalduntxoak ere deitu zieten. Arestian aipatu bezala, teknikaren eta zientziaren aurrerapenak hedatzen ahalegindu ziren, heziketaren bidez. Horretarako, Bergarako Errege Mintegia sortu zuten, non kimika, mineralogia, metalurgia, merkataritza, arkitektura, politika, etab. irakasten zen. Letretan eta zientzietan nabarmendutako irakasle ugari aritu ziren bertan: Samaniego, Elhuyar anaiak, etab. Azken hauek wolframioa izeneko elementu kimikoa lehen aldiz isolatu zuten, kobrea lortzeko prozedurak aztertu zituzten eta Somorrostroko meatzeak ikertu zituzten.

Donostiari dagokionez, gogora dezagun Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak diru laguntza eman ziola Donostiari Marrazki Eskola bat abian jartzeko. Halaber, Nautika Eskola bat ere irekitzen saiatu ziren, baina egitasmo hori asmo hutsean gelditu zen, gertatutako arazo ekonomikoak zirela eta.

B) Frantziako Iraultzak eta Napoleonen garaiak Donostian eragindako ondorioak

XVIII. mendearen amaieran, Donostian beherakada ekonomikoari hasiera eman zitzaion, hainbat ziorengatik: 1778. urtean, monopolioa zuten elkarte pribilegiatuen sistemaren ordez merkataritza-askatasuna jartzearen ondorioz, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra indargabetzeagatik, Donostiak Paisaiako portua galtzeagatik, Gipuzkoa frantsesen menpean gelditzeagatik eta Ingalaterraren aurkako gerrari ekiteagatik.

Arrazoi horietatik guztietatik, frantziar gudarosteen okupazioak eta arpilaketak izan ziren Donostian kalte gehien eragin zuten gertaldiak. Izan ere, Konbentzioaren Gerran eta Independentzia Gerran (Donostiako setioarekin eta sutearekin bukatu zena), kalteak itzelak izan ziren.

Frantzian 1789an hasi zen iraultzak eragin handia izan zuen Espainian. Gogora dezagun, Karlos IV.aren garaian, Frantzian izan ziren zenbait gertakarik —Monarkia Konstituzionalaren ezarpena, Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena edota Errepublikaren aldarrikapena, besteak beste— nahieza eta atsekabea eragin zutela beste monarkietan. Edonola ere, 1793ko urtarrilean, Luis XVI.a gillotinatzeak ez zuen beste irtenbiderik utzi, eta Europako gorteak gerrari ekiteko prestakuntzak egiten hasi ziren. Horrela, Frantziako Konbentzioak Espainiari gerra deklaratu zion 1793ko martxoan. Aldi berean, Karlos IV.ak Frantziari gerra deklaratu zion, eta Britainia Handiarekin eta Austriarekin aliatu zen.

1794an Frantziako armada Baztandik sartu eta Gipuzkoarantz abiatu zen. Hondarribia menpean hartu ondoren, Moncey jenerala Donostian sartu zen, inolako erresistentziarik gabe (zenbait adituren ustean, jarrera horrek Donostiako burgesia ilustratua iraultzaren alde zegoela erakusten du). Diputazioak bakea eta Espainiako monarkiatik bereiztea, alegia, Errepublika frantziarraren babespera pasatzea, negoziatu zituen frantsesekin. Konbentzioak ez zuen horrelakorik onartu, eta konkistatutako herrialdeei jartzen zieten erregimen bera jarri zieten. Hain da horrela, frantsesen okupazioak eta harrapaketak kalte handiak eragin zituela Donostian. 1795ean, Espainiako Koroak ikusterakoan Frantziak Gipuzkoa bere egin zezakeela, Basileako ituna sinatzea erabaki zuen. Itun horren ondorioz, Espainiak Frantziaren alde egin beharko zuen nahitaez, eta, beraz, Ingalaterraren aurka. Frantziaren eta Ingalaterraren arteko gerra haietan, Espainiak historiako porrotik handienak jasan zituen (gogoratu besterik ez dago Trafalgarrekoa, 1805ean).

1807. urtean, Fontainebleauko itunaren bitartez, Napoleonek eta Godoyk Portugal banatzea erabaki zuten, Portugal baitzen Ingalaterrak kontinentean zuen babesle nagusia. Beraz, armada frantsesak Iberiar penintsula zeharkatu beharra zeukan Portugalerako bidean. Baina, berehala igarri zitzaion Napoleoni Espainiako lurraldeak ere bereganatzeko zuen asmoa. Hartara, Frantziako armada, Murat jenerala buru, Madrilen sartu zen eta Independentzia Gerrari hasiera eman zitzaion.

Lau urtera, 1812ko udaberrian, Napoleonek soldadu ugari eraman zituen Espainiatik Errusiako frontera. Aldi berean, Wellington jeneral britainiarrak, Ingalaterrako, Portugaleko eta Espainiako hainbat troparen buru, gerrillari-taldeen laguntzaz, tropa frantsesak Penintsulatik bidaltzeari ekin zion. 1813. urtearen erdialdean, frantsesek aurre egin zioten Wellingtoni Gasteizen, baina, gataska hura galdu ondoren, atzeraka egin behar izan zuten.


Horrela, Espainiatik ihesi zebilen Frantziako armadari geratzen zitzaizkion azken hirietakoa zen Donostia. Hori babestearren, frantsesek artilleria indartu zuten eta 3.000 soldadu inguru gudurako prestatuak izan zituzten. Setioa uztailaren hasieran hasi zen. Ingelesak ohartu ziren hego-ekialdeko baluarte zela ahulena (Zurriolako hormarekin bat egiten zuena), eta beraz, aproposena handik bertatik sartzeko. Uste horretan, bi zulo egin zituzten han bertan, baina ezin izan ziren hirian sartu, frantsesek Behatokiko bateriatik gogor egin zitelako aurre. Horrelako batean, soldadu erasotzaileek lortu zuten haien helburua, eta abuztuaren 31n harresi barnera sartu ziren. Soldadu frantsesak gazteluan gotortu egin behar izan zuten egun batzuetan.

Tropa ingelesak eta portugesak Donostiari su eman zioten, kartutxo bidez. Abuztuaren 31ko gauean hiri guztia erre zen, San Bizente eta Santa Maria elizak, San Telmo komentua eta 36 bat etxe izan ezik (denak Trinitate kaletik gertu). Tropa erasotzaileek gupidarik gabe eraso zieten donostiarrei, eta hilketa, bortxaketa eta lapurreta ugari egin zituzten.


2.2. Sute ondorengo Donostiaren berreraiketa. Hiriaren taxuketa neoklasiko berria

Zubietako Aizpurua baserrian, bizirik geratu ziren donostiarrak elkartu eta Donostia aurreko leku berberean berreraikitzea erabaki zuten. Sortu zuten Berreraikitze Lanetarako Batzordeak Ugartemendia arkitekto andoaindarra, Madrilgo San Fernando Akademian prestatua, hautatu zuen hiri berriaren planoak trazatzeko. Arkitekto horrek bost hilabetera aurkeztu zituen planoen arabera, berreraiki behar zen hiriak honako itxura hau izango zuen: neoklasizismoak hain berea zuen trazadura ortogonala, angelu zuzenean mozturiko kaleekin; etxalde laukizuzenez osatutako bilbadura, etxe-lerrokadura zuzenekin; erdialdean, oin oktagonaleko

plaza handi bat, zerbitzu publiko guztiakin, nora zortzi kale bideratuko baitziren; itsasoko eta lurreko ateen aurrean beste plaza bana; Santa Maria elizaren aurrean beste plaza bat, erdizirkularra. Horiek guztiek itxura neoklasiko bikaina emango zioten, zinez, Donostiari.



Alabaina, orubeen jabeek ez zuten proiektu hori onartu, eta aurka jarri ziren aurreko orube-banaketa bera errespetatuz. Zenbait proiektu egin ondoren, azkenean, Erregearen Kontseiluak honako hau erabaki zuen: Gogortza alkateak egindako proiektua onartzea (proiektu horretan, kaleak eta etxaldeak lehengo tankeran diseinatuta zeuden), baina Ugartemendia izendatzea obren zuzendari. Ugartemendiak, Alejo de Mirandarekin elkarlanean, bere horretan utzi arren hiri zaharreko kale-trazadura nagusia, hainbat berrikuntza egin zituen: zoladuraren lautzea, uholdeak gerta ez zitezen hiriko behealdeetan —horretarako, aldapan zeuden kaleetako goialdeetatik (portutik alderik gertuenak), hiruzpalau metro lur kendu ziren, eta behealdeetan (merkataritzako gunetik gertuenak), berriz, beste horrenbeste jarri ziren—; kale zuzenen bidez, hiria modu ortogonalez eta geometrikoz itxuratzea —hori lortzearen, kale berri batzuk ireki zituen, hala nola Portu kalea edo Arrandegi kalea, eta beste batzuk, Kanpandegi kalea kasu, zuzendu egin zituen—; kalei zabalera handiagoa ematea, argitasuna errazago sar zedin etxeetan —horrela, osasuna ere hobetu egingo zen—; lehengo plazak zaharberritzea— Plaza Zaharra, lehorreko ate ondoan, arkupe batez hornitu zen, eta, Plaza Berriak, estilo neoklasiko peto-petoan trazatuak, lehengo plaza barrokoaren ordea hartu zuen—; plaza berriak irekitzea —Eskolen plaza edo Alhondigarena (egun Sarriegi plaza), Esterlines kaleko plaza edo Lasala plaza, horiek guztiak bilbe historikoari argitasun eta irekitasun apur bat emateko jarri ziren—; fatxada guztien estiloaren bateratzea —zokaloak, baoak, balkoiak, erlaitzak, teilatu-hegalak eta abar, elementu arkitektoniko horiek trazaketa erregularra ez ezik, Donostiako hiri historikoari ukazinezko batasun morfologikoa ere eman zioten—.



2.3. Donostiako arkitektura neoklasikoa

Neoklasizismo hitzak klasizismo berria esan nahi du. Jakina da ertilari neoklasikoek Antzinateko Greziako nahiz Erromako forma klasikoetara jo zutela eredu artistiko bila. Horren zergatia Ilustrazioak eragin zuen ikuspegiaren aldaketan datza, pentsalari ilustratuek uste baitzuten Erdi Aroko artea —alegia, erromanikoa eta gotikoa— edota barroko-garaikoa balio erlijiosoen edota politikoen esanetara egon zirela, eta beraz, ez zirela egokienak gizarte aske batentzat. Horretaz gainera, estetika barroko-rokokoak, faltsukeriaren eta gehiegikeriaren sinonimoak, Antzinateko Erregimeneko klase dominatzailearekin egiten zuen bat, ilustratuen aburuz; aitzitik, kultura klasikoak ekonomikoki eta sozialki indartzen zihoan klase burgesaren ikuspegia erakusten zuen, eta jarrera etikoa eta pentsamolde arrazionala balioesten zituen. Arrazoi kartesia-



rra oinarri hartu zuen neoklasizismoa lehen arte mota izan zen, Antzinate klasikoa ezker, arkitektura zibila garatzen. Ezin da ahaztu, orobat, mugimendu horrek bokazio unibertsala izan zuela eta aldendu zituela tokian tokiko tradizioak eta sustrai kulturalak; horren ondorioz, forma klasiko bateratuak nagusitu ziren Europa guztian barrena.

Arkitektura neoklasikoa, arrazionaltasunaren eta formen arteko orekaren bilaketa hartan, estilo barrokoaren balioetatik urrunduz joan zen. Hartara, barroko-rokokoari zegozkion balio estetikoaren aurrean, estetika neoklasikoak beste honako balio hauek goretzi zituen: lerro zuzena, kurbaren orde; soiltasuna, konplexutasunaren orde; arrazoia, emozioaren orde. Horregatik guztiagatik, obra neoklasikoei ordena, harmonia, proportzionaltasuna eta hoztasuna darizkie.

Arkitektura neoklasikoaren berri hainbat ezaugarrik ematen digute: ortogonaltasuna —lerro bertikalei jarraituz antolatzen dira eraikinaren elementu sostengatzaileak (zutabeak eta hormak), eta lerro horizontalei jarraituz, berriz, elementu sostengatuak (taulamendua)—; oinplano erregularrak eta zentralizatuak —zirkularrak, karratuak, greziar gurutzekoak—; ordena arkitektoniko soilenen erabilera —toskanarra, nagusiki—; Greziako eta Erromako tenpluen arabera itxuratutako fatxadak —eraikinek beste hainbat funtzio bete arren, hala nola gliptotekak, museoak, liburutegiak, Naturaren Zientzien museoak...—; arkitektura zibilaren eta hirigintza arrazionalaren garapena —komunikabideak eta kaleak zehazki zehaztuak; oinplano ortogonalak, non plaza publikoek egituratzen duten espazioa; higieñez eta osasunaz ardura...—.

Donostiako Plaza Berria (egungo Konstituzio plaza) plaza barrokoa zegoen leku bereberean kokatu zen, eta haren orde, Ugartemendiak eta Mirandak estilo neoklasikoan itxuratutako beste plaza sotil, xume bat jarri zuten. Laukizuzen forma zuen plaza horretako lau aldeak zein bere aldetik tankeratu ziren, hainbat elementu arkitektonikoren bidez plazaren itxura bateratu bazen ere: bi solairuz osatutako arkupea, zeinak udaletxearen eta etxaldean behealde osoa inguratzen baitzuen; koloma-erdiak itsatsiak zituzten pilareen artean arkudun baogune handiak, hornei arintasuna ematen zietenak; taulamenduaren erlaitzak, balkoien mentsula-eusle bihurtuak; balkoi jarraituak, zezenak ikusteko alokatzen zirenak (hori da gaur egun ateburuek dituzten zenbakien jatorria) eta teilatu-hegalen jarraipena.

Silvestre Pérez arkitektoak proiektatu zuen udaletxe zaharra 1819an; arazo ekonomikoak zirela eta, obrak 1837arte ez ziren bukatu. Eraikin horretako lehenengo gorputzean, puntu erdiko bost arkuz osatutako arkupea dago, garaipen-arku erromatarra bailitzan. Arkupeak gainerako etxaldeetako arkupeekin bat egiten duenez, plazaren eitea bateratuta gelditzen da. Horren gainean, sei zutabe toskanar erraldoik fatxada osoa egituratzen dute, bi solairu balkoidun barne hartuz eta bost kaletan banatuz (beti bakoitia, konposizioaren ardatzarekiko alde biak simetrikoki eratzeko). Jakina denez, ordena toskanarra dorikoaren eitekoa da (kapitela ekinoz eta abakoz osatua), baina harroina du, eta fustea, lisoa. Elementu sostengatuetan, arkitrabea zirrindaduna ageri da; horren gainean frisoa dago, erabat lisoa eta soila, ez baitauka, ohikoak izan arren, ez trigliforik eta ez metoparik; azkenik, taulamenduarekin bukatzeko, euritik babesteko eta horizontaltasuna azpimarratzeko, erlaitza irtena nabarmentzen da. Eraikuntza errematatzeko, okulu baten barruan erloju bat eta erpinean hiriko armarrria daude.

*Donostia liberala:
Kortazar zabalgunea
eta arkitektura historizista*

7

1. TESTUINGURU HISTORIKOA

XIX. mendearen erdialdea ezkerro, Donostiak sekulako aldaketa izan zuen; urte gutxiren buruan, hiri gotortu eta mugatu hura hiri ireki eta kosmopolita bihurtu zen, honako arrazoi hauek eraginda:

- 1841. urtean barne-aduanak behin betiko kostaldean jarri zirelako. Gogora dezagun barne-aduanak kostaratu zirela Lehen Gerra Karlista amaitu ondoren. Izan ere, Bergarako Ituna sinatu (1839) eta bi urtera, euskal probintziak matxinatu egin ziren, progresistek eskubide foralen aurka hartutako erabakiengatik. Matxinadari horri erantzunez, Esparterok, beste neurri batzuen artean, barne-aduanak kostaldera eramatea dekretatu zuen. Neurri horren ondorioz, Donostiako burgesiak ez zuen trabarik izan salgaiak estatu guztian saltzeko, euskal lurraldeak estatu liberalean erabat txertatuak gelditu baitziren. Hartara, Donostiako merkatariek irabazi handiak atera zituzten, eta, horrela, Donostiak bultzada ekonomiko nabarmena izan zuen.
- 1847. urtean, Irunetik Andoainera zihoan errepidea inauguratu zelako. Ordura arte, Donostiako komunikabideak desegokiak ziren eta *Erret Bide* nagusitik baztertuta zegoen, bide hori Tolosan, Andoainen, Hernanin eta Astigarragan barrena baitzihoan. Hartara, Madriletik edota barnealdetik zetozenentzat, Donostiara sartzeak trabak eta oztopoak besterik ez zekarren, bidea ez baitzen batere egokia. Hori konpontzeko, Donostiatik bertatik igarotzen zen errepidea egin zen, eta horrela, Donostiako merkataritzak eta industriak susperraldi nabaria izan zuten.
- 1856an, Donostia Gipuzkoako hiriburu izendatu zutelako. XIX. mendea arte, Gipuzkoako hiriburua txandako sistemaren bidez izendatzen zen, txandak Donostiaren, Tolosaren, Azpeitiaren eta Azkoitiaren artean eginez. Behin gobernu liberalak hiriburu finko bat jartzearen alde azaldu zirenean, Donostiaren eta Tolosaren artean lehia gogorra piztu zen, ea hiriburu zein izan. Horrela, Tolosa, 1854 eta 1856 bitartean, Gipuzkoako hiriburu izan ondoren, Donostia aukeratu zuten hiriburu. Hori zela bide, Donostiak abantaila handiak atera zizkion hiriburu izateari, lurralde horretako erakunde ofizialen, bulegoen eta zerbitzuen egoitza bihurtu baitzen.
- 1864. urtean, Paris-Madril trenbidea egin zelako. Zalantzarik gabe, trenbidea izan zen Donostiara jende gehien bideratu zuen komunikabidea. Trenbide hori 1864. urtean inauguratu zenez gero, Donostiara zetorren bidaiarien kopurua ugartu egin zen, alde bateatik, bidaiak ez zirelako horren nekagarriak eta bestetik, merkeagoak zirelako lehenago gurdiz egiten zirenak baino. Norteko geltokia eraiki zen Donostian bertan, joan-etorriak errazteko.
- Donostia Espainiako errege-erreginen udako egoitza bihurtu zelako. Isabel II.a 40ko hamarkadan Donostiara etortzen hasi zen, medikuek agindutako itsas bainuak hartzera. Edonola ere, Alfontso XII.aren alargun M^a Kristina Habsburgo-Lorrenakoa izan zen Donostia monarkiaren udako egoitza ofiziala izendatu zuena. Hori horrela, 1888an, udalak Miramar tontortxo eskaini zion udako egoitza han eraikitzeko. Gortea erreginarekin batera etortzen zen, eta tarte horretan, Donostia izaten zen Espainiako hiriburu. Horrek sekulako goraldia ekarri zion Donostiar, turismoak gero eta indar handiagoa hartu zuelako, bultzada horri esker.
- Jende-etorrera handiak egon zirelako. 1860. urtean, Donostiak 14.000 lagun inguru zituen, zeinetatik 9.000 bat harresiaren barruan bizi ziren, estu eta metatuta. Esparru horretan, hainbat maila sozialetako bizilagunak bizi ziren: artisauak, merkatariak, neskameak, morroiak... Harresitik kanpo, berriz, San Martin eta Amara auzoetan, gehien

bat herri apala bizi zen. Arazoa gero eta larriagoa bihurtzen ari zen, harresiaren barruko biztanleek ez baitzuten behar adina leku bizi izateko edota negozioak abian jartzeko.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, Donostiarrek hiriak zuen eremu estetik askatzea eta zabaltzea nahi zuten. Izan ere, harresiz inguraturik zegoelako, ez zuen industria, merkataritza edota turismoa garatzeko aukerarik, harresiaren barruko esparruan ez baitzegoen lekurik. Hartara, XIX. mendearen erdialdera, Donostia harresiak botatzeko eta zabaltzeko premia larrian zegoen.

2. DONOSTIAKO ZABALGUNEA

1863. urtean argitaratutako errege-agindu baten bidez Donostiari harresiak eraisteko baimena eman zitzaion. Baimen horrek abian jarri zuen alde berri bat eraikitzeako proiektua, alegia, zabalgunea.

Zabalguneak XIX. mendean sortutako espazio berriak dira, burgesiarentzat bizitegi-esparru berriak eraikitzea helburu zutenak. Espazio horietan, klase sozial horrek horren bereak zituen asmo hauek islatu ziren: ordena (plano erregularra), higiena (zoladura, estolderia, espazio berdeak eta uraren hornikuntza) eta etekin handiak lortzea. Zabalgune horiek zenbait ildoren arabera taxutu ziren Europa guztian barrena: harresien eraispena —defentsa-funtzioa alde batera utzita, harresiak hartzen zuen lekua ingurabide-kale edo pasealeku bihurtu zen gehienetan, eta hiri askotan erronda edota *boulevard* izena hartu zuen—; sare ortogonal planifikatu baten arabera hiri-antolamendua —zabalguneek koadrikula itxurako plano erregularra daukate, alegia, morfologia ortogonal, eta bide-trazadura erregularra (kaleak zuzenak dira eta elkarzut gurutzatuak, trafikoa bideratzeko kale diagonalak izan ezik)—; barne-patioa daukaten etxadietan oinarritutako eraketa —hasieran, etxadiak irekiak eta berdegunez hornituak baziren, laster itxi ziren, espekulazioaren eraginez, eta patiodun etxadi bihurtu ziren—; errenta altueneko familien nagusitasuna —agindupekoak burgesen etxeetako sotoetan, teilatupetan eta patioetan bizi izaten ziren—; negozioetara, salmenta oso espezializatuko merkataritzara eta finantzetara bideratutako ekonomia-jardueren lehentasuna —lantegiak eta fabrikak aldirietara baztertu ziren—.

Zabalgunerik garrantzitsuenak XIX. mendearen bigarren erditik aurrera eraiki ziren industrializazio-prozesuarekin batera. Cerdák Bartzelonarako diseinatu zuen zabalgunea eredu izan zen hainbat hirirentzat. Horrela, Cerdáren plangintzaren ildoei jarraituz, Donostiako agintariek zabalgunea bat eraikitzeako proiektuen lehiaketa zabaldu zuten. Aurkeztu ziren hamabi proiektuetatik, udalak Antonio Kortazarrek egindakoa hautatu zuen aho batez, baina Martín Sarasibarrek aurkeztutako bigarren geratutako proiektutik, ideia batzuk ere aintzat hartzea erabaki zuen (gehien bat, Alde Zaharra eta Zabalgunearen arteko lotura).

1864. urtean Donostiako harresiak eraitsi zituztenetik 1910. urtera, hiriak bi zabalguneez aldi izan zituen: lehenengoak hamar urte iraun zuen (1864-74), lanak abian jarri zirenetik Bigarren Gerra Karlista arte. Kortazarrek proiektatutako planoek muga hauek zituen esparrua itxuratu zuten: Bulebarra iparraldetik, Askatasunaren hiribidea hegoaldeko, Okendo kalea ekialdeko eta Hernani kalea mendebaldeko. Hor, 177 lursailetan eraikitako etxeak, lauzpabost solairukoak egin ziren, batez ere bertako burgesiarentzat. Itxura uniforme, neurrikoa eta dotorea zuten eraikin horiek estilo neoklasikoari jarraitu zioten (Isabel II.aren garaiko neoklasiko isabelinoa, horrela deitua beste Ilustrazioaren garaiko neoklasizismotik bereizteko), eta Pariseko arkitekturaren eragin nabarmena zuten. Beraz, esan genezake Kortazarri zor zaiola lehenengo zabalguneez itxura neoklasikoa, Alde Zaharreko estilo nagusiarekin lotura fisionomiakoa egiteko baliabide eztabaida ezina. Bestalde, etxe dotore horiek, itxiak eta patio bat zutenak



erdian, luze-zabaleran 300 bat metro koadro inguru zuten (apalenak, 80 bat metro koadro). Alde horretako lanik aipagarrienak, Bretxako azoka (1871), Santa Katalina zubia (1872), eta Gipuzkoa plazako etxeak (1867-1882) izan ziren.

1889. urteko ordenantzetan oinarritu zen bigarren zabalgunee-aldian, berriz, esparru hauek eraiki ziren: Ekialdeko zabalgunea; Prim kalea (Urumearen ezkerreko aldean egina, ibaiari eusteko horma egin ondoren); Bilbo plaza edota katedraletik Amara aldera arteko etxeak. Alde horretako eraikinetan, Goikoa arkitektoak ezarritako estilo eklektikoa eta modernista nagusitu ziren. Amarako eskolak (1893), Diputazioko Jauregiaren fatxada (1879-1885), Artzain Onaren plaza eta beste hainbat eraikinek haren estiloaren ezaugarriak daramatzate.

Desberdintasunak desberdintasun, Donostiako zabalguneeak itxura homogeen handia du, eta ezaugarri jakin batzuk dauzka:

- Alde Zaharra eta zabalguneearen arteko lotura. Behin harresiak eraitsi eta gero, Alde Zaharreko kale Nagusiari jarraipena eman zitzaion Hernani kalerantz luzatuz; horrela, ardatz erlijioso bat sortu zen Koruko Andre Mariaren basilikaren eta Artzain Onaren katedralaren artean. Bestalde, Alde Zaharretik zabalgunera doan tartea, gaur egungo Bulebarra, antolatzeke bi proiektu aurkeztu ziren: alde batetik, Kortazarrek aurkeztu zuenak Plaza Zaharra zegoen moduan uzten zuen, nahiz eta tarte horretan hainbat eraikuntza publiko diseinatzen zituen, hala nola aduana, antzokia, azokak... Bestetik, Sarasibarrenak lorategiz eta zuhaitzez hornitutako zumardi bat proposatzen zuen. Bi aukerabide horien artean ikaragarritzko demanda piztu zen, bi eredu ekonomiko aurkako zeudelako auzian: goi-mailako turismoari erabateko lehentasuna eman edo merkataritzari. Azkenean, zumardizaleak, Sarasibarren proposamena sutsuki defendatu zutenak, atera ziren garaile.

- Bilbadura ortogonalak. XIX. mendeko zabalguneen ereduak jarraituz, Donostiako zabalgunek ere bilbadura ortogonalak zuten. Hartara, kaleak zuzenak ziren eta batzuk bestekin elkarzut gurutzatzen ziren. Etxaldeek, itxiak eta patiodunak, ez zuten oketsik (Bartzelonakoak ez bezala) eta trazadurak ez zuten kale diagonalik, Kontxako badiaren eta Urumea ibaiaren artean tartea ez delako oso zabala. Zabalgunek honako plaza eta espazio ireki hauek zituen: Plaza Zaharra, lehengo lehorreko ate ondoan; Gipuzkoa plaza, non udaleko lorezain Pierre Ducassek erdiko lorategia diseinatu baitzuen; Alderdi Ederreko parke publikoa, lehen kanpo militarra zegoen aldean egina, eta Bilbo plaza, Goikoak biribila egin zuena, Kortazarren diseinuari jarraituz.
- Hiribideen hierarkizazioa: Askatasunaren hiribidea garrantzitsua zen zirkulazio-ardatzetan, hogeita hamabost metro zabal izateaz gain, Santa Katalina zubitik barrena Frantzia alderantz eramaten zuelako ere bai. Beste gainerako kaleak, berriz, estuagoak ziren, eta zabalaren arabera, hiru eratakoak bereiz zitezkeen: lehen mailakoak, hamabost-hogeita metro zabal zirenak; bigarren mailakoak, bederatzi-hamabost metro zabal zirenak; eta azkenik, estuenak, bederatzi metroko zabalera zutenak. Bestalde, Goikoa arkitektoak Prim kalea trazatu zuenean (behin Urumea ibaiari eusteko eta bideratzeko horma bat egin eta gero), zabalguneko ortogonaltasuna apurtuta gelditu zen, hiribide horrek diagonalak moztu zuelako zabalgunea.
- Azpiegituren eraikuntza. Donostiak hartu zuen lehen mailako izaera turistikoak eraginda, zabalgunea diseinatu zuten arkitektoak asko arduratu ziren higieaz eta hiriak behar zituen zerbitzuez. Higienari dagokionez, obrarik garrantzitsua etxeetako ur zikinak Zurriolako murreran zegoen estoldaraino bideratzea izan zen, itsaslasterrek zikinkeria eraman zezaten. Zerbitzu publikoetan, berriz, honako hauek dira obrarik aipagarrienak: Kasino Handia, bi merkatu (Bretxa eta San Martin), institutu bat, Artzain Onaren katedrala, antzoki bat, auzitegi bat, Amarako ikuzleku publikoa... Deigarria da, orobat, Kortazarren asmoa, portua eta Norteko geltokia bide estuko burdinbide batez lotzekoa, alegia; tren horrek, zabalgunea erdi-erdi zeharkatuz, merkataritzako harremanak erraztuko zituzkeen.
- Hierarkizazio soziala: Biztanleen arteko hierarkia sozialean (udatiarrak, donostiar aberatsak eta herri xehea) oinarrituta, Kortazarrek honako irizpide klasista hauen arabera banatu zituen hirien aldeak: burgesia udatiar aberatsarentzat, jauregitxoak jarri zituen hondartza inguruan, badiaren aurrez aurre. Hor, frantziar eraginpeko mansardak, ingeles estiloko begiratokiak edota tipula itxurako kupulak zituzten etxe dotoreenak zeuden. Donostiako burgesia, berriz, hirien erdialdean kokatu zuen, zabalguneko kale nagusietan, pasealekueetatik hurbil. Etxe sail handiak proiektatu zituen toki hartan, itxiak, eta erdian patio bat zutenak. Azkenik, Amara Zaharrea eta San Martin auzoan, zabalgunearen ertzetan, hain zuzen ere, herri xehea kokatu zuen; hori dela eta, auzo horiek hasieratik kutsu herrikoi handia izan zuten. Antzeman zitezkeen, halaber, mailaketa sozial bertikala, gizartearen egitura solairuen arabera islatzen baitzen. Hartara, lehen solairuko etxebizitzak garestienak eta ederrenak izaten ziren, eta gora igo ahala, merkeagoak ziren (langileek etxebizitzak etxeetako sotoetan, teilatuetan eta patioetan izaten zituzten).
- Berdegunak: Ardura berezia antzematen da zabalgunea berdegunez hornitzeko. Donostian diseinatu zirenen artean, hona hemen aipagarrienak: Alderdi Ederrekoa, horren frantziarra den ordena geometriko antolatutako lorategia (eredu frantziarraren itxura); Gipuzkoa plazako erdialdeko lorategia, zeina udaleko lorezain Pierre Ducassek erromantizismo ingelesak eragindako itxuraren arabera diseinatu baitzuen (ur-jauziak, baso basatia, zubitoak...); Bulebarrea edota Askatasunaren hiribidean zehar espaloietan zehar lerrotatu zituzten, Parisen Alhandek egina zuen antzera.

3. DONOSTIAKO ARKITEKTURA HISTORIZISTAREN EDO EKLEKTIKOAREN ZENBAIT ADIBIDE

XIX. mendeko hiri-hazkundeak mintzaira arkitektoniko berri bat bilatu beharra ekarri zuen, gizarte berriak zituen premietara egokitua. Halaber, gogora dezagun garai horretan erromantizismoak hain bereak zituen espiritu erlijiosoak, leiendazaleak, sentiberak eta idealistak bultzatu zituela ertilari erromantikoak Erdi Aroa hartzera inspirazio-iturri modura. Hartara, arkitektoek iraganeko hainbat moldetako joerak eta eraginak jasotzera jo zuten edota herri-arkitektura berreskuratzen; ondorioz, historizismoa itxura soiletan oinarritu zen (alferreko egiturak, estaldura arranditsuak, apaingailuen gehiegikeriak, hala nola girlandak, kariatideak, forma mudejarrak eta musulmanak...). Halere, ez dezagun pentsa imitazio hutsa izan zenik, arkitekto historizistek eraikinaren funtzioari ematen baitzioten lehentasuna, eta horren arabera, iraganeko estilo bat edo beste aukeratu baitzuten. Laburbil daiteke mugimendu horretako ekarpenik handiena esaldi honetan: “Formak funtzioari darraio“. Hori dela eta, zabalguneean, bizikide diren hainbat estilotako arkitekturak ikus daitezke: esanahi politiko, ekonomiko edo sozial handiko eraikinak egiteko (kongresu-jauregiak, senatuak, bankuak...), arkitektura neoklasikoa hobetsi zuten, errespetagarritasun handia sortuko zuelakoan; estilo neoejiptziarra erabili zen hilobi-arkitektura egiteko (mastabak, piramideak, hipogeoak); lorategiak pagodaz eta pabiloiz apaindu ziren (neotxinarra); zezen-plazak eraikitzerakoan, estilo neomudejarra aukeratu zuten; goi-burgesiaren egoitzak eraikitzeke, Errenazimentuko jauregiak hartu zituzten aintzat (neorenazentista); nolana ere, denen artean garrantzitsuen estilo neogotikoa izan zen, estilo hori iruditu baitzitzaien egokiena kultura-identitate propioa islatzeko, kontuan hartuz Europako nazio gehienek sustraiak Erdi Aroan zeudela.

Donostiak oso arkitektura historizista bikaina du. Izan ere, burgesia donostiarra, gero eta aberatsagoa eta ahaltsuagoa, hiri eder eta dotore bat lortzen ahalegindu zen, Europan puntan zeuden hirien parekoa. Horretarako, zenbait joeratako arkitektura arranditsua nagusitu zen Donostiako zabalgunean: estilo neoklasiko isabelinoz itxuratutako etxebizitzak; neobarroko frantziarrari jarraituz taxututako Diputazioaren Jauregia (Goikoa, 1879); eklektizismoaren trazei jarraitzen zien Kasinoa (Aladren, 1882); neogotikoaren arabera moldatutako Artzain Onaren katedrala (Manuel Echave, 1887); *cottage* landatar ingelesa gogorarazten duen Miramar Jauregia (Seldem Wornum, 1881-93); neoplatereskoaren trazak dituen Victoria Eugenia antzokia (Francisco de Urcola, 1909). Hona hemen horietariko obra batzuen iruzkina:

3.1. Gipuzkoa plaza eta Diputazioa

José Eleuterio Eskoriatzak plaza arkupedun bat proiektatu zuen, etxebizitza pribatuz (hiru aldetan), eta eraikuntza publiko esanguratsu batez osatua (Diputazioaren jauregia); horretarako, Alde Zaharreko plaza Berriaren (gaur egun Konstituzio plaza) trazadurari jarraitu zion. Halaber, Eskoriatza arkitektoaren proiektuak plazaren lau sarrerak erdi-puntuko arkuz ixten zituen, Konstituzio plazaren antzera (azkenean ez zen arkurik egin, tranbiak bertatik pasatu behar zuelako; halere, beha daitezke oraindik arkuen abiaguneak). Plazaren eraikuntza pribatuen arteko batasuna handia da, estilo neoklasiko isabelinoz itxuratu baitziren fatxada guztiak. Halatan, leihoen molduren bertikaltasunak eta balkoien horizontaltasunak taxu ortogonalak eta proportzionalak ematen diete fatxadei. Behe eta tarteko solairua, hiru goi solairu eta sabaiepa dauzkaten etxe pribatu horiek Frantzia XIX. mendearen erdialdean eraiki ziren udaletxeen eragin nabarmena daukate.



Diputazioaren jauregia hiru gorputzez osatuta dago: erdikoa, Foru Aldundiaren egoitza; alboetan, Gobernu Zibila, eta Finantza Ministerioaren ordezkariak. Fatxadako arkupea monumentalagoa da plazako gainerako eraikuntzena baino. Fatxada guztian erdiko gorputza nabarmentzen da gehien, alde batetik, aurreratuagoa dagoelako beste biak baino, eta bestetik, zutabe korintoar erraldoiz egituratuta dagoelako eta atiko lirain batez koroatuta. Jauregia 1885. urtean bukatu eta handik gutxira erre egin zen. Berregiteaz, Aladrén eta Morales de los Ríos, Kasinoa egin zuten arkitektoak, arduratu ziren. Material bikainak eta apaingai dotoreak erabili zituzten, hala nola Carrarako marmolez eta brontzez egindako eskailera, beirateak, margoak, etab.

3.2. Donostiako kasinoa (gaur egungo udaletxea).

Donostiako Udalak, 1875. urtean harresietako lur batzuk bereganatu ondoren, akzioen bidezko elkarte bat sortzea proposatu zuen, kasino bat eraikitzeko proiektua abian jartzeko. Horrela sortu zen Kasinoaren Elkarteak, Brunet negozio-gizonak zuzendutako sozietate anonimoa. Udalak elkarte horri lur horiek hirurogei urtean erabiltzeko baimena eman zion; horiek igarota, berriro Udalak lurra eskuratuko zituen. Hori horrela, Kasinoaren Elkarteak Miarritzekoaren edo Montecarlokoaren pareko kasino bat eraikitzeko proiektuen lehiaketa-deialdia zabaldu zuen. Aurkeztu ziren hamabost proiektuetatik, Elkarteak Luis Aladrén eta Adolfo Morales de los Ríos arkitektoek egindakoa hautatu zuen. Kasinoa 1882. urtean eraikitzen hasi zen eta 1887an inauguratu zuten.



Eraikin hori estilo eklektikoan eraiki zuten, garai hartako burgesiak horren gustuko zuen estiloan, hain zuzen ere. Eklektizismoaren ildoei jarraituz, hainbat jatorritako estilo nahastatzen dira: arte klasikoa, barroko frantziarra, Espainiako Errenazimentua, arte islamiarra (minarete itxurako dorreak), estilo mudejarra edota kolonaurreko Amerikako apaindurak.

Mutrikuko kareharriz eta Igeldoko harrobietatik ateratako hareharriz egindako eraikin horrek "T" itxurako oinplanoa du (kontuan hartu, Igentea kalera ematen duen aldea 1943an handitu zutela, Arizmendik egindako proiektuaren arabera). Aipatu beharra dago, halaber, burdinazko egiturak dituela eta zura ere erruz erabili zela, barnealdeetan, batik bat.

Fatxadari dagokionez, eraikinaren horizontaltasuna da gehien gailentzen den ezaugarria. Izan ere, terraza zabal batez bukatzen den harmaila baten gainean eraikita dago eta hiru solairuz osatzen da: sotoa, beheko solairua eta lehen solairua. Sotoa, terrazaren azpian dago eta errektangelu formako lau baogune ditu sarrera gisa; hiru eskailera-tarteren bidez, beheko solairura heltzen da, non areto handi bat baitzegoen festetarako, eta hainbat gela jokorako, irakurtzeko edota atsedenerako; lehen solairuan, bazkideentzako izaera pribatua zuten gelak zeuden. Atzeko aldean, kutsu neobarroko frantziarra duen kupula nabari da.


Aurrez aurre begiratuta, fatxada horretan hiru gorputz nabarmentzen dira: erdiko gorputzak, horizontaltasuna apurtzen duten bi dorre ditu albo banatan (dorreek minarete islamiarrak gogorarazten dituzte), eta bi hegal, simetrikoki eratuak ardatzarekiko. Hiru gorputz horiek galerien bidez lotzen dira (horren zoruak arbelez eta Valentzian egindako mosaikoz osatuta daude; hormak, marmolez estalita, eta sabaia, kasetoiekin apainduta). Erdiko gorputzeko sarrera nagusian, erdi-puntuko hiru arku daude; horien gainean, banakako balkoi irten kurbatuak ageri dira, horiek ere erdi-puntuko arkuekin, eta erpinean, erloju bat. Alboetako gorputzek seinak arku eskartzano dauzkate, eta horien gainean, terraza handiak daude. Fatxadako apaingarriari erreparatuz gero, pilastrek, inposta-lerroek, kapitulek eta mentsulek apaindura asko daukate. Frisoetan, tinpanoetan eta arkiboltetan, orobat, Sevillako Cartujan egindako azulejoak daude. Frontoi klasikoak eta itxura gotikoa duten pinakuluak ere ikus daitezke.

Atari nagusian, mosaikoz betetako zorua dago, eta sabaia ganga batez estaltzen da. Marmolez eta brontzez egindako bi kariatide ere nabarmentzen dira.

3.3. Artzain Onaren katedrala

Manuel Etxabek, Diputazioaren jauregia proiektatu zuen arkitekto berak, zuzendu zituen Artzain Onaren obrak ere. Etxabek jarrera eklektiko peto-petoa izan zuen, eraikinaren funtzioaren arabera iraganeko estilo bat edo beste aukeratzeko baitzuen. Hartara, esanahi politiko nabarmena zuen Diputaziorako, estilo neobarroko frantziar hanpatua aukeratu zuen; funtzio erlijiosoa izan behar zuen eliza eraikitzeko, berriz, neogotikoa.

XIX. mendeko 80ko hamarkadan, behin San Martin eliza txikia erautsi ondoren, Alde Zaharreko Santa Mariaren eta San Bizenteren elizak besterik ez ziren gelditzen San Martin auzoko bizilagunentzat. Hori dela eta, horko auzokideek eliza berria eraikitzea eskatu zuten, lehen hilerri txiki bat zegoen orubean. Hasieran, udalak Londres hotelaren atzeko aldea hobetsi zuen eliza eraikitzeko, baina, azkenean, eliza berria plaza baten erdialdean eraiki behar zela erabaki zuen.



Aurkeztu ziren lau proiektuetatik, Manuel Echabe arkitektoak diseinatutakoa aukeratu zuten. Igeldoko hareharrizko harlanduz egindako eliza horrek hiru nabeko latindar gurutzearen formako oinplanoa du. Transeptua eta gurutzadura nabarmenduta dauzka, eta abside batez bukatzen da. Gurutze-gangak pilare konposatu sortakatuetan edo faszikulatuetan bermatzen dira barnealdetik (pilare konposatuak erabiltzen zituzten, gurutze-gangatik zihoazkien nerbioei eusteko); kanpoaldetik, zutoin-arkuek (arbotanteak) horma-bularretara bideratzen dute gurutze-gangen zama. Eraikitze-sistema horri esker, murruek pisu guztiari eusteari utzi ahal izan zioten, pisua zutoin-arkuen bidez igortzen zutelako kanpoko horma-bularretara; ondorioz, nabeak ikaragarri altxatu ahal izan ziren, leihoak ireki eta katedrala kolore argidun beiratez bete.

Fatxada aldean, frantziar tradizioko bi dorre izan beharrean, germaniar gotikoak hain berea zuen dorre bakarra hobetsi zuen (Etxabe ibilia zen Alemaniako hego-mendebaldeko lurraldeetan barrena, eta Friburgoko, Ulmeko edota Mülhauseneko katedral gotikoetatik hartu bide zuen eredua). Beraz, ate nagusiko atari gainetik goratzen den oinplano karratudun dorrea dago, gezi zorrotz kalatu batez bukatua. Gezi zorrotz horrek eta horma-bularren gainean dauden pinakuluek eraikinaren bertikaltasuna azpimarratzen dute.

3.4. Miramar jauregia

Donostiak, turismoak gero eta indar handiagoa hartu zuelako, sekulako goraldia bizi izan zuen XIX. mendearen bukaera aldera. Hori dela eta, Alfontso XII.aren alargun M^a Kristina Habsburgo-Lorrenakoak Donostia izendatu zuen monarkiaren udako egoitza ofiziala. Hartara, 1885. urtean, erregeorde M^a Kristina erreginak jauregi bat eraikitzea eskatu zuen.

Miramar Jauregia itsasertzeko muino baten gainean dago, antzinako San Sebastianen monasterioa egon zen lekuan. Oso ezaguna zen Seldem Wornum arkitektoak egin zuen jauregiaren proiektua 1889an; arkitekto hori ezaguna zen, zenbait jauregi eginak zituelako noblezia udatiarrak oporrak ematen zituen hirietan, hala nola Miarritzen edota Santanderren (Magdalena).

XVIII. mendearen hasierako Ingalaterrako erregin Anaren garaian (1702-14) inspiratutako *cottageen*, ingeles basetxeen tankera du. Bestalde, eraikina egiteko hainbat material erabili ziren: adreilua, kareharria, hareharria, Ingalaterran eginiko teila lauak, egur noblea barneetarako etab. Jauregia bi eraikinez eta biak lotzen dituen galeria batez osatuta dago; eraikin nagu-

siaren oinak *cottage* bat itxuratzen du, landetxe-tipo horretan ohikoak ez ziren hainbat elementu erantsi arren: sarrera nagusia eta eraikinari alkazar baten ukitua ematen dion dorrea. Gorputz nagusi horri simetria gordetzen zuen beste bat erantsi zitzaion. *Cottage* estiloa azpimarratzeko oso egokiak dira, halaber, teilatu inklinatuak, tximiniak edota zurezko zutoinak.

Barnealdea Tudor ingeles estiloan eta Ana erreginaren garaiko apainduretan inspiratuta zegoen. Behe-solairuan, terrazara ematen duen egongela handi bat ez ezik, liburutegia, bilargela, jangelak edota harrera-gela ere bazeuden. Lehenengo solairuan, aldiz, errege-erreginek nahiz infanteek zituzten beren gelak. Azkenik, teilatupean, zerbitzarien eta funtzionario gorenen gelak zeuden.



3.5. Victoria Eugenia antzokia

Victoria Eugenia antzokia 1919. urtean egin zen Frantzisko Urkolaren planoen arabera, Urumea ibaiari irabazitako lurretan. Eraikuntzako hormak Igeldoko harrobitik ateratako hare-harrizko harlanduz eginda daude; habeak hormigoizkoak dira, eta kupularen egiturak, berriz, metalezkoak. Urumea ibaira begira dagoen fatxada nagusia estilo neoplatereskoaren trazan arabera taxututa dago. Fatxada horretan hiru solairu antzematen dira: beheko solairua, hiru ate dituen, arku eskartzano banarekin; lehen solairuan, hiru baogune handi daude, bakoitza erdi-puntuko arku batekin, eta atikoa, non harrizko zenbait eskultura multzo nabarmentzen diren: “Trajedia”, “Musika”, “Dantza” eta “Komedia”.



Urkola arkitektoak eraikin horretan arkitektura platereskoari zegozkion zenbait ezaugarri erabili zituen. Gogora dezagun platereskoan hainbat dekorazio-elementu behin eta berriro errepikatzen direla, *horror vacui* (hutsari izua) tankerako trazei jarraituz: gruteskoak, hau da, hostotza eta huntz artean dauden izaki hibridoak, animalia kimerikoz, objektu edo pertsonaia klasikoak osaturiko apaingailu apetatsuak; argimutilak (*candelieri*), alegia, *kratera* edo horrelako beste elementu edo pertsonaia klasiko batez osatutako simetria-ardatz baten alde batera zein bestera dauden formak; kalostira itxurako zutabeak, zeinak zati batzuetan erraboiltsuak eta beste batzuetan, aldiz, estuak baitira; ordena korintoarreko kapitelak, jorienak baitira; hainbat arku mota, hala nola erdi puntukoak eta eskartzanoak, armarriak eta dominak, non pertsonaia ezagunen buruak agertzen baitira (Peñafloridako kondea, Arriaga, Gaiarre tenorea, etab.), eta gailurreria, eraikina koroatzeko.

Barnealdean areto asko daude: areto nagusia, egongelak, arropa gordetzekoak, artisten gelak, etab. Areto nagusian ikusleentzako eserlekuak, plateak, palkoak eta eszenarioa daude.

*Gerra Zibilaren aurreko
abangoardiak:
Donostiako Klub Nautikoa*

8

1. TESTUINGURUA

XIX. mendeko azken hamarkadetan eta XX. mendearen hasierakoetan, Donostian arkitektura historizista eta eklektikoa nagusitu ziren. Arkitektoek iraganeko hainbat moldetako joerak eta eraginak jasotzera jo zuten, eta ondorioz, eraikinetan gehiegizko apaingarriak nabarmendu ziren. Horrela, Donostiako zabalgunean bizikide diren hainbat estilotako arkitekturak ikus daitezke, hala nola neoklasiko isabelinoa, neogotikoa, neoplatereskoa, eklektiko peto-pettoa, etab. Horretaz gainera, XX. mendearen hasieran, Goikoa arkitektoak bideratu zuen zabalguneko bigarren aldian (Prim kalearen inguruan, Artzain Onaren katedraletik hegoalderantz dagoen eremuan), eraikin modernista bakan batzuk agertu ziren (gogoratu dekorazio organikoan inspiratutako modernismoa burgesiaren atseginerako sortu zela). Mugimendu horien ondoren, 1920ko hamarkadaren bukaera aldera eta 1930ekoaren hasieran, arrazionalismoa zabaldu zen Europa guztian barrena.

Arrazionalismoa bi mundu-gerren arteko aldian Europan garatu zen mugimendu arkitektonikoa da. Joera arkitektoniko horrek gizarte industrial eta kapitalistarekin bateratu nahi izan zituen diseinua eta arkitektura, baina eduki sozial jakin bat emanez (ikusuntu sozialdemokrata). Mugimendu arkitektoniko horretan ezaugarri jakin batzuk nabarmendu daitezke:

- Forma arkitektonikoak funtzioaren arabera taxutzea. Arkitekto arrazionalistek eraikuntzaren logika aldarrikatzen zuten, dekorazio-balio guztien aurretik (ahalik eta elementu gutxienekin, ahalik eta emaitza gehien lortzen saiatu ziren). Haien aburuz, eraikina ondo planteatutako problema baten emaitza logikoa zen (sarritan, eredutzat itsasontziak eta hegazkinak hartzen zituzten, funtzioari hobekien egokitzen ziren formak zirelakoan). Ondorioz, funtzioak zehazten zituen honako forma hauen arabera arkitektura hobesten zuen arrazionalismoak: forma soilak, lerro zuzenak, plano angeluzuzenak, oinarritzko bolumen geometrikoak, hala nola kuboak, esfera, zilindroak eta konoak. Arrazionalismoak premia berrien aurrean, alferreko apaingarri oro aldentuz, soluzio eraginkorrak, merkeak eta funtzionalak eskaini zituen.
- Material eta teknika industrial berrien erabilera. Burdinurtua edo altzairua, egituraren eusleak egiteko (material horren erabilerak eraikuntza molde arrazionalagoak eta alde aurretik egindako piezen muntaketa eragin zituen); azalera handiko beirate industrialak, zeinek barrualdeak argiz betetzea ahalbidetzen baitzuten (hormaren euskarri-betekizuna galdu ondoren, beirazko azalera zabalak agertu ziren fatxadetan), eta hormigoia armatua (ordura arte industria-eraikinetan baino erabili izan ez arren, ordutik aurrera eraikin orotara zabaldu zen).
- Sentsibiltate soziala. Erreforma politikoak eta ekonomikoak bultzatzen zituen ideologia sozialdemokratari jarraituz, arkitekto arrazionalistek lan egin zuten ongizate soziala lortzearren. Horretarako, langileentzako etxebizitza duin eta merkeak eraikitzen zituzten, edota lantegi funtzional, argitsu eta egoera onetan lan egiteko egokiak diseinatzen zituzten.

Mintzaira arkitektoniko berri hori Euskal Herrian hainbat arrazoiengatik zabaldu zen 1930eko hamarkadan:

-GATEPAC taldearen agerpenagatik (Grupo de Arquitectos y Técnicos Españoles para el Progreso de la Arquitectura Contemporánea, hau da, Arkitektura Garaikidearen Aurrerapenerako Arkitekto eta Tekniko Espainiarren Taldea). Arkitekto talde hori 1930. urtean sortu zen Zaragozan, Le Corbusier arkitekto ospetsuaren ideiak Espainian zabaltzeko helburuarekin.

Talde horrek CIAMetan (Congrès International d'Architecture Moderne, hau da, Arkitektura Modernoaren Nazioarteko Batzarra) hartu zuen parte, eta Europako arkitektura arrazionalistarekin harremanetan egon zen. Bildutako arkitektoak Madrilekoak (García Mercadal), Kataluniakoak (Sert) eta Euskal Herrikoak (Manuel Aizpuru eta Joaquín Labaien) ziren, garai hartako Espainiako lurralderik industrializatuenetakoak, hain zuzen ere.


- Bauhaus eskolaren sortzaile eta diseinatzaile Walter Gropiusek Bilboko Carlton Hotelean 1930. urtean emandako hitzaldiak piztutako eraginarengatik. Jakina denez, Gropius arkitektoak 1926an Dessau eraiki zuen arkitektura- eta diseinu-eskolaren bidez, arkitektura arrazionalistaren zenbait printzipio zabaldu zituen: pabiloi bakoitza zer jardueratarako zen, desberdin diseinatuta zegoen, funtzioa nagusi baitzen; bolumen-deskonposizioak, formen sinpletasunak eta plano angeluzuzenek logika arrazionala ezarri zuten; errezel-hormeak esker, barrualdeak argiz betetzen ziren; ez zegoen inolako apaindurarik, elementu guztiak funtzionalak baitziren.
- Donostiako Kasino Handian 1930. urtean antolatutako erakusketak izan zuen oihartzu-nagatik. Izan ere, Gipuzkoako Ateneoak arkitektura eta pintura modernoari buruzko lan batzuk jarri zituen erakusgai, besteak beste, García Mercadalenak, José Manuel Aizpuruarenak eta Joaquín Labaienenak.

2. DONOSTIAKO KLUB NAUTIKOA

José Manuel Aizpuruak eta Joaquín Labaienek 1929. urtean diseinatu zuten Donostiako Klub Nautikoa, Kontxako hondartzaren ertzean, ainguraturik zegoen itsasontzi bat balitz bezala. Bi arkitekto donostiar horiek hormigoizko terraza baten gainean jaso zuten eraikina, akuario zaharraren hormen gainean. XX. mendeko arkitekturari dagozkion materialez egin zuten: burdinurtua egituretan, hormigoia hormetan eta beirate zabalak leihoetan. Azpimarragarria da, orobat, zuriz pintatutako hormigoia armatuak gainazala leuna eta biluzia duela, batere apaingarririk gabea, horrela diseinatua eraikinaren araztasun arkitektonikoa agerian uzteko. Aizpuruak eta Labaienek, Klub Nautikoa eraikitzeko, aintzat hartu zituzten Le Corbusierrek, 1928. urtean, egin zuen Saboya landetxean zehaztu zituen trazak. Hona hemen Klub Nautikoaren ezauzgarriak, Le Corbusierrek erabiltzen zituen bost printzipio arkitektonikoetan oinarritutakoak:

- Eraikina piloteen edo paldoen gainean eraikitzea. Goiko gorputzari eusteko, eta bidena-bar, gorputz hori zoritik isolatzeko eta azpiko espazioa trazarik gabe, libre uzteko, bata bestearik sei metrora dauden piloteak jarri zituzten. Ikus daitezke pilote horietariko batzuk aske solairu nagusian, nahiz eta ekialdeko eta hegoaldeko aldeetan bat eginda azaldu hormarekin. Horren guztiaren ondorioz, eraikuntzak honako ezaugarri estetiko nabarmen hauek ditu: beheko aldea itzalpetuta dago (solairu nagusiko hondartzara ematen duen terrazaren zureria ilunaren eraginez), pilote gaineko gorputz zuria (goiko solairua) nabarmenago azaltzen da, eta azkenik, gorputz horren bolumenaren araztasuna eta itxura geometriko garbia azpimarratuta gelditzen dira.
- Oinplano askea. Klub Nautikoa hiru gorputzez osatuta dago: behe-solairuan, igerilari-gelak, sukaldeak eta zerbitzu orokorrak daude; solairu nagusian, honako hauek aurkitzen dira: hall-ataria, liburutegia, joko-gela, batzar-gela eta, itsasora begira, terraza bat, estalkiduna eta zureria ilunaz apaindua; goiko solairuan, berriz, jatetxea, taberna eta terraza handi bat daude (gaur egun, estalia). Karga-hormarik ez izateak, piloteen gainean bermatzen baita eraikin osoa, Klub Nautikoaren oinplanoaren banaketa librea izateko bidea

ematen du, alegia, tabikerik eta itxiturarik gabe taxutzekoa. Halatan, solairu nagusiko hall-ataria, liburutegia edota joko-gela ez dira hormen bitartez ixten, banatu bakarrik egiten dira, honako elementu bereizle hauen bidez: gortinak, altuera txikiko hormak, altzariak edota beirazko azalerak. Horrek guztiak espazio bakarraren sentsazioa eragiten du. Goiko solairuan, halaber, oinplano librearen planteamendu berbera antzeman daiteke, sei koloma besterik ez baitaude, itxierarik eragiten ez dutenak. Solairu horretan, aipatu beharra dago solariuma ere. Le Corbusierrek egin zuen Saboya landetxean goiko terrazan jarritako solariumaren trazei jarraituz, Aizpuruak eta Labaienek ere solarium bat jarri zuten Klub Nautikoan (gaur egun, estalia).



- Leiho etzanak (horizontalak) eta jarraikiak. Hormak bere sostengu-betekizuna galtzearen ondorioz, barneko espazioek eta kanpoko paisaiak bat egiten dute. Hori lortzearen, goiko solairuko horma kurbatuaren perimetro osoa leiho jarraiki horizontal batez itxuratuta azaltzen da; horren bidez, eraikinaren irudia arindu eta barnealdea argi naturalez blaitu ez ezik, barruan daudenei ere parada ematen die aurrean dagoen Kontxaren eta itsasoaren panoramaz gozatzeko. Halaber, antzeman daiteke solairu nagusiko liburutegian beirazko azalera handi bat dagoela badiara irekita. Ezin dira aipatu gabe utzi, orobat, joko-gelan dauden leiho karratuak eta bereziki idi-begiak, azken horiek azpimarratzen baitute eraikinak duen itsasontzi-tankera. Begi-bistakoa da, beraz, arkitektura arrazionalistak hain berea zuen goiburua nagusiari jarraituz, Klub Nautikoaren forma arkitektonikoak erabat egokituta daudela betetzen dituzten funtzioetara.
- Fatxada librea. Hormak euskarri-funtziorik egin behar ez zuenez, eraikina solairu bakoitzaren premien arabera diseinatu zuten. Sarrera zati biko eskailera luze baten bitartez antolatzen da, zeinek itsasontziarena gogorarazten baitu. Eskailera zati batek Klubari ematen dio sarrera; besteak, berriz, jartexari. Ohargarria da, halaber, sarrera oso modu nabarmenez itxuratuta ez egotea, horrek apaingarriak jartzea eskatuko bailuke, eta beraz, arrazionalismoak hain berea zuen biluztasunetik aldentzea ekarriko bailuke.
- Estalki laua. Eraikinaren taxuera geometrikoa lortzearen, Aizpuruak eta Labaienek erabat lau utzi zuten goiko gorputz biribila. Ohar gaitezen arkitekto donostiarrek ez zutela aprobeztatu sabai-lorategi bat jartzeko, Le Corbusierrek egin zuen bezala.

*Arantzazu,
Gerra Zibilaren osteko
euskal arte
abangoardistaren eredu*

9

1. TESTUINGURUA

Arantzazuko santutegia zintzilik ageri da, izen bereko errekak higatu duen arroila baten gainean. Izan ere, santutegia kareharrizko hainbat mendiren artean dago, Gipuzkoa eta Araba lurraldeen arteko mugan: Elgea, Aloña, Aizkorri, Beilotza, etab. Zazpiehun metro garaieran dagoen leku ikusgarri hori mendi-gailurrez inguratuta dago, arroila baten ertzean, zeinaren oinean barrena Arantzazu erreka bihurtzen doan. Urte-saso oroz paraje hauek hainbat kolorez betetzen direnez, basoak hamaika kolore-ñabarduraz janzten dira. Zalantzarik gabe, lasaitasuna, bakea eta edertasuna darizkion ingurune aparta hori, leku aproposa izan zen santutegi eta komentu bat eraikitzeko.

Tradizioak dioenez, Uribarri auzoko bizilagun Rodrigo Baltzategi artzain gazteari Ama Birjina agertu zitzaien elorri zuri baten gainean 1469. urtean, etxeko ahuntzak zaintzen ari zela. Ikustean, harrিতuta, esan omen zuen: “Arantzan, zu?”; horra hor, batzuen ustean, Arantzazu izenaren jatorria. Nolanahi ere, Ama Birjinaren irudi bat ageri zen bertan, horren guztiaren lekuko gisa. Harrezkero, Arantzazu jende askorentzat peleginazio- eta otoitz-leku bihurtu zen. Ugaritzen joan ziren jende andanak bertaratzeak baseliza bat eraikitzea eragin zuen. Hasieran, jatorriz oñatiarra zen erlijioso mesedetako Pedro Arriaranen inguruan bildu zen lehen komunitatea (1493). Baina hasierako fundazio horrek arrakastarik izan ez zuela eta, 1541ean frantziskotarrek komentu bat eraikitzea erabaki zuten, Arantzazuk hartutako garrantziaren ondorioz. Horrela, frantziskotarrak, XVI. mendea ezkerrean, Arantzazun daude; beraz, guztira, bost bat mende eman dute bertan bizi izaten.

Komentua, 1556an, 1622an eta 1834an (Lehen Gerra Karlistaren garaian), suteak jasan eta erre egin zen. Azken sute horren ondoren, tenplua eta komentua berriz eraiki zituzten, baina tenpluan ez zegoen bertaratzen ziren erromes guztientzako adina leku. Horretaz gainera, XX. mendearen erdialdera, Arantzazu zaharrituta eta narrastuta zegoen.

Horren aurrean, Kubatik itzulita zegoen eta Kantabriako probintzial izendatu berria zen aita Pablo Letek, beste fraide batzuekin batera, eraikina zaharberritzeko eginahalari ekin zion. Hala, 1950ean, Francoren diktadura indarrean zegoen garai lazarri eta itxi hartan, Arantzazuko arkitektura zaharberritzeko lehiaketa-deialdi bat iragarri zuten. Hogeita hemeretzi proiektu aurkeztu ziren lehiaketa horretara, eta horietatik, Luis de Laorgak eta Javier Saenz de Oizak egin zutena atera zen irabazle. Bi arkitekto horiek aurkeztutako proiektu arkitektonikoak, orobat, beste hainbat artistaren lanak jasotzen zituen: eskultore, pintore, beiragile, etab. Proiektu bateratu horretan parte hartu zuten ertilariorietatik guztietatik, Oteiza eskultorea gailendu zen hasieratik, proiekturako horrek egindako ekarpenak oso erabakigarriak izan baitziren. Izan ere, Saenz de Oizak fatxadako lan eskultorikoa egiteko eginkizuna Oteizari eman nahi izan zion, zuzenean, alegia, lehiaketarik gabe. Eskultore oriotarrak eskaintzari uko egin ziola eta, lehiaketa mugatu bat egitea proposatu zen. Aurkeztu ziren bi lehiakideetatik (Oteiza eta Gasteizko katedral berrian lanean ari zen Joaquín Lucarini eskultore arabarra) Oteiza atera zen garaile. Beste artista batzuekin ere jarri ziren harremanetan, hala nola Chillidarekin (burdinazko ateak egin zituen), Luzio Muñozekin (erretaularen egilea), Basterretxearekin (kriptako pinturak margotu zituen) edota Alvarez Eulate fraidearekin (beira-leihoak egin zituen).

Nolanahi ere, Arantzazuko proiektua hainbat ertilariren lan bateratua izan zen, bakoitzak egin zituen ertilanak multzo orokorrean integratzeko pentsatuak baitziren.

2. ARANTZAZUKO MULTZOA

2.1. Arantzazuko proiektu arkitektonikoa

Saenz de Oizak eta Luis Laorgak aurkeztu zuten proiektua tradizio kristauan errotuta zegoen. Izan ere, lehen komunitate kristauen erreferentzia sinbolikoak (lehen komunitate kristau horiek garatu zuten arte paleokristautik jasoak) edota Erdi Aroko tradizio italiarra (Frantzisko Asiskoak ezagutu zuena) hartu zuten inspirazio iturri modura. Horretaz gainera, organizismo arkitektonikoak hain bereak zituen hainbat ezaugarriren arabera egin zuten eraikinaren taxuketa: eraikina ingurunean integratzea; bertako materialez baliatzea hobeto txertatzeko eraikina paisaian; materiala, kasu honetan harria, bere horretan agerian uztea, alegia, lakarra, gorria, latza (brutalismo materikoa).

Fatxadari dagokionez, Erdi Aroko fatxada italiarren eskeman inspiratua dirudi (beharbada Frantzisko Asisko fundatzaileari erreferentzia sinbolikoa): bi dorre, sarrerako ateen alboetan, eta kanpandegia multzo osotik bereizita, Italiako Erdi Aroko elizetako *campanile* baten gisara. Esan bezala, materialaren aukera eta tratamendua da eraikin horren ezaugarri nabarmenenetariko bat. Begi-bistakoa da, inguruko paisaiarekin erabat uztartzearen, bertako kareharri grisa erabili zutela harlanduak egiteko, eta bertako zura, barnealdeak janzteko. Dorreetan diamante-punta lakarrak ageri dira, elorriaren arantzak irudikatzen (gogoratu, tradizioak dioela Ama Birjina Rodrigo Baltategi artzainari elorri zuri baten gainean azaldu zitzaioela). Halaber, fatxadaren erdiko hormaren biluztasunak airearen araztasuna eta gardentasuna iradokitzen ditu. Horrek guztiak, zalantzarik gabe, Arantzazu sinbologia erlijiosoz betetzen du.



Saenz de Oiza eta Laorga arkitektoek eraitsitako aurreko elizaren aztarnak kripta bihurtu ondoren, basilika berria eraikitzeari ekin zioten. Neurri eta itxura handiko eraikin horrek honako ezaugarri hauek ditu: beso laburreko transeptua duen latindar gurutzearen formako oinplanoa (transeptua horren motza izateak, espazioaren kontzepzio bateratua eragiten du); deanbulatoriodun abside handi bakar bat, non aldarea eta Ama Birjinaren irudia, argitasunez bereziki nabarmendua, jarri baitziren (ohartu, eraikinaren hormak nahiz begi-lerro guztiak aldarerantz eta Ama Birjinaren irudirantz bideratzen direla); nabe bakarra, alderantzikaturiko gilaren formako estaldura duena; antzinako katakonbak gogora ekartzen dizkigun sarrera nagusia, eskailerak jaitsez kokatuta baitago (sinbologia paleokristaua).

2.2. Oteizaren apostoluen frisoa

Jorge Oteiza (Orio, 1908-Donostia, 2003), Ameriketatik 1948an itzuli zen jaioterrira. Ameriketan, kolonaurreko kulturen eraginez, eta Lipchitz, Brancusi, Arp eta, batik bat, Henry Moore eskultore abangoardistak ezagutu ondoren, ezaugarri jakin batzuk zituen bide artistiko propioa jorratzeari ekin zion: giza irudiaren itxura naturala gaindituz, energia ezkutua eta giza-gaineko indarra azaltzea, eta irudi etzanak, fisionomia antropomorfodunak eta hutsartez moldeaturikoak egitea.

1950. urtean, Arantzazuko proiektuak erabat markatu zuen Jorge Oteizaren jarduera. Arestian aipatu dugun lehiaketa mugatua irabazi ondoren (gogoratu Joaquín Lucarini izan zuela lehiakide), apostoluen friso bat eta pietate bat egin zituen fatxadarako. Proiektuak 1953tik 1969ra iraun zuen, eta estetika hauslea eta abangoardista zuenez, elizaren hierarkiak ez zuen artelana onartu, ez eta herritar askok ere. Oteizak, apostoluen bitartez, mintzaira eskultoriko berri bat erdietsi nahi izan zuen, euskal abangoardia berri bat sortuko zuena. Horregatik guztiagatik, eskultura multzo horrek hainbat ekarpeni eman zien bide:



- Arte erlijiosoaren berrikuntza. Arantzazuko tradizio erlijioso oso errotuta zegoen Gipuzkoan XVI. mendea ezker. Oteizak tradizio erlijioso horri jarraitu zion, baina irudiei estetika hauslea eta abangoardista emanaz. Gaia erlijioso izan arren —apostoluak irudikatu baitzituen—, ikonografia tradizionalarekin hautsi egin zuen. Izan ere, apostolu bakoitzaren hazpegiak eta zein den nor jakiteko bidea ematen duten xehetasunak (esate

baterako, Done Petri eta giltzak) ez dira irudikatzen; hartara, bakoitzaren indibidualtasuna kolektiboan uztartuta gelditzen da. Halaber, hamalau irudi izateak, eta ez ohiko hamabi, Kristoren mezua ordurako lau haizetara zabaldua zela, alegia, unibertsal bihurtua, sinbolizatzen du. Aditu batzuen ustez, orobat, zenbaki horrek traineru bateko arraunlarien kopurua gogorarazten du (euskal tradizioari erreferentzia sinbolikoa). Ama Birjinaren ikonografiarako ez zuen aukeratu Arantzazuko tradizioari legokiokeena, hots, Andre Maria bere seme Kristo ume moduan irudikatua, altzoan duena (“*Madona*”), baizik eta pietatea, seme hila oinetan duena. Ama zutik ezarri zuen, zeruari deiadar eginez, seme hila oinean zuela. Apostoluen aurpegiera tragikoekin ezin hobeto doa Ama Birjinaren irudi oinazetua. (Aditu batzuen esanetan, ikasle eta lagun Txabi Etxebarrietaren hilketa erabakigarria suertatu bide zen, ikonografia hori aukeratzeko).

- Apostoluzaren ezaugarri formal berritzaileak. Eskultura figuratiboa izan arren, apostoluek duten zentzu sinbolikoa eta adierazkorra begi-bistan dago: irudikatzen diren irudiak trauskilak dira, eta aurpegierak eta gorpuzkerak adierazkortasunez eta dramatismoz beteak. Irudiak kanalean irekiak dira, barrenak hustuak, *niaz* gabetuak, transzendentziak ukituak, eta besteei zabalik daude. Apostoluek proiektatzen duten espiritu erlijiosoa eta tragikoa, aurpegieren artegasunean eta jarrera larrituetan islatua, plastikoki hutsartearen erabileran, falta den bolumenean, masa-gabezian, masa solido irekian adierazten da. Hartara, masa eta masa-gabeziaren arteko tentsioek pertsonaien dramatismoa erakusten dute. Horren arabera, garbi ikusten da Oteizak, Arantzazuko lan eskultorikoan, hutsunea erabili zuela adierazkortasuna azpimarratzeko (geroago, eskultura abstraktuetan, hutsuneak beste esanahi bat hartuko du).



- Konposizioa. Oteizak friso baten antza eman zion eskultura multzoari. Erliebe-itxuran kokatutako apostoluak aurrez aurre ikusteko eginak daude; beraz, obra horretan, ikuspegi bidimentsionala izan zen nagusi. Halere, ez dezagun pentsa multzoa konposizio monotono eta hertsia batera mugatuta dagoenik. Mooren plastika gogora dakarkiguten gorputzen forma hustu horiek, kokalekutik irten ez arren, hainbat huts-joko erritmiko eta dinamiko eragiten dituzte, irudien arteko tentsio tragikoak adierazteko: irudiak gorantz, jenderantz edo elkarri begira daude; egonezin urduri batek bultzatuta, buruak nahiz besoak erritmo biziko mugimenduan azaltzen dira. Obra guztiari, hitz batez esateko, mugimendu-sentsazio itzela dario, friso baten itxurara mugatuta egon arren.

—Modelaketa. Eskultore oriotarrak Arantzazu inguruan ustiatutako kareharriz zizelatu zituen apostoluak, ingurumari naturalean integratzeko. Artelanaren materia bere horretan agerian uztea helburu duen brutalismoaren ildoak aintzat hartuta, Oteizak modu zakarrez, latzez, basatiz modelatu zituen apostoluak. Horrela, modelaketa latz horren bitartez, irudien adierazkortasuna eta dramatismoa areagotuta gelditu ziren. Aitzitik, euskal frontoietan inspiratuta, horma hutsik itxuratu zuen, materiaren hustuketa eta formen araztasuna adierazi nahi izan balu bezala. Hutsik dagoen gainazal biluziak gainean jarritako irudien adierazkortasuna eta indar bolometrikoa agerian uzten ditu.

Jorge Oteizak egin zituen apostoluek polemika bizia eragin zuten. Izan ere, Jaime Font y Andreu gotzaina eta hierarkia eklesiastikoa, oro har, erabat kontra azaldu ziren. Auzia Vatikanora heldu, eta bertatik, 1955ean, obrak gelditzeko agindua etorri zen. Hori dela eta, Oteizak ezin izan zuen lanean aurrera egin 1968 arte (gogoratu beharra dago eskultura multzo hori bide bazterrean abandonatuta egon zela 1954tik 1968ra bitartean). Edonola ere, bere garaian oso polemikoa izan arren, gaur egun euskal arte modernoaren lanik garrantzitsuenetarikotzat jotzen da honako arrazoi hauengatik: alde batetik, arte erlijiosoaren berrikuntza ekarri zuelako (kontuan hartu iruzkingai dugun obra hau egin zen arte, eskultura erlijiosoak beti jarraitu izan ziela figurazio klasizistaren ildoek); bestetik, abiapuntua izan zelako euskal artearentzat (Oteizaren obran horrenbesteko garrantzia izan zuen espazio hutsen inguruko ikerketak, abstrakzio absolutura eramango zutenak, obra horrekin hasi zirelako).

2.3. Chillidak moldatutako atek

1954an, Arantzazuko basilikaren arduradunek Chillidari sarrerako atek egiteko ardura eman zioten. Eskultore donostiarra ordurako Parisetik itzulia zen, eta Hernanin bizi izaten jarria. Jakina da urte horietan Chillida noraezean ibili zela, jakin gabe ziur zer bide jorratu. Azkenean, eskultura egiteko materiala aldatu egin zuen —harria utzi eta burdina hartu—, eta abstrakzioaren bidea hautatu zuen. Harrezkero, Chillidak materialari aparteko garrantzia eman zion: haren gogortasuna edo hauskortasuna, astuntasuna edo arintasuna, eskulturaren baitan zegoen zerbait zela deskubritu zuen. Horrela, Chillida, beti begirunetsu materiarekin, pentsamenduaren eta materiaren arteko batasunaren bila hasi zen, materia batek eman behar zuena eman ondoren, hurrengo beste baten bila abiatuz. Hasieran, harria, giza gorputzaren soin-enborra lantzeko; ondoren, burdina herdoildua, denborak materiaren azalean duen eragina era plastikoa adierazteko; zuraren bidez, Chillidak espazioaren mugak seinalatzen saiatu zen, materia bizidun horrek izandako adabegiz, zainez, arrailduraz eta hutsez baliatuz; hormigoia, geroago, zuen astuntasunetik eta pisutik askatuta, zegokion lakartasuna erakusteko; alabastroa ere landu zuen, argiak materia barnean eragiten dituen efektuak ikertzeko. Laburbilduz, esan genezake Chillidak 1950eko hamarkadan, burdina deskubritu zuela, 1960koan, zura eta alabastroa, eta azkenik, 1970ekoan, hormigoia. Material mota bakoitzari zentzu eskultoriko propioa ematen saiatu zen, materia bere horretan errespetatzen, eta berezko koloreak uzten.

Arantzazuko basilikaren lau ateei dagokienez, bistakoa da Chillidak ate bakoitza burdinazko collage modura itxuratu zuela. Ateek oreka klasiko handia dute, burdina-xaflen erritmo horizontalek eta bertikalek espazio geometriko orekatuak eta egonkorak eragiten baitituzte (ohartu karratuek eta zirkuluek, forma geometriko sinbolikoez, taxutzen dutela ate bakoitzaren gainazala). Ate horiek Zumaiako kaian nahiz Tolosan bildutako hondakinez eta Patricio Etxeberriako lamina batzuez eginda daude. Hainbat adituren ustez, material xumea aukeratzean, Chillidak sinbolizatu nahi izan zuen frantziskotarrek horren bereak zituzten pobretasun-zentzua eta umiltasuna. Halaber, ezin da ahaztu eskultoreak, burdina herdoildua erabiltzen zuenean, hausnarketa egin nahi izaten zuela denboraren igarotzeaz.



2.4. Luzio Muñozek itxuratutako erretaula

Erretaula egiteko aurkeztu ziren berrogeita bi proiektuetatik, Luzio Muñozek aurkeztu zuena aukeratu zuten 1962. urtean. Artista hori Madrilen 1957an sortutako “El Paso” taldeko kidea zen, eta Europa guztian urte horietan horren zabaldua zegoen traza informalistei jarraituz taxutu zuen Arantzazuko erretaula.



Informalismoa edo espresionismo abstraktu europarra Parisen sortu, eta XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan garatu zen indartsuen. Europan, Bigarren Mundu Gerraren ostean, munduarekiko eta gizakiarekiko ikuspuntu ezkorra eta mesfidantza zabaldu zen (gogoratu filosofia existentzialistak ikuspuntu hori hedatzen lagundu zuela). Joera horrek erabat ezabatu zituen pinturaren antolaera logikoa eta konposizio arrazionalari buruz zeuden aurretiko ikuspegiak (kubismoa, abstrakzio geometrikoa) eta pintura-elementu soilak eta prozedura hutsak balioetsi zituen (materia, ehundura, keinua...) Izaera espresionista zuten hainbat agerbide azaldu ziren: keinu-bidezko ekintza, zeinak artistaren adierazkortasuna eta proiektzio psikologikoa

adierazten baitzituen, inolako kontrol arrazionalik gabe, hausnarketarik gabeko bultzada zinetikoz, ausazko jardunez, bulkada irrazionalerik eta subkontzienteaz baliatuz (pintore horiek oso bizkor egiten zituzten trazuak eta kolore-orbanak, bere kontrolik gabeko keinuen ondorioz); zeinu-pinturak hari fin formako grafiak zerabiltzan, *zen* kaligrafian inspiratutakoak, artisten sen poetikoa adierazteko (joera horrek ez zuen trazu bortizik erabiltzen, eta kaligrafia poetikotzat har daiteke); materia aintzat hartzen zuen joeran (materia-pintura), artelanaren protagonista materia bera bihurtu zen (obra horiek meditaziorako bide dira, material xumeak, lurretik hartutakoak edo hondakinak erabiltzeak denboraren joateaz hausnarketa egiteko parada ematen baitu).

Arantzazuko erretaula egiteko, Luzio Muñozek izaera abstraktua eta espresionista zituen materia-pinturaren ildoari jarraitu zion. Izan ere, Ama Birjinaren agerraldia eta ingurumari naturala aintzat hartuta, erretaula honako hiru espazio hauetan itxuratu zuen: behe aldean, elorria, lurra, Rodrigo Baltategiren nolabaiteko irudia eta Ama Birjinaren imajina, baoan; horren gaineko tartean, Arantzazu inguruko mendiak eta harkaitzak; azkenik, goian, zerua. Muñozek, materiaz eta naturalismo pitin bat (erreferentzia ikonografikoak egiteko ezinbesteko baliabidea) zuen abstrakzioaz baliatuz, alde bakoitza hainbat ehunduraz eta kolorez landu zituen: behealdean, elorriaren ehundura irudikatzeko, kolore nabarrak, okreak eta ilunak ez ezik, ehundura urratuak, zartatuak, markaz eta ildoaz beteak ere nagusitzen dira; gorantz begiratzen dugun neurrian, berriz, ohartuko gara kolore gris eta urdin perlatsua, goitik sartzen den argitasuna eta ehundura finagoa gailentzen direla. Agerian gelditzen da, beraz, Muñozek egin zuen erretaulak esanahi alegoriko nabarmen bat duela, inguruko paisaian nahiz Ama Birjinaren agerraldian inspiratuta.

Gogora dezagun, halaber, obra horretan zur-langintzak izan zuen garrantzia. Luzio Muñoz egurraren balio espresiboak eta poetikoak ikertzen ahalegindu zen bere jorra-bide artistikoa zehar. Iruzkingai dugun obrari dagokionez, Muñozek hainbat modutan landu zuen zurezko seiheun metro koadroko azalera duen erretaula: tailatuz, urratuz, zartatuz, zulatuz, errez, etab.

2.5. Javier Eulate frantziskotarrak diseinatutako beirateak

Transeptuko alde banatan jartzeko, Eulate frantziskotarrak lau hostodun hirustaren forma eman zien diseinatu zituen beirateei. Ertilari hori, Arantzazun lan egin zuten beste ertilarien trazei jarraituz, mundu naturalean eta forma organikoetan inspiratu zen. Itxura abstraktua duten beirateetan, inspirazio naturala nahiz esanahi kristaua duten hainbat forma ikus daitezke: zuhaitza, sastraka, gurutzea, gizakia, mendia edota zerua.

Beirateetatik sartzen den argi urdin perlatsuak giro berezi bat sortzen du, hausnarketa erlijioso, barne-barnekoa, egitera bultzatzen duena.

2.6. Nestor Basterretxeak margotutako kripta

Argentinatik itzuli ondoren, eta Oteizak bultzatuta, Arantzazuko basilikako kriptako horma-pinturak egiteko lehiaketara aurkeztu eta irabazle atera zen. Horrela, 1952tik 1955era bitartean, lan hori egiten aritu zen. Alabaina, azken urte horretan, lana jarraitzeari utzi behar izan zion, baten batek ordura arte egindako lana hondatu zuelako. Nolanahi ere, 1984. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzari esker, kripta margotzeari ekin ahal izan zion berriz.

Horma-pintura horien ikonografiari erreparatuz gero, konturatuko gara horma luze bietako irudiak kontrajarrita daudela: batean, suaren, lurraren, airearen eta uraren kosmogoniak azaltzen dira; bestean, berriz, kristautasunaren historia (martiriak, San Frantzisko eta beste zenbait santu...). Kriptaren burualdean, Kristo gorria azaltzen da, hila eta berpiztua, oinazetsua eta indartsua aldi berean, tradizio biak elkarlotzen.

Basterretxeak espresionismotik gertu zegoen estetikarantz egin zuen hondatu zuten lanean. Bigarreanean, ostera, espresionismo orotatik urrunduz eta araztasun formal batera joz, mintzaira piktoriko kontzeptuala eta minimalista erabili zuen. Azken horietan, indarra eta handitasuna, nahiz aberastasun kromatikoa nagusitu ziren.

*Power point formatuan
aurkeztutako
diapositiba-bilduma*

DIAPOSITIBA ZERREDA

1. Historiaurreko zenbait zantzu Gipuzkoan: Ekaingo leize-zuloko pinturak

1. Ekaingo ingurumen naturala
2. Ekaingo leize-zuloa
3. Sastarrain errekek eragindako zabalgunea
4. Zaldiak eta behorrak
5. Leize-zuloaren sarrera
6. Leize-zuloaren sarrera. Xehetasuna
7. Leize-zuloaren barrunbea
8. Leize-zuloaren planoak
9. Leize-zuloaren planoak. Xehetasunak (1)
10. Leize-zuloaren planoak. Xehetasunak (2)
11. Bizkarrezurra irudikatzeko leize-zuloko erliebeaz baliatuz egindako bisontea
12. Azagaia batez zaurituriko zaldia (zaldien galerian, zaldien panel handiaren parean)
13. Zaldien panel handia. Ikuspegi orokorra
14. Zaldien panel handia. Xehetasuna (1)
15. Zaldien panel handia. Xehetasuna (2)
16. Zaldien panel handia. Xehetasuna (3)
17. Zaldien panel handia. Xehetasuna (4)
18. Oreina
19. Hartz-bikotea
20. Hartz-bikotea. Xehetasuna

2. Erromatarrek Gipuzkoako ekialdean: *Oiasso* izeneko *civitas* eta Arditurriko meategia

1. Euskal Herria erromatarren etorreraren garaian
2. Erromatar galtzadak (1)
3. Erromatar galtzadak (2)
4. Estrabonek idatzi zuen "Geografia" idazlanean aipatzen diren euskal leinuak
(K.a. 29. urtetik 7. urtera bitarte)
5. Idazle greko-erromatarrek aipatzen dituzten lekuak Gipuzkoan
6. Bidasoa ibaiaren estuarioa
7. Higer lurmuturra eta *Oiasso*
8. *Oiassoren* kokapena geografikoa
9. *Oiassoren* kokapena, erreferentzia historikoen arabera
10. *Oiassoren* oinplanoa
11. *Oiassoren* maketa
12. *Oiassoren* oinplanoa eta maketa
13. *Oiassoren* ustezko birreraiketa maketan
14. Termetako zoladura, lauza txikiz egina (*opus spicatum*)
15. *Oiassoko* portuaren arrastoak
16. Junkalgo Andre Mariaren elizan aurkitutako mahairako zeramika, *terra sigillata* egina
(K.o. I. mendea)
17. Ama Xantalenen ermitan aurkitutako errauts-ontzien nekropolia (K.o. I. eta II. mende-
etakoa)

18. Ama Xantalenen ermitan aurkitutako errauts-ontziak
19. Ama Xantalenen ermitan aurkitutako errauts-ontzi bat (K. o. I. edo II. mendekotzat jotzen da)
20. Ama Xantalenen ermitan aurkitutako beirazko errauts-ontzi bat (K. o. I. mendea)
21. Higerko ainguratokian aurkitutako jainko-jainkosen brontzezko irudiak: Isis ilargia (A) eta Helios eguzkia (B)
22. Higerko ainguratokian aurkitutako jainko-jainkosen brontzezko irudiak: Minerva (A) eta Marte (B)
23. Andrearriagako hilarria, “VALBELTESO / NIS” hitzak idatzita dituenena (Valerio, Beltesonen semea) (K.a. II-I)
24. Arditurriko meategiak

3. Erromanikoa Nafarroan: Leireko monasterioa

1. Santiagorako lau bide nagusiak
2. Donejakue bidea Euskal Herrian
3. Leire: ingurune naturala
4. Leireko monasterioa (eskema orokorra)
5. Kriptaren oinplanoa (A) eta eliza erromanikoarena (B)
6. Elizaren oinplanoa (alde erromanikoa eta alde zistertarra)
7. Abside erromanikoak
8. Kripta. Xehetasunak (1)
9. Kripta. Xehetasunak (2)
10. Kripta. Xehetasunak (3)
11. Kripta. Xehetasunak (4)
12. Alde erromanikoa
13. Atalde erromaniko baten eskema orokorra
14. Leireko monasterioaren hegoaldeko ate erromanikoa. Krismoia
15. Leireko monasterioaren mendebaldeko atea: *Speziosa* atea
16. *Speziosa* atea. Arkiboltak
17. *Speziosa* atea. Xehetasuna (1)
18. *Speziosa* atea. Xehetasuna (2)
19. Leireko monasterioko kapitelak
20. Alde zistertarra
21. Alde zistertarraren gurutze-gangak

4.-Gasteizko alde zaharra. Andre Mariaren katedral gotikoa

1. Gasteiz
 - 1.1. Gasteiz, almendra-itxurako morfologia duen hiribildua. Panoramika (1)
 - 1.2. Gasteiz, almendra-itxurako morfologia duen hiribildua. Panoramika (2)
 - 1.3. Gasteiz, almendra-itxurako morfologia duen hiribildua. Panoramika (3)
 - 1.4. Gasteiz hiribilduaren oinplano erradiozentrikoa kaleekin
 - 1.5. Gasteiz hiribilduaren hirigintza-bilakaera Erdi Aroan (1)
 - 1.6. Gasteiz hiribilduaren hirigintza-bilakaera Erdi Aroan (2)
 - 1.7. Gasteiz hiribilduaren hirigintza-bilakaera Erdi Aroan (3)
 - 1.8. Gasteiz, XVII. mendearen erdialdera, Benito de Casasek margotutako koadroaren arabera (1)

- 1.9. Gasteiz, XVII. mendearen erdialdera, Benito de Casasek margotutako koadroaren arabera (2)
- 1.10 Gasteizko goiko harresiak
- 1.11. Gasteiz: Harategi kantoia

2. Andre Mariaren katedral gotikoa

- 2.1. Andre Mariaren katedralaren kokapena Gasteizko planoan
- 2.2. Andre Mariaren katedrala. Goitik begiratutako ikuspegia (1)
- 2.3. Andre Mariaren katedrala. Goitik begiratutako ikuspegia (2)
- 2.4. Andre Mariaren katedralaren oinplanoa
- 2.5. Andre Mariaren katedralaren oinplanoaren bilakaera
- 2.6. Eraikinaren aurretikoak (ipar-mendebaldean zeuden hiru atek)
- 2.7. Katedralako iparraldeko transeptua, zutoin-arkuak eta horma-bularrak
- 2.8. Zutoin-arkuak eta horma-bularrak. Xehetasuna
- 2.9. Iparralde gotortua, defentsarako prestatua. Xehetasuna (1)
- 2.10. Iparralde gotortua, defentsarako prestatua. Xehetasuna (2)
- 2.11. Errondabidetik ikusten den ikuspegia, zelatan ibiltzeko
- 2.12. Alfontso X.aren garaian egindako alde gotikoa: girola eta absidioloak
- 2.13. Barnealdea: absidea eta erdiko nabea
- 2.14. Barnealdea: nabeak eta triforioa
- 2.15. Mendebaldeko ataldearen ikuspegi orokorra
- 2.16. Mendebaldeko ataldeko erdiko atea
- 2.17. Mendebaldeko ataldeko erdiko ateko tinpanoa
- 2.18. Mendebaldeko ataldeko ate-zangoetan dauden irudiak
- 2.19. Mendebaldeko ataldeko eskuineko atea

5. Errenazimentua Gipuzkoan: Oñatiko Unibertsitatea

1. Platereskoari dagozkion apaingailuak

- 1.1. Gruteskoak
- 1.2. Argimutilak (“*a candelieri*” eginiko lana)
- 1.3. Kapitlak
- 1.4. Arkuak
- 1.5. Kalostra itxurako zutabeak
- 1.6. Gailurreriak
- 1.7. Gargolak
- 1.8. Dominak
- 1.9. Armariak
- 1.10. Kasetoidura mudejarra

2. Oñatiko Unibertsitateko fatxada

- 2.1. Oñatiko *Sancti Spiritus* Unibertsitatea (1540). Fatxadaren ikuspegi orokorra
- 2.2. Oñatiko Unibertsitateko fatxadako pilastretako ikonografia. Eskema orokorra
- 2.3. Erromatar soldadua eta lehoiaren arteko borroka
- 2.4. Herkules eta Hesperideetako herensugea
- 2.5. Zentauroa, Herkulesen emazte Deianira bahitzen
- 2.6. Herkules, Nemeako lehoiarekin borrokan
- 2.7. Herkules hegalduna, Lernako Hidraren aurka borrokan
- 2.8. Perseo, Gorgonarekin eta Gaizkiarekin

- 2.9. Herkulesen eta Anteoren arteko borroka
 - 2.10. Oñatiko *Sancti Spiritus* Unibertsitateko fatxadako Erdiko Aldea
 - 2.11. San Agustin eta San Jeronimo, filosofia neoplatonikoaren eredu
 - 2.12. Gruteskoak
 - 2.13. On Rodrigo Mercado de Zuazola, otoitz egiten
 - 2.14. On Rodrigo Mercado de Zuazolaren armarria
 - 2.15. Karlos I.aren armarria
 - 2.16. Fatxadako Erdiko Gorputzeko Errematea: Gerlariak (1)
 - 2.17. Fatxadako Erdiko Gorputzeko Errematea: Gerlariak (2)
 - 2.18. Bertute teologalak: Fedea (kalizarekin eta gurutzearekin)
 - 2.19. Bertute kardinalak: Justizia (ezpatarekin eta balantzarekin) eta Zuhurtzia (burezurrekin eta galbahearekin)
 - 2.20. Ama Birjina Sortzez Garbia eta Andre Maria Magdalakoa (ukendu-ontziarekin)
 - 2.21. Santa Barbara (palmarekin eta dorrearekin) eta Santa Katalina (ezpatarekin, liburuarekin eta gurpil horzdunarekin)
3. Oñatiko Unibertsitateko patioa
 - 3.1. On Rodrigo Mercado de Zuazolaren armarria
 - 3.2. Oñatiko Unibertsitatearen oinplanoa
 - 3.3. Patioaren ikuspegi orokorra (1)
 - 3.4. Patioaren ikuspegi orokorra (2)
 - 3.5. Patioaren ikuspegi orokorra (3)
 - 3.6. Patioko arkuteriak
 - 3.7. Patioko goiko solairua
 - 3.8. Tondoetako pertsonaia historikoak: Karlos I.a eta Portugaleko Isabel
 - 3.9. Tondoetako pertsonaia mitologikoak: Ulises eta Penelope (grekoen artean, kastitatearen eredu)
 - 3.10. Tondoetako pertsonaia mitologikoak: Kollatino eta Lukrezia (erromatarren artean, kastitatearen eredu)
 - 3.11. Tondoak (1)
 - 3.12. Tondoak (2)
 - 3.13. Gargolak
 - 3.14. Bigarren solairuko kasetoidura mudejarra
 - 3.15. Sarrerako kasetoidura mudejarra
 - 3.16. Sarrerako kasetoidura mudejarra. Xehetasuna
4. Oñatiko Unibertsitateko kapera
 - 4.1. Oñatiko *Sancti Spiritus* Unibertsitateko kaperaren oinplanoa
 - 4.2. Pierres Picartek egindako kaperako erretaula. Ikuspegi orokorra
 - 4.3. San Migel, deabrua garaitzen
 - 4.4. Predelako profeta bat
 - 4.5. Erretaularen hainbat xehetasun (1)
 - 4.6. Erretaularen hainbat xehetasun (2)

6. Donostia barrokotik Donostia neoklasikora

1. Sutearen aurreko Donostia
 - 1.1. Donostiako harresien bilakaera

- 1.2. Berwickeko dukearen garaiko Donostialdea (1719)
 - 1.3. Berwickeko dukearen garaiko Donostiako hiribarnea (1719)
 - 1.4. Berwickeko dukearen garaiko Donostia (1719). Harresien xehetasunak
 - 1.5. Berwickeko dukearen garaiko Donostiako barnealdea (1719). Xehetasunak
 - 1.6. Donostia 1744. urtean
 - 1.7. Donostiaren morfologia XVIII. mendearen erdialdera
 - 1.8. Torrellik eraikitako itxura barrokoa zuen udaletxea
2. Koruko Andre Mariaren basilika
 - 2.1. Donostiako Andre Mariaren eliza gotikoaren oinplanoa (ohartu Santa Martaren klaus-troa duela)
 - 2.2. Koruko Andre Mariaren basilika barrokoaren oinplanoa
 - 2.3. Fatxada nagusiaren ikuspegi orokorra
 - 2.4. Andre Mariaren basilikako fatxada, kale Nagusitik ikusita
 - 2.5. Andre Mariaren basilika: dorreak (1)
 - 2.6. Andre Mariaren basilika: dorreak (2)
 - 2.7. Sarrera nagusia
 - 2.8. Santa Ana, fatxada nagusian
 - 2.9. *Rocaille* izeneko apaingarri bat
 - 2.10. Andre Mariaren basilika rococoo eta udaletxe neoklasikoa. Bi estilo kontrajarriak
 - 2.11. Barnealdearen ikuspegi orokorra
 - 2.12. Barnealdea: pilareak eta gurutze-gangak
 - 2.13. Barnealdea: kupula
 - 2.14. Alboko aldare bat, *rocaille* batez
3. Donostia sutearen ondoren. Arkitektura neoklasikoa
 - 3.1. Ugartemendiaren lehen proiektua Donostia berreraikitzeke (1814)
 - 3.2. Ugartemendiaren bigarren proiektua (1815)
 - 3.3. Ugartemendiak eta Mirandak taxututako trazadura (gaur egungoa)
 - 3.4. Donostia sute aurretik (XVIII) eta sute ondoren (1813-64)
 - 3.5. Donostia neoklasikoa: Udaletxea (Silvestre Pérez)
 - 3.6. Konstituzio plaza, Donostiako plaza neoklasikoa (Ugartemendia)
 - 3.7. Zerbitzu publikoak (aduanak, eskolak, alondegia) Sarriegi plazan (Ugartemendia, 1829)

7. Donostia liberala: Kortazar zabalgunea eta arkitektura historizista

1. Kortazar zabalgunea
 - 1.1. Harresien eraispina (1863)
 - 1.2. Donostiako zabalgunea: ikuspegi orokorra
 - 1.3. Donostiako zabalgunearen aldeak (1865-1916)
 - 1.4. Zabalgunea bideratu zuten arkitektoak (1865-1916)
 - 1.5. Kortazarren plangintza
 - 1.6. Donostiako zabalgunearen ezaugarriak
 - 1.7. Alde Zaharra eta zabalgunearen arteko lotura
 - 1.8. Ardatz erlijiosoa: Koruko Andre Mariaren basilikatik Artzain Onaren katedraleraino
 - 1.9. Bulebarra, Alde Zaharra eta zabalgunearen arteko lotura. Goitik begiratutako ikuspegia
 - 1.10. Bulebarreko zumardia
 - 1.11. Ekialdetik mendebalderako komunikazio-ardatza: Askatasunaren Etorbidea (35 metrozabal)

- 1.12. Iparraldetik hegoalderako komunikazio-ardatza: Urbieta kalea (20 metro zabal)
- 1.13. Kortazar zabalgunearen antzekotasun fisionomiakoa alde zaharrarekin: eraikuntzen estilo neoklasiko isabelinoa
- 1.14. Bilbo plaza (Goikoa arkitektoak diseinatutakoa, zabalgunea Norteko geltokiarekin lotzeko)
- 1.15. Hierarkizazio sozial bertikala: Prim kaleko txirrin-taula bat
- 1.16. Lorategi-hiriaren eredia Urumea ibaiaren ertzean

2. Arkitektura historizista edo eklektikoa

- 2.1. Funtzio politikoa duen arkitektura: Diputazioaren jauregia, frantziar neobarrokoaren arabera estiloan itxuratua (1879)
- 2.2. Aisialdirako arkitektura: Donostiako kasinoa, arkitektura eklektikoaren eredu (1882)
- 2.3. Donostiako kasinoa. Goitik hartutako ikuspegitik
- 2.4. Donostiako kasinoko fatxada nagusia
- 2.5. Donostiako kasinoko sarrera nagusia
- 2.6. Bulebar aldera ematen duen Donostiako kasinoko fatxada
- 2.7. Donostiako kasinoren mendebaldeko gorputza
- 2.8. Funtzio erlijioso duen arkitektura: Artzain Onaren katedrala, germaniar neogotikoaren trazei jarraituz itxuratutako eraikina (1887)
- 2.9. Artzain Onaren katedralaren oinplanoa (Manuel Etxabe, 1887)
- 2.10. Artzain Onaren katedrala: zutoin-arkuak eta horma-bularrak
- 2.11. Artzain Onaren katedrala: absidea
- 2.12. Artzain Onaren katedralaren barnealdea: nabeak eta beirateak
- 2.13. Maria Kristina erregina erregeordearen egoitza ofiziala: Miramar jauregia, *cottage* ingeles batean inspiratutako eraikina (1885)
- 2.14. Aisialdirako arkitektura: Victoria Eugenia antzokia, Francisco de Urkolak neoplatresko estiloan itxuratua (1909)
- 2.15. Victoria Eugenia antzokiko fatxada nagusia
- 2.16. Victoria Eugenia antzokiko fatxada nagusia. Xehetasuna
- 2.17. Victoria Eugenia antzokiko dorrea: ikuspegi orokorra
- 2.18. Victoria Eugenia antzokiko dorrea: arkuteria eta *candelieri* lana
- 2.19. Victoria Eugenia antzokiko xehetasun bat
- 2.20. Burdinurtuzko arkitektura : Norte izeneko tren-geltokia, Letourneuren eta Eiffelen trazen arabera (1863-81)
- 2.21. Modernismoa Donostian: Musika-kioskoa, Ricardo Magdalenak egin. 1907
- 2.22. Modernismoa Donostian: Prim kaleko atalondo bat
- 2.23. Modernismoa Donostian: ekialdeko zabalguneko etxe bat
- 2.24. Modernismoa Donostian: ekialdeko zabalguneko etxe bat. Xehetasuna (1)
- 2.25. Modernismoa Donostian: ekialdeko zabalguneko etxe bat. Xehetasuna (2)

8. Gerra Zibilaren aurreko abangoardiak: Donostiako Klub Nautikoa

1. Donostiako arrazionalismoa: José Manuel Aizpuruak eta Joakin Labaienek eraikitako Klub Nautikoa. 1929
2. Klub Nautikoa, hondartzaren ertzean ainguraturik dagoen itsasontzi baten antza duen eraikina
3. Klub Nautikoaren oinplanoa

4. Klub Nautikoa, Le Corbusierren arkitekturaren arabera taxututako eraikina
5. Klub Nautikoa aurretik ikusita
6. Klub Nautikoa: goiko terraza
7. Klub Nautikoa, orain dela urte batzuk (A) eta gaur egun (B)
8. Klub Nautikoa, estalkirik gabeko terrazarekin (A), eta terraza estalpetuarekin (B)
9. Klub Nautikoaren barnealdea
10. Hondartzara ematen duen terraza

9. Arantzazu: Gerra Zibilaren osteko euskal arte abangoardistaren eredu

1. Arantzazuko basilika: aurreko elizako erretaula barrokoa
2. Arantzazuko basilika, Saenz de Oizak eta Luis Laorgak trazatutako eraikin berria (1950)
3. Latindar gurutzearen formako oinplanoa
4. *Campanile* itxurako dorrea
5. Aurreko elizaren oinarriez baliatuz egindako kriptak eta absidea (kanpotik ikusita)
6. Aurreko elizaren oinarriez baliatuz egindako kriptak. Xehetasuna (1)
7. Aurreko elizaren oinarriez baliatuz egindako kriptak. Xehetasuna (2)
8. Barnealdearen ikuspegi orokorra (1)
9. Barnealdearen ikuspegi orokorra (2)
10. Estaldura, alderantzikaturiko gilaren formakoa
11. Jorge Oteizak zizelkatutako apostoluen frisoa (1953). Ikuspegi orokorra
12. Jorge Oteizak zizelkatutako apostoluak, aurrez aurre
13. Apostoluen frisoa. Xehetasuna (1)
14. Apostoluen frisoa. Xehetasuna (2)
15. Apostoluen frisoa. Xehetasuna (3)
16. Apostoluen frisoa. Xehetasuna (4)
17. Fatxadaren gainazal biluzia
18. Pietatea. 1969 (1)
19. Pietatea (2)
20. Pietatea (3)
21. Chillidak itxuratutako ateak (1)
22. Chillidak itxuratutako ateak (2)
23. Chillidak itxuratutako ateak (3)
24. Chillidak itxuratutako ateak (4)
25. Luzio Muñozek bideratutako erretaula. Ikuspegi orokorra
26. Erretaularen xehetasuna (1)
27. Erretaularen xehetasuna (2)
28. Erretaularen xehetasuna (3)
29. Erretaularen xehetasuna (4)
30. Erretaularen xehetasuna (5)
31. Erretaularen xehetasuna (6)
32. Erretaularen xehetasuna (7)
33. Erretaularen xehetasuna (8)
34. Erretaularen xehetasuna (9)
35. Erretaularen xehetasuna (10)
36. Erretaularen xehetasuna (11)
37. Erretaularen xehetasuna (12)
38. Erretaularen xehetasuna (13)

- 39. Erretaularen xehetasuna (14)
- 40. Erretaularen xehetasuna (15)
- 41. Aita Eunatek egindako beirateak (1)
- 42. Aita Eunatek egindako beirateak (2)

Bibliografia

- ALTUNA, JESÚS; APELLÁNIZ, JUAN M^a: *Historiaurrea*. Kriselu, S.A., Donostia, 1989.
- ALTUNA, JESÚS: *Artearen sustraiak Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 2000.
- ARIZAGA, BEATRIZ: *Gipuzkoako hiri zaharrak*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 1994.
- ARRAZOLA, MARÍA ASUNCIÓN: *El Renacimiento en Guipúzcoa. Tomo I, Arquitectura*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 1967-69.
- ARRAZOLA, MARÍA ASUNCIÓN: *El Renacimiento en Guipúzcoa. Tomo II, Escultura*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 1967-69.
- ARSUAGA, MIGUEL; SESÉ, LUIS: *Donostia-San Sebastián, guía de arquitectura*. Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro, Donostia, 1996.
- ARTOLA, MIGUEL eta beste hainbat egile: *Donostiaren historia*. Editorial Nerea, Hondarribia, 2001.
- BARAÑANO, KOSME eta beste hainbat egile: *Euskal Artearen Historia. Egungo Aroa I*. Kriselu S.A. argitaletxea, Donostia, 1992.
- BARAÑANO, KOSME eta beste hainbat egile: *Euskal Artearen Historia. Egungo Aroa II*. Kriselu S.A. argitaletxea, Donostia, 1992.
- BARAÑANO, KOSME eta beste hainbat egile: *Euskal Artearen Historia. Egungo Aroa III*. Kriselu S.A. argitaletxea, Donostia, 1992.
- CALVO, M^a JESÚS: *Crecimiento y estructura urbana de San Sebastián*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1983.
- EGUÍA, JOSÉ; PORTILLA, MICAELA: *Gotikoa Araban*. Kriselu, S.A., Donostia, 1990.
- FERNANDEZ, JOSÉ JAVIER: *Artearen Historia*. Ibaizabal Argitaletxea, Bilbo, 1997.
- FORNELLS, MONTSERRAT: *La Universidad de Oñati y el Renacimiento*. Diputación Foral de Guipúzcoa, Departamento de Urbanismo y Arquitectura, Donostia, 1995.
- GÓMEZ PIÑEIRO, JAVIER: *Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián*. Ingeba, Donostia, 2003.
- GRANDIO, YAZMINA: *Urbanismo y arquitectura ecléctica en San Sebastián (1890-1910)*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. San Sebastián, 1987.
- KORTADI, EDORTA: *Arantzazu, tradizioa eta abangoardia*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 1993.
- KORTADI, EDORTA: *Gipuzkoako artea irudietan*. Editorial Nerea, S.A., Hondarribia, 2000.
- LARUNBE, MARIA eta beste hainbat egile: *Neoklasikoa*. Kriselu, S.A., Donostia, 1992.
- MENDIZABAL, JUAN IGNACIO: *Artearen Historia*, Erein, Donostia, 2007.
- MOYA, ADELINA eta beste hainbat egile: *Arte y artistas vascos de los años 30*. Diputación Foral

de Guipúzcoa, Donostia, 1986.

PEREZ, EDUARDO: *Atlas Historikoa*. Elkar Argitaletxea, Donostia, 2008.

PLAZAOLA, JUAN: *Euskal Artearen Historia I. Historiaurretik Erromanikora*. Etor-Ostoa, Lasarte-Oria, 2002-2005.



PLAZAOLA, JUAN: *Euskal Artearen Historia II. Gotikotik Errenazimentura*. Etor-Ostoa, Lasarte-Oria, 2002-2005.

PLAZAOLA, JUAN: *Euskal Artearen Historia III. Barrokotik XIX. mendera*. Etor-Ostoa, Lasarte-Oria, 2002-2005.

PLAZAOLA, JUAN: *Euskal Artearen Historia IV. XX. mendea*. Etor-Ostoa, Lasarte-Oria, 2002-2005.

URTEAGA, MERTXE: *Erromatar garaia*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Departamentua, Donostia, 2002.

VALVERDE, LOLA: *Historia de Guipúzcoa*. Editorial Txertoa,



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3000-3



9 788445 730003

Salneurria: 14 €